Jósif Vissariónovich
Dzhugashvili
Stalin



MARXISMOA ETA NAZIO-AUZIA

1913

Fondo documental EHK Dokumentu fondoa
Euskal Herriko Komunistak

MARXISMOA ETA NAZIO-AUZIA

Stalin
1913

Lan hau liburu digital bihurtu da
EHKko militanteek,
barne erabilerarako eta zati bat da
lanerako materiala,
ikerkuntza eta prestakuntza
pentsamendu marxista

http://www.ehk.eus
http://www.abertzalekomunista.net

http://iraultza-garaia.blogspot.com/2015/04/gure-liburuxkak-marxismoa-eta-nazio.html

Izenburua: Marxismoa eta nazio-auzia
Egilea: Stalin (Iosif Visarionovitx Jugaxvili)
Itzultzailea: Pello Oxandabaratz
Iturria: Stalin: *Obras completas de Stalin*
(Mosku (SESB): Marx-Engels-Lenin Institutuko
Atzerriko Hizkuntzen Argitalpenak, 1953)
Argitalpena: IRAULTZA GARAIA liburuxkak
Klasikoak bilduma

Lehenengo edizioa: 2015eko apirila

Marxismoa eta nazio-auzia

Stalin, 1913

AURKIBIDEA
HITZAURREA
MARXISMOA ETA NAZIO-AUZIA
Sarrera
I. Nazioa
II. Mugimendu nazionala
III. Auziaren planteamendua
IV. Autonomia kultural-nazionala
V. Bund erakundea, bere nazionalismoa eta bereizkeria
VI. Kaukasiarrak eta autonomia nazionala
VII. Nazio-auzia Errusian

5

HITZAURREA

Tamalez, gutxi dira euskaldunok gure hizkuntzan irakur ditzakegun pentsamendu marxistaren lan idatziak. Horregatik, gure ekimenak argitaratuko dituen liburuxken artean *Klasikoak* bilduma osatzea ezinbestekoa dugu, eta Pello Oxandabaratzen lan eskuzabalari esker, hasiera eman diezaiokegu zerrenda horri gaurkotasuna galdu ez duen izenburu batekin: *MARXISMOA ETA NAZIO-AUZIA.*

Leninen eskakizunez, Stalinek 1912. eta 1913. urteetan zehar idatzitako lan honetan, nazioa zer den definitzeaz eta mugimendu nazionalen izaera identifikatzeaz gain, materialismo dialektikoan oinarrituz garaiko sozialdemokraziaren adar ezberdinek tokian toki nazio-auziari proposatutako erantzunak aztertzen ditu eta, azkenik, Estatu errusierarentzako konponbidea aurkezten du.

Lan hau une aproposean argitaratzeko aukera izan dugu. Aipatu bezala, gaurkotasuna galdu ez duela esan baino, beharrezko giltza bihurtzen dela baieztatu dezakegu Euskal Herrian nazio-auziari buruzko eztabaida berpiztu dela ikusita, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren estrategia aldaketaren ondorioz.

Aldaketa estrategiko horrek suposatu du, batez ere, independentzia eta iraultza sozialistaren arteko loturaren apurketa. Izan ere, garai bateko ENAMen estrategia independentista iraultzailearen arabera, zapaldu, esplotatu eta zatitutako Euskal Herri Langileak bere arazoei erantzuna emanez, Estatu zapaltzaileen aparatu guztiak suntsitu behar zituen gure lurraldeetan, Atturritik Ebrorainoko Estatu independente eta sozialista baten eraikuntza ahalbidetzeko, proletalgoaren diktadura, beharrezko forma historikoa Euskal Herrian. Argi zegoen orduan: independentista iraultzaileek, injustizia guztien aurkako borrokalariak ziren aldetik, klase zein nazio askapena bilatuko zutela eta batera lortuko zituztela. Txanpon bereko bi aurpegiak baitziren, eta dira.

6

Areago, independentziaren aldeko borroka Mundu Iraultza Sozialistaren zatia izango zen. Estatu Sozialista horrek behin behinekoa izango zen eta, internazionalistak ziren aldetik, beste herrialdeekin berdintasunean batuz, mundu mailako klase eta Estaturik gabeko gizartea eraikitzea helburu zuten: komunismoa.

Estrategia berriak, berriz, euskal Estatu burges independente bat ezartzea du helburu. Izango bide dena ENAMen egitasmo historikoaren modu errealistan “garai berri” batera egokitzea. Batzuk diotenez, sozialismorako aurreko urratsa ere izango da. Errealitatea bestelakoa da oso. Ez da proiektu errealista bat, utopikoa baizik. Bere helburu burges mizkinei dagokienez zein, are gehiago, ENAMen helburu historikoak lortzeari begira. Egitasmo berritzailea ere ez da. Bere baitan ez baitago XIX. mendeko erreformista burges txiki baten idazkietan (Proudhon, Rodbertus, Sismondi, Bernstein...) aurkitu ezin den idei bakar bat ere. Eta zer esan sozialismorako aurreko urratsa izateko asmoari buruz? Hasteko, sozialismoa zerbait bada, komunismorako trantsizio fase bat da. Ez dago argi, beraz, zer esan nahi duen sozialismora heltzeko aurreko urrats bat. Dena den, Euskal Herri Langileari sinestaraztea bere onurako erreforma sozial eta politiko sakonak posible direla kapitalismoarekin apurtu gabe ez da sozialismorako urrats bat, kapitalismoa edertzea baita.

7

Honen aurrean, hirugarren bide bat aurkezten zaigu, independentismo iraultzailea arbuiatu duten bere burua komunistatzat dutenena. Bainuontzian dagoen ur zikinarekin batera bainatzen ari ginen umea botatzea dela, gure ustez. Zeren eta independentzia ez baita soilik nazio zapalkuntza amaitzeko modu bakarra, Euskal Herriko errealitate historikoa kontutan

hartuta. Independentziaren aldeko borroka izan da eta izan liteke eragile iraultzaile indartsua. Egia esan, 1950 hamarkadatik ENAM eta Irlandako Mugimendu Errepublikanoa izan dira Mendebaleko Europako mugimendu iraultzaile bakarrak. Zerbaitegatik izango da, ez da?

Honek guztiak ez du esan nahi estrategia independentista iraultzailea akatsik gabekoa zela. Eta, ondorioz, ENAMen aldaketa estrategikoa indar ilunen konspirazio hutsa izan dela. Hau irrazionala bezain idealista baita. Izan ere, erreformisten arrakasta ez zen posible izango independentismo iraultzailean gabezi teoriko eta ideologiko garrantzitsuak ez baleuzka.

Horregatik behar dugu taburik gabeko independentismo iraultzailearen balantze kritiko bat. Iraultzaile euskaldunon arteko eztabaidaren bidez egin behar duguna.

Espero dugu, beraz, betebehar honetan liburuxka hau lagungarri izatea.

IRAULTZA GARAIA,

2015eko apirilean

MARXISMOA ETA NAZIO AUZIA

Sarrera[1]

Errusian, kontraiaultzaren garaiek, "ekaitza eta kazkabarra" ekartzeaz gain, mugimenduarekiko desilusioa eta amankomuneko indarrekiko fede falta ekarri dituzte. "Etorkizun dirdiratsu" baten esperoan, jendeak, bere nazionalitateaz gaindi orobatean borrokatzen zuen: denon arazoak guztiaren gainetik! Baina barrenean zalantzak agertzen hasi zirenean, jendea multzo nazionaletan sakabanatzen hasi zen: norbera bere buruaz ardura dadila! "Arazo nazionala" guztiaren gainetik!

Aldi berean, herrialde osoan ekonomia eraldaketa prozesu bat ematen ari zen. 1905. urtea ez zen alferrik iragan: nekazalgunean zirauten joputzaren apurrek kolpe gogor bat jasan zuten. Gosearen urteen osteko uztaro onek eta honen atzetik etorri zen goraldi industrialak kapitalismoaren aurrerapena lagundu zuten. Nekazalgunean eman zen diferentziazioak, hirien hazkundeak eta salerosketaren eta komunikazio bideen garapenak aurrerapauso bat eman zuten. Gertaera hau, batez ere, periferiako eskualdeetan ematen da, eta honek Errusiako nazionalitateen garapen ekonomikoa sendotu besterik ezin zuen egin. Eta hauek mugitu beharrean hasi ziren.

Urte hauetan ezarritako "erregimen konstituzionalak" ere nazionalitateen suspertzea lagundu zuen. Egunkarien eta oro har, literaturaren hazkundeak, prentsa eta kultur instituzioen nolabaiteko askatasunak, herri-antzerkien garapenak eta abarrek "nazio sentimenduak" sendotzea ekarri zuen. Dumak[2] zein hauteskunde kanpainak eta bere talde

---

[1] Stalinek liburu hau nagusiki 1912an idatzi zuen, Vartsovian eta gero Vienan bizi zelarik. Lehen aldiz 1913ko martxoaren eta maiatzaren artean artikulu gisa argitaratu zen Prosvestxenie ("Ilustrazioa") deituriko aldizkari boltxebikearen 3, 4 eta 5 zenbakietan, "Nazio arazoa eta sozialdemokrazia" izenburupean. Artikuluaren sinatzaile gisa "K. Stalin" agertzen zen, K horrek Stalinen lehenagoko "Koba" ezizenari egiten zion erreferentzia (garai batean, Stalinek ezizen biak, zaharra eta berria, batera erabiltzen zituen, bere burua "Koba Stalin" bezala aurkeztuz).

Prosvestxenie aldizkaria, boltxebikeen aldizkari legala izan zen, prentsa ilegal boltxebikearen ikur zen Pravda ("Egia") egunkariari loturik zegoen. 1911ko abenduan hasi zen editatzen, Lenin zuzendari zelarik. Stalin zuzendaritza taldeko kide izan zen, 1913an atxilotua izan zen arte. 1914an I Mundu Guda hastean aldizkaria legez kanpo geratu zen. 1917ko uztailean zenbaki bikoitz bat atera zen, aldizkariaren azken alea izan zelarik.

Liburuari dagokionez, esan bezala, lehenik artikulu gisa atera zen, bere lehen izenburua "Nazio arazoa eta sozialdemokrazia" zelarik. Lenin bera liluratuta geratu zen irakurritakoan eta Stalini sekulako loreak bota zizkion. 1914an San Petersburgoko Priboi argitaletxeak liburu bakun gisa argitaratu zuen, Nazio arazoa eta marxismoa izenburupean. Baina handik gutxira, Errusiako Barne Ministeritzak liburua debekatu egin zuen eta liburutegietatik erretiratua izan zedin agindu zuen. 1920an artikulua berriz argitaratu zen, Errusiako Errepublika Sobietarraren Nazioetarako Herri Komisariotzak, Stalin beraren zuzendaritzapean, Stalinen Artikuluen Bilduma bat atera zuenean, artikulu hau ere bertan agertzen zelarik. Hortik aurrera hainbatetan izan zen argitaratua, adibidez 1934an Stalinen artikuluen bilduma berri batean sartu zuten; Nazio eta kolonial arazoa izenekoan. Denborarekin batera, Stalinen lanik ezagunenetako bat bilakatu zen.

[2] ***Duma***: Errusiako parlamentua; 1905ean tsarrak herriaren iraultza nahiak asetzeko deitutakoa. Halere, argi zegoen Duma ez zela hasieran piztu ziren itxaropenek aditzera emandako parlamentu demokratikoa, tsarraren interesetan erabiliko zerbitzu-parlamentua baizik. Boltxebikeek, hasieran boikota egiten bazioten ere, gerora, Dumaren iruzurra deslegitimatzeko asmoz, intsurrekzio iraultzailea ezinezkoa zen testuinguru batean Duman parte hartu zuten, ez hau indartzeko asmoz, baizik eta hau monarkiaren eta burgesiaren aurkako plataforma bezala, iraultzaren onerako tresna (eta ez helburu) bezala erabiliz. Guztira Duman lau legealdi izan ziren eta azkenengoan Gobernu tsaristak hauteskundeetan langileen bozka eskubideak eta ordezkaritza mugatu egin zituen, iraultzaileen presentzia eta parte hartzea mugatu asmoz.

politikoek, nazioei bizitasuna emateko aukera berriak eta hauek mobilizatzeko esparru berri bat zabaldu zituen.

10

Goitik hasitako nazionalismo oldarkorrak eta "boterearen ahaldunek", periferiaren "askatasunarenganako maitasunaz" mendeku hartzeko hasitako errepresio uholdeak, erreakzio bezala behetik sortutako nazionalismo uholde bat ekarri du, hauxe askotan txobinismo hutsa izatera iristen zelarik. Denok ezagutzen ditugu gertakari hauek: judutarren artean, sionismoaren sendotzea; Polonian, txobinismoarena; tartariarren[3] artean panislamismoarena; armeniarren, georgiarren eta ukrainarren artean, nazionalismoaren gogortzea eta burges-ttipi ororen barrenetan, antisemitismoranzko joera.

Nazionalismoaren uholdeak, langile masak irenstea mehatxatuz aurrera egiten zuen. Eta askapen mugimendua gero eta gehiago ahultzen zelarik, zenbat eta gar handiagoz loratzen zen nazionalismoa.

Une latz hauetan, sozialdemokraziak[4] eginkizun handi bat zuen: nazionalismoari aurre egitea, masak "izurrite" orokorretik babestea. Izan ere, sozialdemokraziak bakarrik lor zezakeen hori, nazionalismoari internazionalismoaren eta klase batasunaren eta banaezintasunaren arma kontrajarriz. Eta nazionalismoaren uholdea zenbat eta indartsuagoa izan, zenbat eta bortitzago entzun beharko zatekeen Errusiako nazionalitate guztietako proletarioak anaitzearen eta batzearen aldeko sozialdemokraziaren oihua. Halako momentuetan, nazionalismoarekin zuzenean topeka ari ziren periferiako eskualdeetako sozialdemokraten aldetik sendotasun berezi bat beharrezkoa zen.

11

---

[3] ***Tartariarrak***: SESB osatzen zuten lurretan zehar hedatutako herri turkikoa; turkiar familiako hizkuntza batez hitzegiten dute, eta alfabeto zirilikoz

idazten dute. 10 milioi bat tartariar daude, horietako bi Tatarstanen bizi direlarik, kopuru hauek zehazten zailak badira ere. Euren izena "Ta-ta" mongoliar tributik dator, eta gerora, tribu hau beste tribu turkiko edo mongoliar batzuekin batzerakoan eta Erdi Aroan zehar errusiar lurrak inbaditzerakoan, errusiarrek halako tribu mongol-turkikoak izen generiko horrekin ezagutuko zituzten. Historian zehar "tartariar" izenak eztabaida handia sortu du, izen honetan sartutako taldeen sailkapena gutxi arte aldakorra eta ez oso zehatza baitzen. Gehienak musulman suniak dira eta horixe da euren erlijio tradizionala; Errusian hainbeste denbora egon eta gero batzuk kristautasun ortodoxora aldatu badira ere. Oso barreiaturik bizi dira, beraz tartariar guztien arteko batasun sentimendua ahulduz joan da. V mendean Gobiko desertuan lokalizaturik zeuden, eta IX-XII mende artean mendebalderantz mugitu ziren eta Erdi Aroko errusiar Estatuak inbaditu zituzten, Erdi Aroko mundu eslaviarraren mapa aldatuz: Estatu eslaviar batzuk suntsitu edo konkistatu egin zituzten eta beste batzuk menperatu (tartariarren inbasioak errusiar eta oro har Ekialdeko eslaviar historian mugarri garrantzitsu bat dira). Gehienbat, Krimean eta Volgaren arroan finkatu ziren, eta bertan euren Estatuak sortu zituzten: Krimeako khanerria eta Kazango khanerria. Azken hau, Iban IV Izugarria tsarrak konkistatu eta Errusiar Inperioan sartu zuen, hala ere tartariarrak euren presentzia eta euren eragina (batez ere merkatari gisa) mantentzeko gai izan dira. Krimeako khanerria oso boteretsua izan zen eta Otomandar Inperioaren aliatu gisa jardun zuen Ukrainako kosakoen edota Poloniar erresumaren aurka borrokatuz. Kattalin Handia tsarinak Krimea konkistatzerakoan desegin zen; eta XIX mendean Gobernuak eslaviar jatorrizko biztanle asko Krimeara joatea babestu zuen bertako tartariarren presentziari kontrabalantza egiteko. Hori dela eta, mende horretan Krimeako tartariar askok Turkiara emigratu zuten eta Krimean tartariar presentzia asko murriztu zen. Sobietar Iraultzarekin batera, Volgaren arroko tartariar boltxebikeek, Sobietar Batasunaren barruan Tatarstango Sobietar Errepublika Autonomo Sozialista aldarrikatu zuten Kazan hiriaren inguruan, eta hala tartariar hauek euren burujabetza berreskuratu zuten. 1992an, Sobietar Batasuna desegin eta urte batera, Tatarstango Errepublika sortu zen, eta bere Konstituzioaren arabera "Errusiako Federazioari atxikitako Errepublika bat da".

[4] ***Errusiako sozialdemokrazia***: Kontzeptu hau aipatzerakoan, orokorrean, Errusiako mugimendu marxistaz eta batez ere Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrataz ari gara. Alderdi hori 1897an sortu zen, eta 1903an bere barruan boltxebikeen eta mentxebikeen korronteak azalduko ziren. 1912an, korronte hauek guztiz bananduko ziren (ikus 8 oharra). Hala ere, Stalinek liburu hau 1913an, oraindik apurketaren arrazoi eta ondorio denak oso argi ez zeudenean idatzi zuen; beraz, Stalinek kontzeptu hau sarritan erabiliko du, agian apurketaren sakontasunaz eta bere ondorioez oraindik kontziente ez zelako, edo baita apurketaren aurretik alderdiak batuta izan zuen historiari so egitean.

Baina sozialdemokratek, eta inork baino gutxiago periferiako eskualdeetakoek, ez zuten eginkizunak eskatzen zuen mailarik eman. Bundek[5], lehen eginkizun amankomunak nabarmentzen zituenak, orain helburu nazionalista hutsak jartzen ditu lehen mailan: joera hau hain muturreko egin zen, ezen bere hauteskunde kanpainako puntu nagusietako bat "larunbateko ospakizunak[6]" eta "jiddisharen[7] aintzatespenak" osatzen zutela. Bunden atzetik Kaukaso etorri zen: sozialdemokrata kaukasiar batzuek, lehen beste sozialdemokrata kaukasiarrekin batera "autonomia nazional-kulturala" errefusatzen bazuten ere, orain berehala lortu beharreko aldarrikapen bezala aurkezten dute. Eta hori, zalantza nazionalistak aintzatesten zituen ebazpena onartu zuen likidatzaileen konferentziaz[8] hitzik ez egitearren.

Guzti honetatik, nazio-auziari buruzko Errusiako sozialdemokraziaren ikuskerak sozialdemokrata guztientzat guztiz argi ez daudela ondorioztatzen dugu.

---

[5] ***Bund***: Bund erakundea langile judutarrak biltzen zituen alderdi sozialista judutarra izan zen. Bere izen osoa "Poloniako, Lituaniako eta Errusiako Langile Judutarren Federazio Nagusia" zen (Bund hitzak jiddishez Federazio esan nahi du). Bund erakundea 1897an sortu zen, Errusiar Inperioko langile judutar guztiak elkarte bakar batean batzeko asmoz. Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrata 1898an sortzean, Bund erakundea mugimendu marxista bateratuaren parte izatera pasa zen, baina azken honen II Kongresuan, Bund erakundeak alderdi bateratua utzi egin zuen, honek Bunden autonomia nazionalerako proposamena onartu ez zuelako. 1906an, IV Biltzarrean, berriz batuko bazen ere, batasun hori formazkoa izan zen, ez benetakoa. Bundistek, errusiar mugimendu marxistaren zatiketaren aurrean, gehienbat mentxebikeen alde egiten zuten (adibidez, 1912ko abuztuko Likidatzaileen Konferentzian parte hartzerakoan). Bund erakundea sionismoaren aurka zegoen, Europako judutarrentzat Palestinan Estatu judutarra eraikitzeko emigratzea baino autonomia kulturala defendatzen zuelako eta judutarren hizkuntza legez hebraieraren ordez jiddishera defendatzen zuelako; halere, judutar askok Palestinara emigratzeak, Bunden militantziaren murrizketa ekarriko zuen. Bund erakundea, batez ere Bielorrusian eta Ukrainan zen indartsua eta judutarrak pogrometatik defendatzeko miliziak antolatzen zituen. 1917an otsaileko iraultza burgesa babestu zuen, baina Urriko Iraultza Sozialistaren aurka agertu zen. Hala ere, zuriek eramandako pogrom gogorrek bundista asko boltxebikeengana hurbildu zituzten, Bunden barruan zatiketa prokomunista bat sortuz. SESBen, Bunden "post mortem" lorpenik handiena, SESBk Birobidzhaneko Judutar Oblast Autonomoaren sortzea izan zen. Polonian alderdi aktiboa izan zen II Mundu Guda bukatu arte, eta nazismoaren aurkako erresistentzian (esaterako Vartsoviako Ghettoko Matxinadan) parte hartu zuen. Gaur egun ez da alderdi bezala existitzen, baina badaude Bunden ondarea bizirik mantentzen duten zenbait judutar zentru kultural

[6] ***Larunbata*** (*Sabbath*): Judutarrentzat larunbata Jainkoaren otoitz-eguna da, eta egun horretan zerbitzu erlijiosoak bete behar dituzte. Kristauentzat igandea denaren baliokidea da

[7] ***Jiddish***: Europa erdialdeko judutarren hizkuntza, germaniar hizkuntzen familiakoa. Hizkuntza honek alemanieraren antza handia du, hizkuntz-enborra alemanierarena da, hiztegi aldetik hebraieraren mailegu batzuk baditu ere. Gaur egun 2-3 milioi hiztun ditu mundu osoan zehar barreiatuta, eta gehienbat hebraitar alfabetoz idazten da, latindar alfabetoz ere idatzi badaitekeen arren. XVIII mendean, Ilustrazioarekin batera, Haskalah mugimenduaren eraginez europar judutar askok, "kultura hartzeko" eta "integratzeko" nahi horrek bultzatuta, jiddisha alde batera utzi zuten, "hizkera ez-zibilizatu trakets" bat eta "berezitasun mugatzaile" bat zelakoan; horrela europar kultura eta hizkuntzetara asimilatzen hasi ziren. XIX eta XX mendeetan, normalizazioari eta literatur produkzio handiari esker, jiddishak berpizkunde bat izan zuen. Halere, nazismoak judutarren aurka burututako jazarpen kriminalak jiddisharen hiztun kopurua asko murriztu zituen, asko genozidioan hil baitziren eta beste askok heriotza saihesteko ihes egin behar izan baitzuten. Beste alde batetik, judutar nazionalismo sionistak hebraieraren mesedetan jiddish hizkuntza alboratu egin zuen (gaur egun Israelen ez da hizkuntza ofiziala eta guztiz baztertua dago). Errusian, Sobietar Iraultzarekin batera, SESBeko toki batzuetan, hala nola Bielorrusian, Ukrainan edo Moldavian hizkuntza aintzatetsia izan zen, eta 1934an sortutako Birobidzhan Judutar Oblast Autonomoan (Errusian), hizkuntza ofiziala da.

[8] ***Likidatzaileen konferentzia***: Mentxebikeen eskuineko ildoak, likidatzaile izenaz ezagutua zenak, 1912an antolatu zuen konferentziaz ari da Stalin. Likidatzaileen Konferentzia, 1912ko abuztuan, Vienan, errusiar mugimendu sozialistako talde antiboltxebike guztiek (trotskistek, mentxebikeek, bundistek, kaukasiar errebisionistek eta abar) burutu zuten konferentzia bat izan zen. Konferentzia honen helburua, boltxebikeak bakartzea eta hauen eragina murriztea izan zen. Konferentzian hartutako erabakien arabera, Alderdiaren egitura iraultzaile ilegalak likidatu egin behar ziren, alderdi guztiz legal bat eraikitzeko bidean, autodeterminazioaren eskubidea alde batera utzi behar zen autonomia nazional-kulturalaren mesedetan, lurraren banaketaren ordez, nekazal erreforma moderatua defendatu behar zen, eta bide iraultzaileen ordez, bide konstituzionalista legalak hartu behar ziren. Konferentzia honek Duma tsaristan parte-hartzearen garrantzia handietsi egin zuen, burgesia liberalarekin akordio politikoa lortzea onesteraino. Konferentzia honek mentxebikeen eta boltxebikeen arteko behin-betiko apurketa ekarri zuen.

Argi dago nazio-auziaz ikerketa sakon eta zehatz bat egitea beharrezkoa dela. Sozialdemokrata kontsekuenteek nahasmen nazionalistaren aurkako lan nekaezin eta koordinatu bat burutzea beharrezkoa da, nahasmena edonondik etorritakoa bada ere.

13

I. Nazioa

Zer da nazio bat?

Lehenik eta behin; nazio bat komunitate bat, gizaki- komunitate jakin bat da.

Berau ez da ez arrazazko ez eta tribuzko komunitatea. Gaur egungo nazio italiarra erromatarrek, germaniarrek, etruskoek, greziarrek, arabiarrek eta abarrek osatua izan da. Frantziar nazioa galiarrek, erromatarrek, bretoiek, germaniarrek eta abarrek osatu izan dute. Eta berdin mintza gaitezke ingelesez, alemaniarrez eta abarrez, euren nazioak ere arraza eta tribu ezberdinetako pertsonek osatu baitituzte.

Beraz, nazioa arrazazko edota tribuzko komunitate bat ez ezik, historikoki osatutako gizaki-komunitate baten gisa agertzen zaigu.

Baina beste alde batetik, argi dago Ziro[9] edota Alexanderren[10] Estatu handiak, historian zehar sortuak eta arraza eta tribu anitzek osatuak izan baziren ere, ezin ditugula naziotzat hartu. Estatu horiek ez ziren nazioak, konkistatzaile honen edo haren arrakasten edo porroten arabera batzen edo puskatzen ziren gaizki lotutako eta hala nola suertatutako talde eta tribuen batuketak baizik.

Beraz, nazio bat, hala-nolako komunitate behin-behineko bat ez ezik, gizakien komunitate egonkor bat dela kontutan izan behar dugu.

14

Baina komunitate egonkor oro ez da nazio. Austria eta Errusia komunitate egonkorrak dira eta inortxok ere ez ditu naziotzat hartzen. Zerk ezberdintzen du nazio komunitate bat Estatu-komunitate batengandik? Beste arrazoi askoren artean, adibidez, komunitate nazional batentzako hizkuntza amankomun baten derrigorrezkotasunak; komunitate estatal batentzako ordea, hizkuntza amankomun bat egotea ez da beharrezkoa. Austrian nazio txekiarra edota Errusian nazio poloniarra imajinaezinak izango ziratekeen hizkuntza amankomunik izango ez balute, baina Errusiaren edota Austriaren osotasunarentzat, euren mugen barruan hizkuntza anitz mintzatzea ez da inolako traba. Honi buruz aritzean, noski, herriak hitz egiten dituen hizkuntzez ari gara, eta ez administrazioak darabilen hizkuntza ofizialaz.

Beraz, *hizkuntza-komunitatea* nazioaren ezaugarri berezietako bat denaz jabetzen gara.

Logika erabiliz ondoriozta dezakegu honek ez duela esan nahi nazio ezberdinek, beti, edonon, hizkuntza ezberdinak erabili behar dituztenik; edota hizkuntza bera erabiltzen duten guztiak halabeharrez nazio berekoak direnik. Hizkuntza *amankomun* bat nazio bakoitzarentzat, baina

---

[9] ***Ziro***: Pertsiar erregea. Ziro II.a edo Ziro Handia, Kristo aurreko VI mendean bizi izan zen. Bere agintaritzapean, Pertsiak Mediar Inperioa eta Babiloniar Inperioa garaitu eta konkistatu egin zituen. Bere erresuman juduen ezartzea baimentzeagatik eta euren kultura babesteagatik izan zen ezaguna, baina baita ere bere menpekoei ezartzen zien gobernu absolutista gogorragatik. Bere Inperioak gaur egungo Turkia osoa, Ekialde Hurbila, Iran, Erdialdeko Asia eta Afganistan okupatzen zituen

[10] ***Alexander***: Mazedoniako errege greziarra. Mazedoniako Alexander III.a edo Alexander Handia izenez ezagutua zen. Bere aita Filipo II.ak Grezia osoa mazedoniar monarkiaren buruzagitzapean batuta, Alexanderrek konkista berriei ekin zion eta sekulako Inperioa konkistatu zuen: Greziatik Indiara. Kultura greziarra munduan zehar zabaldu zuen, halere, bere botere absolutista finkatzeko greziar tradizio politikoa alboratu izan zuen. Bere izena zuten hiri pila fundatu zituen (ezagunena Alexandria, Egipton), baina arpilatzeak, triskantzak eta sarraskiak ere burutu zituen. Bera hiltzerakoan, bere Inperioan bere jeneralen eta senideen arteko gatazkak piztu ziren, eta Inperioa euren artean banatua izan zen; Inperio Antigonida (Grezian), Inperio Seleuzida (Mesopotamian eta Pertsian) eta Inperio Ptolemaikoa (Egipton) sortuko zirelarik.

ez halabeharrez hizkuntza ezberdin anitz beste hainbeste naziorentzat! Ez dago aldi berean zenbait hizkuntza ezberdinetan hitz egiten duen naziorik, baina honek ez du esan nahi ezin daitezkeenik hizkuntza berean hitz egiten duten nazio ezberdin bi izan! Ingelesek eta estatubatuarrek hizkuntza bera darabilte eta ez dute nazio bakar bat osatzen. Eta beste hainbeste esan genezake norvegiarrez eta daniarrez, zein ingelesez eta irlandarrez.

Eta hizkuntza amankomun batean mintzatzen badira, zergatik ingelesek eta estatubatuarrek ez dute nazio bakar bat osatzen?

Batez ere ez direlako elkarrekin bizi, lurralde ezberdinetan baizik. Nazioa, jarraipena duten harreman iraunkorren ondorioz bakarrik sortzen da, belaunaldiz belaunaldi irauten duen gizakien elkarbizitza baten ondorioz. Eta mota horretako elkarbizitza iraunkorra, lurralde amankomunik gabe ezinezkoa da. Aspaldi batean, ingelesak eta estatubatuarrak lurralde amankomun batean bizi izan ziren, Ingalaterran, eta nazio bakar bat osatzen zuten. Geroago ingelesetako batzuek, herrialde honetatik beste lurralde batera emigratu zuten, Ipar Ameriketara, eta denborarekin batera, lurralde berri honetan, beste nazio berri bat osatuko zuten: estatubatuarra. Lurralde-ezberdintasunak, nazio ezberdinak osatzera eraman zituen.

15

Beraz, *lurralde-komunitatea* nazioaren ezaugarri berezietako bat denaz jabetzen gara.

Baina hauxe ez dugu honekin bukatzen. Lurralde- komunitateak ez du berez nazio bat determinatzen. Honez gain, nazioaren bazter ezberdinak orobatean elkarlotzen dituen lotura ekonomiko bat gaineratu behar zaio. Ingalaterra eta Estatu Batuen artean ez dago halako loturarik, beraz nazio ezberdin bi osatzen dituzte. Eta Estatu Batuak ez ziren naziotzat hartu izan beharko Iparramerikaren txoko ezberdinak lan banaketaren, komunikazio bideen eta abarren bitartez batasun ekonomiko batean euren artean loturik ez baleude.

Jar dezagun georgiarren adibidea. Erreformaz aurreko garaietako georgiarrak lurralde amankomun batean bizi ziren eta hizkuntza amankomun batean hitz egiten zuten; baina halere, ikuspuntu zorrotzetik begiratuz, ez zuten nazio bat osatzen, euren arteko loturarik ez zuten hainbat printzerri ezberdinetan zatiturik egonik bizitza ekonomiko amankomun bat izan ezin zutelako bizi; mendeak eta mendeak eman zituzten euren artean borrokan eta elkar xahutuz, edo turkiarrak edota pertsiarrak elkarren aurka xaxatuz. Zortedun erregeren batek noizbehinka lortzen zuen hala-nolako batasun behin-behinekoa, kasurik onenean, azalean, esparru administratiboan ematen zen soilik; eta laster desegiten zen, nekazarien axolagabekeriarekin eta printze ezberdinen kutixiekin talka egiten zuenean. Georgiaren sakabanaketa ekonomikoa kontutan izanez gero, ezin zatekeen beste modu batez izan; Georgia ez zen nazio izan XIX mendearen bigarren erdia arte, joputza erregimenaren erorketak eta herrialdearen bizitza ekonomikoaren garapenak, komunikabideen garapenak eta kapitalismoaren sorrerak bere eskualdeen artean lan banaketa ezarri zuten arte, printzerrien bakartasun ekonomikoa erauzi zuten arte eta hauek batu zituzten arte.

16

Eta hauxe bera esan dezakegu feudalismoaren fasetik iragan den eta kapitalismoa garatu duen nazio oroz.

Beraz, *bizitza ekonomikoaren komunitatea, lotura ekonomikoa*, nazioaren ezaugarri berezietako bat denaz jabetzen gara.

Baina honekin ere ez dugu bukatzen. Esandakoaz gain, nazio baten bildutako gizaki guztien izpiritu-fisonomiaren berezitasunak ere kontutan hartu beharko ditugu. Nazioak, bata bestearengandik, euren bizi baldintzez gain, nazio kulturan berezitasunak islatzen dituen izpiritu-fisonomiaz ere bereizten dira. Belaunaldiz belaunaldi, bizi baldintza ezberdinak direla eta sortua izan den psikologia bereziak, hizkuntza berean mintzo diren Ingalaterrak, Estatu Batuek eta Irlandak hiru nazio ezberdin osatzean paper garrantzitsu bat du.

Jakina psikologia edota beste era batean "izaera nazionala" deritzon hori, bere kabuz, kanpotik ikusten duenarentzat ikustezina dela; baina nazio osoaren kultura amankomunaren berezitasunetan islatzen denez gero, ondo nabarmena da eta ezin da alde batera utzi.

"Nazio izaera" behin betiko existitzen ez dela ez dago esan beharrik, bizi baldintzekin batera aldatzen baita, baina edozein momentu jakinetan existitzen denez, fisonomia nazionalean bere aztarna uzten du.

Beraz, *psikologia-komunitatea* nazioaren ezaugarri berezietako bat denaz jabetzen gara.

Honekin batera, nazio baten ezaugarri bereizgarri guztiak aipatu ditugu.

17

Nazio bat; hizkuntza-komunitatearen, lurralde-komunitatearen, bizitza ekonomikoaren komunitatearen eta kultura-komunitatean islatzen den psikologia komunitatearen oinarrian sortzen eta historikoki osatzen den giza komunitate egonkor bat da.

Honez gain, nazioak, beste edozein gertaera historikoren antzera aldaketaren legearen menpe dagoenez, bere historia dauka, jaiotza eta bukaera dauzka.

Esan beharra dago goian aipatutako ezaugarrietako bat ere ez dela banaka nazio bat definitzeko gai. Eta are gehiago: nahikoa dugu halako ezaugarrietako bat faltan egotea, nazioa zenak nazio izateari utz diezaion.

Badaude "nazio izaera" amankomun bat duten eta halere ekonomikoki lotuak ez egonagatik, lurralde ezberdinetan bizitzeagatik, hizkuntza ezberdinetan hitz egiteagatik eta abarrengatik nazio bat osatzen dutenik ezin esan genukeen taldeak. Adibidez, gure ustez, Errusiako, Georgiako, Amerikako, Galitziako[11] eta Kaukaso mendietako *judutarrek* ez dute nazio bakar bat osatzen.

Lurralde eta bizitza ekonomiko amankomuna duten gizakiak imajina ditzazkegu, eta halere ez lukete nazio bat osatuko baldin eta euren artean hizkuntzazko eta "nazio izaerazko" komunitaterik ez balego. Hala gertatzen da, adibidez, Baltiar eskualdeko alemaniar eta letoniarrekin.

Eta azkenik, norvegiarrak eta daniarrak hizkuntza berean mintzatzen dira, baina beste ezaugarriak amankomunean ez dituztenez, ez dute nazio bakar bat osatzen.

---

[11] ***Galitzia*** (ukraineraz Halytxyna, polonieraz Galicja): Europako Ekialdean dagoen eskualdea; gaur egun Ekialdeko Galitzia Ukrainaren parte da (hiriburua, Lviv), eta Mendebaldeko Galitzia aldiz, Poloniaren parte (hiriburua, Lublin). Historia handiko lurraldea da, eta borrokaldi eta inbasio ugariren kausa eta borrokaleku izan da. Etnia nahasketa handia izan du; Erdi Aroan, gehien bat poloniarrek eta erruteniarrek (nolabait esatearren, gaur egungo ukrainarren "arbasoak", paralelismoa sinpleegia bada ere) populatu zutelarik. Erdi Aroan erruteniarrek okupatu zuten, Kieveko Rus Estatuaren parte izan zen, eta Estatu hau desagertzerakoan, erruteniarrek Halytx Printzerria sortu zuten, XII-XIII mendeen artean hungariarren agintaldi labur bat izan bazen ere. 1340 urtean, Poloniako Erresumak Galitzia konkistatu zuen, eta geroago, 1569 urtean, Poloniako Erresumak Lituaniako Dukerri Handiarekin batasuna egin zuenean, Poloniar-Lituaniar Konfederazioaren parte izatera pasa zen. "Poloniaren zatiketa" eman zenean (XVIII mende bukaeran), Austriaren parte izatera pasa zen, eta 1873an Austriak Galitziako poloniarrei instituzio autonomikoak bermatu zizkien, ukrainarrak alde batera utziz. Bestalde, Galitzian judutar gutxiengo garrantzitsu bat betidanik egon da. Errusiar Iraultzaren garaietan, Galitzian guda aunitz eman ziren. Poloniak 1918an bere independentzia berreskuratu zuenean, Galitzia bere parte gisa aldarrikatu zuen; 1919an, ukrainarrek Galitziako ukraniar gehiengodun eskualdetan Mendebaldeko Ukrainako Errepublika Nazionala aldarrikatu bazuten ere, poloniarrek laster zapalduko zituzten halako asmoak (Guda Ukrainar-Poloniarra). 1920an sobietarren eta poloniarren arteko guda eman zenean (Guda Sobietar-Poloniarra), Galitziako ukrainarrak Armada Gorriaren alde jarri ziren, hala ere, ez zuten Galitzia Ukrainar Sobietar Errepublika Sozialistara batzerik lortu, eta eskualdea Poloniako Lehen Errepublikaren menpe geratu zen. II Mundu Gudan alemaniarrek Galitzia inbaditzerakoan, lurralde honetan poloniarren eta ukrainarren arteko borrokak (aurretik bi etnien arteko harremanak nahiko txarrak ziren, bestalde alemaniarrek eta eurekiko kolaborazionismoak giroa gaiztotu zuen) eta judutarren aurkako garbiketa etnikoa eman ziren; gertaera hauek sobietarrek Galitzia askatzean soilik bukatu ziren. II Mundu Guda bukatzean, sobietarrek Ekialdeko Galitzia (gehiengo ukraniarra zuena) Ukrainara batu zuten, eta gaur egun ere Ukraina izaten jarraitzen du, Mendebaldeko Galitzia Polonia den bitartean.

Ezaugarri bereizle guztien elkarketak soilik osatzen du nazio bat.

"Izaera nazionala" ez dela ezaugarri bereizle askotako bat, nazioaren oinarrizko ezaugarri *bakarra* dela, eta beste denak, propio hitz eginez, osagarriak baino, nazioa garatzeko *baldintzak* direla pentsa genezake. Ikuspuntu honi, adibidea jartzearren, Austrian entzutetsuak diren R. Springer[12] eta batez ere O. Bauer[13] nazio-auziaren teoriko sozialdemokratek eusten diote.

18

Azter dezagun euren nazioaren teoria.

Springerren arabera, "nazioa, modu berean pentsatu eta hitz egiten duten gizakien batasuna da". "Gaur egungo gizakien komunitate kulturala da, lurrarekin loturarik ez duena".

Beraz, bizi non bizi, eta euren artean ezin sakabanatuago egon arren, era berean pentsatzen eta hitz egiten duten gizakien "batasun" bat dugu.

Bauer oraindik haratago iristen da.

> "Zer da nazio bat? –galdetzen du– Hizkuntza-komunitatea al da gizakiak nazio bakar baten lotzen dituena? Alta; ingelesak eta irlandarrak hizkuntza bakar batean mintzatzen dira eta ez dute herri bakar bat osatzen, eta bestalde, judutarrek ez dute hizkuntza amankomunik eta hala ere, nazio bat osatzen dute".

Zer da ba, nazio bat?

> "Nazioa, izaera-komunitate erlatibo bat da".

Baina zer da izaera, kasu honetan izaera nazionala?

Izaera nazionala "nazionalitate batetako gizakiak beste batetakoengandik ezberdintzen dituzten ezaugarri multzoa da, nazio bat beste batengandik ezberdintzen duen ezaugarri fisiko eta izpiritualen multzoa".

Noski, Bauerrek jakin badaki izaera nazionala ez dela zerutik eroritako zerbait, eta hori dela eta zera gehitzen du:

"Gizakien izaera euren patuak baino ez du determinatzen". "Nazioa, patuaren komunitatea besterik ez da; gizakiek euren existentzia baliabideak ekoizten eta euren lanaren ekoizkinak banatzen dituzten baldintzek" determinatua dagoena.

---

[12] ***Springer***: "Springer", Karl Renner deituriko austriar sozialdemokraziaren buruzagi baten ezizena zen. Renner gazte-gaztetatik izan zen Austriako Alderdi Sozialdemokrataren kide, eta autonomia nazional-kulturalaren teoriko nagusietako bat izan zen. Guda inperialistaren garaian posizio anbiguo bat izan zuen (hitzez gudaren aurka zegoen, baina ez zuen gudaren aurkako ekintza iraultzailerik babestu). Austriak I Mundu Guda galdu ondorengo lehen Gobernuko kanpo-arazoetarako ministro izan zen. Urriko Iraultzaren aurrean posizio zalantzatia izan zuen, praktikan "demokraziaren" (demokrazia burgesaren) izenean errefusatu egiten zuen. Austriako Errepublika txikia Alemanian sartzearen aldekoa izan zen, baina Alemanian nazismoak boterea hartzerakoan eta honek anexio burutzeko asmoak erakutsi zituenean; ideia horretatik urrundu egin zen. Alemaniak II Mundu Guda galtzerakoan, Renner Austriako Gobernu Probisionalaren buru ezarriko zuten. Rennerrek Austria Alemaniarengandik berriz banandu zuen eta Austriak II Mundu Gudan Alemaniaren "biktima" posizioa izatea negoziatu zuen. Urte horretan bertan, 1945ean, Austriako Errepublikako lehendakari izendatuko zuten, eta postu horretan egongo zen 1950ean bere heriotza gertatu arte.

[13] ***Otto Bauer***: Austriako Alderdi Sozialdemokratako buruzagi hau, autonomia nazional-kulturalaren teoriko bat izan zen. 1907tik 1914ra Alderdi Sozialdemokratako idazkari nagusia izan zen, eta guda inperialista piztu zenean, bere alderdiak bezalaxe jarrera anbiguoa izango zuen, kautskismoari lotutakoa. Urriko Iraultza pizterakoan, Bauerrek aldekotasunaren eta aurkakotasunaren arteko ikuspegia izan zuen, izan ere, bere ikuspegia europar sozialdemokrazia oportunistak eraginda baitzegoen. Urriko Iraultzaren osteko urteetan, Bauer sozialdemokrazia eta marxismo-leninismoaren arteko erdibideko ikuspegi bat izaten saiatu zen, baina porrot egin zuen eta sozialdemokraziarantz hurbildu zen berriz. Austriako Errepublikaren garaian, Gobernu burgeseko Kanpo Arazoetarako Ministro izan zen. Bere posizio politikoak "austromarxismo" bezala laburbilduko ziren eta geroagoko eurokomunismoan eragina izango zuten.

Modu honetan, Bauerren iritziz nazioaren definiziorik "osoena" dena dugu.

19

> "Nazioa patu-komunitatearen oinarrian osatutako izaera- komunitate batek loturiko gizakien multzo bat da".

Beraz, patu-komunitatean oinarritutako nazio-izaerazko komunitate bat dugu; lurralde, hizkuntza, eta bizitza ekonomikozko komunitate batek ezartzen dituen beharrezko lotura guztiak alde batera utzita.

Baina kasu horretan, zer da nazio behar zuenetik gelditzen dena? Zer nolako komunitate nazionalaz hitz egin dezakegu ekonomikoki sakabanaturik dauden, lurralde ezberdinean bizi diren eta belaunaldiz belaunaldi hizkuntza ezberdinean mintzatzen diren gizaki taldeak aintzat hartuz?

Bauer, judutarrez, "hizkuntza amankomunik izan ez arren" nazio bakar bat bailiran mintzo da. Baina zer nolako "patu- komunitatea" eta zer nolako lotura nazionalak egon daitezke adibidez, guztiz sakabanaturik dauden judu georgiar, dagestandar[14], errusiar eta estatubatuarren artean, hizkuntza ezberdinak mintzatzen dituztelarik eta lurralde ezberdinetan bizi direlarik?

Batere zalantzarik gabe, judu hauek hain zuzen georgiarrekin, dagestandarrekin, errusiarrekin eta estatubatuarrekin batera, kultur giro amankomun batean bizitza ekonomiko eta politiko amankomun bat daramate, eta honek judutar hauen nazio izaeran bere aztarna utzi behar du nahitanahiez. Eta euren artean amankomuneko zerbait gelditzen bazaie, halakoak euren jatorria, euren erlijioa eta izaera nazionalaren zenbait hondar dira. Hau ezin da zalantzan jarri. Baina nolatan argudia dezakegu serioski, aipatutako judutarrengan zenbait erlijio-otoitz fosilduk eta desagertuz doazen psikologiazko zenbait hondarrek euren inguruan garatzen den bizitza ekonomiko politiko eta sozialak baino eragin handigoa dutela? Izan ere, ikuspuntu honetatik abiatuz soilik esan dezakegu judutarrek nazio bakarra osatzen dutela.

20

Orduan zein ezberdintasun dago Bauerren "izpiritu nazional" mistiko horretan oinarritzen den eta horrekin aski duen nazioaren eta espiritualisten artean?

Bauerrek nazioaren "ezaugarri bereizlearen" (izaera nazionalaren) eta bere bizitzaren "baldintzen" artean muga gaindiezin bat ezartzen du, bata besteengandik ezberdinduz. Baina zer da izaera nazionala, bizi baldintzen isla baino, ingurumenetik hartutako inpresioen kondentsazioa baino? Nola daiteke izaera nazionala ikustera mugatzea, hauxe errotzen den eta sortzen duen lurrari eta esparruari erreparatu gabe?

Eta horrez gain, XVIII mende bukaeran eta XIX mende hasieran, oraindik Iparramerika "Ingalaterra Berria" deitzen zenean, zerk ezberdintzen zituen nazio ingelesa eta estatubatuarra? Jakina nazio izaera ez zela; izan ere, iparramerikarrak Ingalaterrako jatorrikoak ziren, eta Ameriketara, ingeles hizkuntza eramateaz gain nazio izaera ingelesa ere eraman zuten, eta logikoa denez ezin izan zuten bat- batean galdu; bizi baldintza berrien

---

[14] ***Dagestandarrak***: Dagestango Errepublika Kaukason kokatzen da eta gaur egun Errusiar Federazioaren parte da. Dagestan hitzak hizkuntza turkikoetan "mendietako herrialdea" esan nahi du. Bi milioi eta erdiko populazioa du eta bertan 15 bat etnia bizi dira; nagusienak avaroak (29%), darginiarrak (16%), kumikiarrak (14%) eta lezgiarrak (13%) dira. Errepublikak hizkuntza ofizial asko ditu, hala ere, lingua franca modura errusiera erabiltzen da. Historikoki eskualde hori tribu eta konkistatzaile askoren eskuetan egon da, eta XVIII mendean, Peio I Handiak Errusiarentzat konkistatu zuen. XIX mendean errusiar tsarren aurkako matxinada asko egin zituzten eta Errusiar Iraultzaren osteko Guda Zibilean, gorriekin kontaktu fisiko-geografikorik gabe, zurien tropen (Dongo kosakoen eta Denikin jeneralaren) kontra borrokatu zuten, eta gorriak Dagestanera heltzerakoan begi onez ikusi zituzten. 1921ean, SESBen barruan Dagestango Sobietar Errepublika Autonomo Sozialista aldarrikatua izan zen. SESB desegiterakoan, Dagestango Errepublika sortu berri zen Errusiako Federazioan sartu zen. 1999an, Txetxeniako guda Dagestanera zabaldu zen, bi errepubliketako islamiar fundamentalistek bat egiterakoan. Errusiak matxinada hori kontrolatzea lortu zuen.

menpe, eurengan euren izaera propioa sortzen ari zen arren. Eta halere, euren artean izaera-komunitatea sendoagoa edo ahulagoa bazen ere, orduan, Ingalaterraz gaindi beste nazio bat osatzen zuten. Jakina, nazioaz hitz egiterakoan, orduantxe "Ingalaterra Berria" ez zen Ingalaterraz bere nazio-izaeragatik bereizten; edota ez zen nazio- izaeragatik bizi baldintzengatik, ingurumenarengatik bereizten zena baino hainbeste bereizten.

Beraz, argi dago ez dagoela nazio baten ezaugarri bereizle bat bakarrik. Ezaugarrien multzo bat dago; nazio ezberdinak elkarrekin alderatuz, nazio haietako bakoitzean honek (nazio izaerak), hark (hizkuntzak) edo beste hark (lurraldeak, baldintza ekonomikoek) garrantzi handiagoa hartzen duen. Nazioa, osotasunean hartutako ezaugarri denen bilbatzea da.

21

Bauerren ikuspuntuak, nazioa nazio-izaerarekin nahastean, nazioa eta lurraldea bereizi egiten ditu eta nazioa indar ikustezin eta mistiko bat bihurtzen du. Emaitza bezala, ez dugu nazio bizi eta dinamiko bat; hilobiaz haratagoko zerbait mistiko eta ohartezin bat baizik. Berriz diot halaber: zer nolako nazio judutarra da euren artean ulertu ezin duten (hizkuntza ezberdinetan mintzatzen baitira), munduko toki ezberdinetan bizi diren, sekula elkar ikusiko ez duten eta sekula, ez bake garaietan ez guda garaietan batean ekingo ez duten judutar georgiarrek, dagestandarrek, errusiarrek eta estatubatuarrek osatutako hori?

Ez, sozialdemokraziak bere programa nazionala ez du paperean soilik existitzen diren mota honetako "nazioentzat" ezartzen. Sozialdemokraziak nazio errealak, bizi eta mugitzen diren nazioak, nazio bezala kontutan hartu arazten gaituzten nazioak bakarrik har ditzazke aintzat.

Hortaz, argi dago Bauerrek *nazioa*, kategoria historikoa dena, tribuarekin, kategoria etnikoa denarekin nahasten duela.

Gainera, badirudi Bauer bera ere bere ikuspuntuaren ahuldadeaz jabetzen dela. Bere liburuaren hasieran judutarrak nazio bakar bat direla esan ostean; bukaeran bere burua zuzentzen du, beste nazioekiko asimilatzearen bidez, "gizarte kapitalistak (judutarrei) nazio bezala irautea ahalbideratzen ez diela" esatean. Bere ustez, hori "judutarrek ezartze-lurralde mugaturik ez dutelako" ematen da; txekiarrek ordea, Bauerren arabera nazio bezala iraungo dutenek, eremu hori izan baduten bitartean. Hitz batean esanda: arazoa lurralde amankomun baten faltan dago.

Argudio hau erabiliz, Bauerrek, autonomia nazionala langile judutarren aldarrikapena ezin daitekeela izan frogatu nahi izan du; baina aldi berean, nahi gabe, bere teoria, lurralde-komunitatea nazio baten ezaugarri bereizleetako bat dela ukatzen duena, hankaz gora bota du.

22

Baina Bauer haratago doa. Bere liburuaren hasieran, argi eta garbi "judutarrek, hizkuntza *amankomunik* izan ez arren, nazio bat osatzen dutela" dio. Eta 130 orrialdera iritsi orduko atzeko- aurrera jartzen da, lehen bezain garbi "nazio bat hizkuntza amankomunik gabe ezin daitekeela izan" dioenean.

Hemen Bauerrek "hizkuntza gizakien arteko harreman iturririk garrantzitsuena dela" frogatu nahi izan du, baina azkenean, nahi gabe, frogatu nahi ez zuen zerbait frogatu du: hizkuntza-komunitatearen garrantzia ukatzen duen bere nazioari buruzko teoriaren sendotasun falta.

Honela, firu ideialistez harilkatutako teoria honek bere burua hankaz gora botatzen du.

23

II. Mugimendu nazionala

Nazioa ez da kategoria historiko bat soilik, garai jakin batetako, kapitalismo gorakorraren garaiko kategoria historiko bat baizik. Feudalismoa suntsitzeko eta kapitalismoa garatzeko prozesua, aldi berean, gizonen nazioak osatzen direneko prozesua da. Hauxe adibidez Mendebaldeko Europan gertatzen da. Ingelesak, frantziarrak, alemaniarrak, italiarrak eta abar, feudalismoaren sakabanaketaren gainetik doan kapitalismoaren garaipenaren pean nazio bezala gorpuzten dira.

Baina han, nazioen sorrerak, hauek Estatu nazional independente bilakatzea dakar. Nazio ingelesa, frantsesa eta abar, aldi berean, Estatu ingelesa eta abar dira. Prozesu honetatik at geratzen den Irlandaren kasuak ez du testuinguru orokorra aldatzen.

Ekialdeko Europan gauzak beste modu batean gertatzen dira. Mendebaldean nazioak Estatu bezala garatzen diren bitartean, Ekialdean Estatu multinazionalak, hots, nazio anitzek osatutako Estatuak garatzen dira. Hau da Austria-Hungaria eta Errusiaren kasua. Austrian, zentzu politikoan nazionalitaterik garatuena alemaniarrena zen eta eurek bateratu zituzten austriar nazionalitate ezberdinak Estatu bakar batean. Hungarian, antolaketa estatalerako aproposenak magiarrak –hungariar nazionalitate ezberdinen nukleoa– izan ziren, eta eurak izan ziren Hungaria bateratu zutenak. Errusian, nazionalitateen bateratzaile papera euren gain hartu zutenak errusiar-handiak[15] izan ziren, historian zehar sortutako burokrazia aristokratiko militar antolatu eta indartsu bat buru zutelarik.

24

Ekialdean gauzak modu honetan gertatu ziren.

Estatuen sortze prozesu xelebre hau, feudalismoa suntsitu gabeko baldintzetan soilik eman ahal izan zen, ia garatu gabeko kapitalismo baten baldintzetan, non bigarren maila batera bazterturik aurkitu izan diren nazioek, nazio oso bezala garatzeko aukerarik izan ez duten.

Baina kapitalismoa Ekialdeko Europan ere garatzen hasi zen. Salerosketa eta komunikazio bideak garatzen hasten dira. Hiri handiak sortzen dira. Nazioak ekonomikoki zurkaizten dira. Bazterturiko nazionalitateen bizitza lasaia hankaz gora jarriz, kapitalismoak nazio hauek aztoratu eta mugiarazi egiten ditu. Prentsaren eta antzerkien garapenak, Reichsraten[16] (Austrian) eta Duman (Errusian) emandako jarduera politikoek, “sentimendu nazionalak” sendotzen laguntzen dute. Bazterturiko nazioetan agertzen diren intelektualak “ideia nazionalean” murgildu egiten dira eta joera hori laguntzen dute.

Baina euren bizitza propioa izaten hasi diren nazio baztertuek ez dute Estatu nazional independenteetan garatzeko aukerarik: luzaroan Estatuaren buru izandako nazio

---

[15] ***Errusiar-handiak***: Orduan, gaur egun “errusiar” izenez soilik ezagutua den herria izen honekin ezagutzen zen. Ukrainarrekin (orduan erregimen tsaristaren arabera “errusiar-txikiak” zirenak, izan ere, errusiar askok Ukraina eta zehatzago Kiev errusiar zibilizazioaren sorlekutzat hartzen dute eta orduan Ukrainaren izen ofiziala “Errusia Txikia” zen) eta bielorrusiarrekin (“errusiar zuriekin”, literalki “Bielorrusia” hitzak hori esan nahi du) ez nahasteko erabiltzen zen hitza zen.

[16] ***Reichsrat*** (Kamera Inperiala): Garai hartako Austriako parlamentua. Reichsrat 1861ean izan zen sortua, eta Inperioaren austriar zatia ordezkatzen zuen. 1907an sufragio unibertsala ezarri zen, eta ordutik aurrera ordezkariak bozka zuzenez aukeratzen ziren. Bitan banatzen zen; “Diputatuen Kamera” eta “Nobleen Kamera”. I Mundu Gudaren ostean Austriako Errepublikaren organo legegilearen izena aldatu egin zen, eta “Austriako Parlamentua” (Österreichisches Parliament) izena jarri zitzaion. Döllfussen diktaduran zehar eta nazien okupazioan zehar funtzionatzeari utzi bazion ere, II Mundu Gerraren ostean Austriako Parlamentua berrezarri egin zen.

menderatzaileetako maila sozial gorenek jartzen dien erresistentzia ezin boteretsuagoaren aurka egiten baitute talka. Berandu egin zaie!

Horrela eratu ziren nazio gisa Austrian txekiarrak, poloniarrak eta abar; Hungarian kroaziarrak eta abar; Errusian, letoniarrak, lituaniarrak, ukrainarrak, georgiarrak, armeniarrak eta abar. Mendebaldeko Europan salbuespena (Irlanda) dena, Ekialdekoan araua da.

Mendebaldean, Irlandak, bere salbuespeneko egoerari mugimendu nazional indartsu baten bidez egin zion aurre. Ekialdean iratzarri berri diren nazioak, berdina egitera beharturik aurkitzen ziren.

Honela sortu ziren Ekialdeko Europako nazio gazteak borrokara bultzatu zituzten baldintzak.

25

Zehazki hitz eginez gero, borroka ez zen nazio osoen artean eman edota zabaldu, nazio menderatzaileetako eta bazterturiko nazioetako klase menderatzaileen artean baizik. Oro har, borroka, nazio zanpatuetako hiriko burgesia ttipiaren eta nazio menderatzaileetako burgesia handiaren artean eman zen (txekiarrak eta alemaniarrak), edota nazio zanpatuetako nekazal burgesiaren eta nazio menderatzaileetako lurjabeen artean (ukrainarrak Polonian), edota zanpatutako nazioetako burgesia “nazional” osoaren eta nazio menderatzaileetako gobernu- aristokraziaren artean (Errusian; Polonia, Lituania eta Ukraina).

Hemen burgesia da jokalari nagusia.

Sortu berri den burgesiarentzat, arazorik larriena merkatua da. Bere salgaiak merkaturatzea eta beste nazionalitate batetako burgesiaren aurkako konpetentzian gailentzea: horra bere helburua. Hemendik da eratorria “bere” merkatua, merkatu “propioa” bermatzeko nahia. Burgesiak bere nazionalismoa ikasten duen lehen eskola merkatua da.

Baina oro har, afera hau ez da merkatura mugatzen. Gatazka honetan nazio menderatzaileko burokrazia erdi-feudal erdi- burgesa sartzen da, “heldu eta ez laga” taktika erabiliz. Nazio menderatzaileko burgesiak –handiak zein ttipiak-, honela, bere lehiakidea alboratzeko modu “arinago” eta “erabakigarriago” bat aurkitzen du. “Indarrak” batu egiten dira eta burgesia “arrotzaren” aukako neurri mugatzaileak hartzen hasten dira, neurri hauek errepresio bilakatuko direlarik. Borroka esparru ekonomikotik esparru politikora iragaten da. Mugitzeko askatasuna murriztea, hizkuntza erabiltzeko oztopoak, hauteskunde eskubideen mugatzeak, eskola kopurua txikitzea, erlijioari jarritako oztopoak eta abar luze bat; guzti horiek “lehiakideari” emandako makilakadak dira. Eta noski, neurri hauek ez dira soilik nazio menderatzaileetako burgesiaren mesederako, gobernu-burokraziaren kastaren helburu zehatzen onerako ere badira. Baina emaitzen aldetik berdin da: bai Austria- Hungarian zein Errusian burokrazia eta burgesia elkarturik aurkitzen dira.

26

Nazio zanpatuetako burgesia, bere burua alde guztietatik erasotua ikustean, jakina denez, mugimenduan jartzen hasten da. “Bere herriko behekoengana” jotzen du, “aberriaren aldeko” oihuak botatzen ditu eta bere kausa herri osoaren kausatzat hartua izan dadin saiatzen da. “Aberkideen” artean “aberriaren” aldeko armada bat osatzen du. “Behekoek” ez diete oihu hauei beti entzungor egiten eta haien banderaren azpian batzen dira: goitik datorren errepresioak eurei ere eragiten die eta haserretu egiten dira.

Honela sortzen da mugimendu nazionala.

Mugimendu nazionalaren indarra, nazioaren sektore zabalen parte hartzeak, langileen eta baserritarren parte hartzeak determinatzen du.

Proletalgoa nazionalismo burgesaren banderapean jartzea klase kontraesanen, proletalgoaren antolaketaren eta kontzientzia mailaren araberakoa izango da. Proletalgo kontzienteak jada badu bere bandera, ezaguna dena, eta ez du burgesiaren banderapean joateko beharrik.

Nekazariei dagokienez, mugimendu nazionalean parte hartzea errepresioaren izaeraren araberakoa da. Errepresioak "lurraren" interesei kalte egiten badie, Irlandan gertatu izan den bezala, nekazal masa handiak mugimendu nazionalaren bandera azpian jarriko dira.

Beste alde batetik, Georgian nazionalismo anti-errusiar seriorik ez badago, han masengan nazionalismo hau piztu dezaketen lurjabe errusiarrik edota burgesia handi errusiarrik ez dagoelako da. Georgian bada nazionalismo *anti-armeniar* bat; hori burgesia handi armeniarra egon badagoelako da, oraindik ahula den burgesia-ttipi georgiarra txikitzean hauxe nazionalismo anti-armeniarrera bultzatzen duelarik.

27

Faktore hauek kontutan izanik, mugimendu nazionalak masazko indarra hartuko du (Irlanda, Galitzia) edota kalapitetan eta errotuluen inguruko "borrokan" galtzen den talka txiki sorta bat bihurtuko da (Bohemiako herri batzuetan gertatzen den bezala).

Mugimendu nazionalaren edukia ezin daiteke toki guztietan berdina izan: mugimenduak taularatzen dituen aldarrikapenek oso-osorik determinatzen dute. Irlandan mugimendu honek nekazal izaera du, Bohemian[17] hizkuntzaren ingurukoa da, toki batzuetan eskubide zibilekiko berdintasuna eta gurtza askatasuna eskatzen ditu, beste batzuetan ordea, "euren" funtzionarioak edo euren Dieta propioa. Aldarrikapen ezberdinetan, tarteka-marteka, nazio bat osatzen duten ezaugarri ezberdinak (hizkuntza, lurraldea) islatzen dira. Nabarmentzekoa da dena orobatzen duen Bauerren "izaera nazional" horren aldarrikapena ez dela inon ere azaltzen. Eta normala da: *berez*, "izaera nazionala" ulergaitza da, eta J. Strasserrek[18] modu zuzenean dionez, "politikan, honekin ez goaz inora".

Hauek dira, modu xinplean esanda, mugimendu nazionalaren izaera eta formak.

Hor azaltzen denaren arabera, kapitalismo *gorakorraren* pean, borroka nazionala klase burgesen arteko borroka bat da. Noizbehinka, burgesiak proletalgoa mugimendu nazionalerantz erakartzea lortzen du, eta orduan, *itxuraz*, mugimendu nazionalean "herri osoak" parte hartzen duela ematen du, itxuraz bakarrik hala ere. *Oinarrian*, gatazka hau gatazka burges bat da, burgesiarentzat onuragarri eta mesedegarri dena.

Baina honek ez du esan nahi, ezta hurrik eman ere, proletalgoak nazionalitateak zapaltzeko politikaren aurka egin behar ez duenik.

28

Mugimendu-askatasuna mugatzea, hauteskunde eskubideak urratzea, hizkuntzari jarritako oztopoak, eskola kopuruaren murrizteak eta abarrek langileei kalte handia egiten diete, burgesiari egindakoaren adina edo are handiagoa. Egoera honek, zanpatutako herrietako langileriaren anima-indarren garapen askea ekiditen du. Ezin dugu langile judutarraren edo tartariarraren ahalmen izpiritualen garapen askeaz serioski hitz egin Asanbladetan edota hitzaldietan euren ama-hizkuntzan mintzatzea galarazita dutenean eta eskolak ixten zaizkienean.

---

[17] ***Bohemia***: Bohemia gaur egun Moravia eta Hego Silesiarekin batera Txekiar Errepublika osatzen duten hiru eskualdetako bat (handiena) da. Txekiarren %65 bat bohemiarrak dira. Bohemia izena germanierazko "Boi-Heim" hitzetik omen dator, "boi herriaren lurraldea". Bohemiak historia handia du; eta poloniarren, alemaniarren eta azkenik Austriar Inperioaren menpe egon da. XIX mendean, Bohemian txekiar abertzaletasuna piztuz joan zen (txekiar hizkuntzan, "Cechy" hitza, bai Txekia zein Bohemia esateko erabiltzen da; horregatik Txekia osoa izendatzeko, zuzenagoa da "Txekiar Errepublika" (Ceská republiká) terminoa erabiltzea), eta 1918an Txekoslovakiako Errepublika sortua izan zen. II Mundu Gudan, alemaniarrek Bohemia okupatu zuten, eta bertan alemaniar protektoratu bat ezarri zuten. Guda hori bukatuta, Bohemia Txekoslovakiako Errepublika Sozialistaren parte izatera igaro zen. 1990ean Txekoslovakiako langileen boterea erori ondoren eta 1992an Txekoslovakia puskatu ondoren, egun, Bohemia Txekiar Errepublikaren parte da. Bohemia egun ez da errealitate administratibo bat, kulturala baizik.

[18] ***Joseph Strasser***: Austriar militante sozialista, Austriako Alderdi Sozialdemokrata sortu zuen. 1918an Austriako Alderdi Komunista sortu zuen, baina hortik aurrera berriz sozialdemokraziarantz egin zuen. 1931ean Alderdi Komunistatik irten zen.

Errepresio nazionalistaren politika, proletalgoarentzat beste zentzu batetan ere arriskutsua da. Politika honek, proletalgoaren sektore zabalen arreta afera sozialetatik, klase borrokaren aferatik, proletalgoarentzat eta burgesiarentzat "amankomunak" diren aferetara desbideratzen du. Eta honek "interesen harmoniari" buruzko arrandi gezurtientzako, langileriaren klase interesak ezkutatzeko, langileak moralki esklabu egiteko bidea errazten du. Modu honetan, nazionalitate guztietako langileen batasunaren aurrean hesi handi bat zutitzen da. Gaur arte poloniar langileen parte handi bat nazionalista burgesen esklabotza moralaren pean egon bada, nazioarteko langile mugimendutik at geratzen bada; batez ere "boterearen ahaldunek" luzaroan egindako politika anti-poloniarrak esklabotza horrendako bidea errazten duelako eta honela langileak honetatik askatzea oztopatzen duelako da.

29

Baina errepresio politika ez da hemen bukatzen. Askotan, zapalketaren "sistematik" nazio batzuk besteen aurka *xaxatzearen* "sistemara", hilketen eta pogromen[19] "sistemara" iragaten baikara. Jakina da sistema hori ezin dela uneoro eta toki guztietan gauzatu, baina gauzatzen denean –askatasun oinarrizkoenak ere albo batera uzten direnean-, gehienetan neurri izugarriak hartzen ditu, langileen batasuna odoletan eta negarretan itotzearekin mehatxatuz. Kaukason eta Errusiaren Hegoaldean halako adibide asko aurki ditzakegu. "Divide et impera", horra hor xaxatze politikaren helburua. Eta politika honek arrakasta duenean, langileriarentzat sekulako gaitza ekartzen du, Estatuaren parte diren nazionalitate guztietako langileen arteko batasunaren bereizteko zutitzen den sekulako hesia baita.

Baina langileak, euren burkide guztiak, edozein naziotakoak izanik, nazioarteko armada bakar batean batzean, burgesiak ezartzen dien esklabotza moraletik ahalik eta lasterren eta behin betirako askatzean, euren anai guztien anima-indarren garapen askean eta betean interesaturik daude.

Horregatik, langileak nazio-zapalkuntzako politika sotilen eta agerienen, guztien aurka, eta baita nazioak elkarren aurka xaxatzeko edozein politikaren aurka borrokatzen dira eta borrokatuko dira.

Horregatik, herri guztietako sozialdemokraziak, nazioen autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen du.

Autodeterminazio eskubidea, bere etorkizuna finkatzeko eskubidea nazioak soilik izatean datza; inork nazio baten bizitzan *indarrez* esku hartzeko, bere eskolak ixteko, bere usadio eta ohiturei *kalte egiteko*, bere hizkuntzaren garapena *oztopatzeko*, bere eskubideak *murrizteko* eskubiderik ez izatean datza.

30

Noski, honek ez du esan nahi sozialdemokraziak nazio jakin baten usadio eta ohitura guztiak babestu behar dituenik. Nazioen aurkako oldarkeria borrokatuz, sozialdemokraziak nazioak bere etorkizuna aukeratzeko eskubidea soilik babestuko du, aldi berean, nazio horrentzat kaltegarriak diren usadioen eta instituzioen aurkako kanpaina eginez, nazio horretako langile sektoreei heiez askatzeko aukera emateko helburuarekin.

---

[19] ***Pogrom*** (errusieraz, "istilu oldarkorra"): Pogromak Errusiar Inperioan gertatzen ziren jazarpen antisemitak ziren. Pogromak, gehienetan, agintariek piztutako giro antisemita batean gertatzen ziren, jendetza jazartzaileak poliziaren laguntza duelarik. Pogromek itxura espontaneoa bazuten ere, tokiko agintarien edota polizien laguntza izaten zuten, hauek jendea alkoholizatu eta juduen kontra xaxatzen zutelarik. Pogromek sekulako triskantzak eragiten zituzten, indibidualki, zein materialki. Errusiar Inperioan, pogromak, tsarren politikaren parte ziren, batez ere mugimendu iraultzaileari erantzuteko (Gobernu tsaristaren arabera, judutarrek iraultzaileak zuzentzen zituzten). Gobernu Boltxebikeak boterera lortzerakoan progromak geldiarazteko saiakera gogorra egin zuen, baina Guda Zibilaren garaian, Armada Zuriak eta beste talde antikomunistek kontrolatutako lurraldeetan areagotu egin ziren, hein handi batean arrazoi politikoengatik (hau da, zurien antisemitismo tradizionalari, Gobernu sobietarra judutar gobernua omen zelaren eta judutarrak gorrien aldekoak omen zirenaren autokonbentzimendua gehitu zitzaion). "Pogrom" kontzeptua errusiar jatorrikoa bada ere eta hasieran jazarpen antisemitei erreferentzia egiteko bazen ere, gaur egun, edozein tokitan edozein gutxiengoren kontrako jarrera oldarkor masiboak deskribatzeko erabiltzen da

Autodeterminazio eskubideak nazio batek bere burua berak nahi bezala antolatzeko eskubidea duela esan nahi du. Autonomiaren printzipioen arabera antolatzeko eskubidea du. Beste nazio batzuekin federazio harremanak izateko eskubidea du. Guztiz banatzeko eskubidea du. Nazioa subiranoa da eta nazio denek eskubide berdinak dituzte.

Noski, horrek ez du esan nahi sozialdemokraziak nazio baten aldarrikapen guzti-guztiak, hauek zeintzuk diren kontu hartu gabe defendatu behar dituenik. Nazioak ordena zaharrera itzultzeko eskubidea ere badu, baina honek ez du esan nahi sozialdemokraziak nazio jakin baten instituzio honek edo hark horretarako hartutako akordio jakin hau babestu behar duenik. Sozialdemokraziaren betebeharra, hots, langileen interesen defentsan aritzea eta nazioaren eskubideak bi gauza ezberdin dira.

Sozialdemokraziaren helburua, nazioen autodeterminazio eskubidearen alde borrokatuz, nazioen zapalkuntza politikari amaiera ematea, politika hau ezinezko egitea eta honekin nazioen arteko gatazkaren oinarriak erasotzea, gatazka hau leuntzea, ahalik eta gehien mugatzea da.

Honetan ezberdintzen da proletalgo kontzientziadunaren politika burgesiaren politikarengandik; azken hau gatazka nazionala okertzen eta larriagotzen, mugimendu nazionala gaiztotzen saiatzen baita.

Horretxegatik, proletalgo kontzientziaduna ezin da burgesiaren bandera “nazionalaren” azpian jarri.

Horretxegatik hain zuzen, Bauerrek proposaturiko politika, “ebolutibo-nazionala” deitutakoa, ezin liteke proletalgoaren politika izan. Bauerren saiakera, bere politika “ebolutibo- nazionala” “langile klase modernoaren” politikarekin identifikatzean oinarritzen dena, langileen klase borroka nazioen arteko borrokara moldatzeko saiakera bat da.

Funtsean mugimendu burgesa den mugimendu nazionalaren etorkizuna burgesiaren etorkizunarekin lotua dago. Mugimendu nazionalaren behin-betiko bukatzea burgesiaren erorketarekin lotua dago. Sozialismoa nagusitzen denean soilik etorriko da erabateko bakea. Alta, kapitalismoaren markoaren pean egin daitekeena, gatazka nazionala ahalik eta gehien murriztea, oinarrian erasotzea eta langileriarentzat ahalik eta arrisku gutxien izaten saiatzea da. Hori frogatzen dute Suitzako eta Estatu Batuetako adibideek. Horretarako herrialdea demokratizatzea eta nazioei modu askean garatzeko aukera ematea beharrezkoa da.

33

III. Auziaren planteamendua

Nazio batek bere etorkizuna nahierara determinatzeko eskubidea du. Bere burua nahi bezala antolatzeko eskubidea du, betiere, beste nazioen eskubideak urratzen ez baditu. Hemen ez dago eztabaidarik.

Baina, modu zehatzean, nola antolatu beharko luke nazio batek bere burua, zein forma izan beharko luke bere konstituzioak bere hiritar gehienen eta batez ere proletalgoaren interesak kontutan hartuz gero?

Nazioak modu autonomoan antolatzeko eskubidea dauka. Independizatzeko eskubidea ere badauka. Baina honek ez du esan nahi asmo hauek edozein baldintzetan burutu beharko direnik, nazioarentzat, hau da, nazioaren gehiengoarentzat, hau da, langile sektoreentzat autonomia edota independentzia edozein tokitan eta edozein momentutan onuragarriak direnik. Transkaukasiako tartariarrek adibidez, badute euren Dietan batzeko eta euren bej eta mullah horien eraginari jaramon eginez, euren herrian ordena zaharrera itzultzeko eta Estatutik banatzea erabakitzeko eskubidea. Autodeterminazio eskubidea aintzat hartuz, horretarako eskubide osoa dute. Halaber, hori tartariar langileentzat onuragarri izango litzateke? Sozialdemokratek bej eta mullah hauek nazio-auziaren aitzakiaz masak nola bereganatzen dituzten axolagabekeriaz beha al dezakete? Sozialdemokraziak ez al zukeen horretan eskurik sartu eta nazio horren borondatean nolabait eragin behar? Ez al luke auzia konpontzeko planen bat, tartariar masentzat onuragarrien litzatekeen plana aurkeztu beharko?

34

Baina zein izango da langile masen interesekin bateragarriena litzatekeen irtenbidea? Autonomia, federazioa ala independentzia?

Afera guzti hauen konponbidea, nazioan eragiten duten baldintza historiko konkretuen araberakoa da.

Eta are gehiago; baldintzak, dena bezala, aldatu egiten dira, eta horretxegatik, momentu batean irtenbide egokia dena, beste batean guztiz onartezina izan daiteke.

XIX mendearen hasieran, Marx Errusiar Poloniaren[20] independentziaren alde zegoen eta arrazoi osoa zuen: orduan, goi-mailako kultura bat berau suntsitzen zuen behe-mailako

[20] ***Errusiar Polonia***: Lurralde hau Errusiak, Austriak eta Prusiak XVIII mende bukaeran Polonia konkistatu eta euren artean banatu ondoren Errusiaren menpe geratu zen zatia izan zen. Bere izen ofiziala "Poloniako Erresuma" (polonieraz, Królestwo Polskie) zen, errusiar tsarrek Poloniako tsar titulua ere bereganatu zutelarik. Lurralde honetarako izenik hedatuena "Kongresuaren Polonia" (polonieraz, Kongresówka Polska) izan zen, hasierako urteetan, Errusiak, Poloniako instituzioak, eta batez ere "Dieta" ala "Kongresua" (polonieraz, Sejm), nominalki bazen ere mantendu egin zituelako. (Izan ere, Errusiak Polonia hartu zuenean, batasun hori anexioa barik, koroen batasun pertsonal bezala aurkeztua izan zen). Alta, errusiarrek poloniar legeak gero eta gehiago mespretxatzen zutela ikusita, 1831ean poloniarrak errusiar agintearen kontra matxinatu egin ziren, baina matxinada honek ez zuen arrakastarik izan. Hori dela eta, errusiar tsarrak Poloniaren instituzioak bertan behera utzi zituen eta errusiartze politika azkartu egin zuen. Poloniarrek, 1863an, tsarren aurkako beste matxinada bat burutuko zuten, baina matxinada horrek ere porrot egingo zuen eta ondorio larriagoak ekarriko zituen; adibidez, poloniar hizkuntza administrazioan eta hezkuntzan desagerrarazia izango zen, eta gainera lurraldeari "Vistulako Herrialdea" izena jarriko zioten "Polonia" hitza desagertarazteko asmoz (Vistula Poloniatik pasatzen den erreka bat da). I Mundu Guda garaian, 1916 urtean, alemaniarrek Errusiar Polonia konkistatuko zuten eta bertan Alemaniaren menpeko Poloniar Erresuma "independente" bat ezarriko zuten. 1918an, Errusiar Iraultzarekin eta I Mundu Gudan Alemaniaren porrotarekin batera, Poloniak independentzia lortu eta Poloniako Lehen Errepublika aldarrikatu zuen.

kultura batengandik askatzean baitzegoen koxka. Eta orduan, auzia ez zen teorian, esparru akademikoan soilik planteatzen; praktikan, errealitatean, ere planteatzen zen.

XIX. mendearen bukaeran ordea, poloniar marxistak Poloniaren independentziaren aurka zeuden eta eurek ere arrazoi zuten: izan ere, berrogeita hamar urte horietan Polonia eta Errusiaren arteko harremanetan aldaketa sakonak eman ziren, kultur eta ekonomia arloan bien hurbilketa ahalbideratuz. Gainera, urte hauetan, auzi honek bere gaurkotasuna galdu du, arazo praktiko bat izatetik erbestean bizi diren zenbait intelektualen grina soilik erakartzen duen eztabaida akademiko bat bihurtu delarik.

Honek, jakina, ez du esan nahi etorkizunean, barne eta kanpo egoeran Poloniaren independentziaren aferarengana lehen mailako arreta erakar dezaketen zenbait aldaketa eman ezin daitezkeenik.

Honek ondorio argi bat du, nazio-auziaren konponbidea baldintza historikoak kontutan hartuz soilik eman daitekeela alegia.

Nazio jakin batengan eragina duten baldintza ekonomiko, politiko eta kulturalak dira nazio hori nola antolatu beharko litzatekeen jakiteko, bere etorkizuneko eraketak zein forma izango dituen jakiteko giltzarri bakarra. Nazio bakoitzak auziaren konponbide propioa izatea gerta daiteke. Auziari modu dialektikoan heldu behar zaion esparrurik baldin badago, hauxe hementxe, auzi nazionalean aurkitzen da.

35

Hauxe dela eta, nazio-auzia "konpontzeko" jatorria Bunden duen maiz erabilitako baina ezin xinpleagoa den metodo baten aurka azaldu behar gara. Metodo honek, auzi nazionala konpondu omen duten austriar eta hego-eslaviar[21] sozialdemokraziak egindakora jo eta errusiar sozialdemokratek berau kopiatzea besterik ez du proposatzen. Austrian zuzena denak, Errusian ere zuzena behar omen duela uste izanetik abiatzen da. Garrantzizkoena eta pisuzkoa, orokorrean Errusiako baldintza historiko konkretuak, eta bereziki Errusiaren muga barneko nazio bakoitzarenak alde batera uzten dira.

Aditu ezazue esaterako, V. Kossovski[22] bundista ezaguna:

> "Bunden IV Biltzar Nagusian, auzia printzipioen aldetik eztabaidatu zen (auzi nazionalaz ari da, J. St), eta aurkitu genuen konponbidea –Biltzar Nagusiko kide batek proposatutakoa-, Hego-eslaviar Alderdi Sozialdemokrataren ebazpenaren jitean zegoena, erabateko onespenaz aintzatetsia izan zen".

Beraz, Biltzar Nagusiak "erabateko onespenaz" autonomia nazionala "aintzatetsi" zuen.

Hori izan zen dena! Ez Errusiako egoeraren analisirik, ez Errusiako judutarren bizitza baldintzen azterketarik! Lehenik Hego-eslaviar Alderdi Sozialdemokrataren konponbidea hartu, gero "onartu" eta azkenik "erabateko onespenaz aintzatetsi"! Honela planteatzen eta "konpontzen" dute bundistek Errusiako nazio-auzia.

---

[21] ***Hego-eslaviarrak***: Eslaviar hizkuntzetan, "hegoaldeko eslaviar" esateko hitza "jugoslav" da. Hitz horretatik "Jugoslavia" hitza dator, hau da "Hegoaldeko Eslaviarren Lurraldea" (Jugoslavia, Estatu izan aurretik, Hegoaldeko eslaviar guztientzako Estatu bat bilatzen zuen proiektu nazionala zen). Halere, testuinguru honetan nahiago dugu "jugoslaviar" baino "hego- eslaviar" adiera erabili, hizkuntza ez eslaviarretan "jugoslaviar" adiera zuzen zuzenean Jugoslavia herrialdearekin lotuta baitago, eta 1913an oraindik ez zen Estatu hori sortu, proiektu bat baino ez zen. Gainera, hemen, Austriar Inperioaren testuinguruan, Austriaren menpeko hego-eslaviarrak aipatzen dira, eta gero Jugoslavia osatuko zuten lurralde gehienak 1913an Austriar Inperiotik kanpo zeuden.

[22] ***Vladimir Kossovski***: Bunden buruetako bat izan zen, eta Errusiar Langileen Alderdi Sozialdemokrataren II Biltzarrean Bunden ordezkaritza osatzen zutenetariko bat ere izan zen. Biltzar Nagusi horren ostean mentxebikeen artean kokatu zen. Geroago Tsukunft (jiddishez, "Etorkizuna") Bunden gazte erakundeko sortzailea izango zen.

Halere, Austrian eta Errusian baldintza guztiz ezberdinak ageri dira. Adibidez, Austriako sozialdemokratek Brünn hirian (1899)[23] Alderdi Sozialdemokrata Hego-eslaviarraren ebazpenean inspiratuz (emendakin ezdeus batzuk egon zirela egia da), euren programa nazionala aintzatetsi zutenean, nolabait esateko, auziari modu ez errusiar baten ekin zioten eta jakina denez, modu ez errusiar batean eman zioten amaia.

36

Aldez aurretik, auziaren planteamendua ikus dezagun. Nola planteatzen dute auzia Bauerrek eta Springerrek, autonomia nazional-kulturalaren teoriko austriar hauek, Brünneko programa nazionalaren eta Hego-eslaviar Alderdi Sozialdemokrataren ebazpenaren itzultzaile hauek?

> "Hementxe –dio Springerrek-, Estatu nazioanitz baten balizkotasunaren afera eta bereziki austriar nazionalitateek osotasun bat osatzeko beharra izatearen afera erantzunik gabe utziko ditugu: arazo hauek konpondutzat emango ditugu. Hipotesi eta beharrizan honekin akort ez dagoenarentzat guk hemen azaldutakoak ez du interesik izango. Gure gaia hauxe da: nazio hauek batera bizitzera *beharturik* daudenez gero, zein *forma juridikok* bermatuko die hobeto bizitzea?"

Beraz, abiapuntutzat Austriaren osotasuna dugu.

Eta berdina dio Bauerrek:

> "Abia gaitezen austriar nazioak gaur egun dauden marko juridikoaren barnean egongo direnetik eta galde dezagun osotasun honen barnean zeintzuk izango diren nazioek euren artean eta Estatuarekin izango dituzten harremanak".

Berriz ere, Austriaren osotasunari lehen mailako garrantzia ematen zaio.

Errusiar sozialdemokraziak afera *horrela* planteatu al dezake? Ez, ezin du. Ezin du, bere ikuspegia zalantzarik gabe nazioen autodeterminazio eskubidearen ikuspuntutik abiatzen delako, eta honen arabera, nazioek, erabat banatzeko eskubidea dutelako.

Errusiar sozialdemokraziaren II Biltzar Nagusian[24], Goldblat[25] bundistak berak ere aitortu zuen autodeterminazioaren ikuspegiari ezin zitzaiola muzinik egin. Hona hemen orduan Goldblatek esandakoa:

37

---

[23] ***Brünneko Biltzar Nagusia***: Austriako Alderdi Sozialdemokratak 1899ko irailaren 24tik 29ra burutu zuen. Biltzar horretan onetsitako auzi nazionalari buruzko programa lan honen hurrengo kapituluan ageri da. "Brünn", Biltzarra ospatu izan zen hiriaren orduko izen ofizial germanikoa zen; jatorrizko izen txekiarra Brno da, eta hori da gaur egungo izen ofiziala (egun, Brno Txekiar Errepublikan dago).

[24] ***Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrataren II Biltzarra***: 1903ko abuztuan burutu zen, lehenik Bruselan eta gero Londresen. Biltzar horretan, Bundek Alderdia uztea erabaki zuen, IV Biltzarren itzuli egingo bazen ere. Alta, gerora garrantzitsuagoa izango zen beste ondorio bat izan zuen, hain zuzen ere Alderdiaren printzipioen gainean bi taldeen arteko zatiketa eman zen: boltxebikeena (errusieraz, bolxinstvo "gehiengoa" da) eta mentxebikeena (errusieraz, menxinstvo "gutxiengoa" da). Lehenak, Alderdian militante konprometituak soilik onartzearen (koadroen Alderdia) eta diziplina sendo batetan oinarritutako borrokarako antolaketaren (zentralismo demokratikoa) aldekoak ziren; eta bigarrenak, Alderdian edozein onartzearen aldekoak (masazko Alderdia) eta antolaketa bigun baten aldekoak. Hala ere, laster agertuko ziren bestelako ezberdintasunak: lehenengoen asmotan, zentralismo demokratikoa deituriko antolaketa sendoaren bitartez, taktika eta estrategia zehatz bat izango zuen langile klasearen alderdi iraultzailea sortzea baitzegoen; eta bigarrenen asmotan, ideologia eta estrategia iraultzaile zehatzik gabe erreformismoa onar zezakeen Alderdi zabal bat osatzea. Alderdi motaren inguruko ezberdintasunek hasieran garrantzi handia ez zutela ematen bazuen ere, 1905eko iraultzaren ostean ezberdintasun hauen atzean zegoen testuinguru ideologikoa argi ikusi zen, boltxebikeak langile eta nekazariek gidatutako iraultzaren aldekoak baitziren, eta mentxebikeek iraultza hori burgesiak eta helburu liberalek zuzendu behar zutela uste baitzuten. II Biltzarrak gerora sekulako garrantzia izan zuen, Alderdi Boltxebike indartsu eta diziplinatu baten jaiotza izan zelako.

[25] ***Goldblat***: Vladimir Medem bundistaren ezizena, ikus oharra V. kapituluan.

> "Autodeterminazio eskubidearen aurka ezin da ezer esan. Nazio batek bere independentziaren alde borrokatzen badu, inor ez litzateke horren aurka jarri behar. Poloniak ez badu Errusiarekin "ezkondu" nahi, gu ez gara kontrakoa esateko inor".

Guzti hau halaxe da. Baina hemendik, austriar eta errusiar sozialdemokraten ikuspuntuak, berdinak ez ezik, guztiz aurkakoak direla ondorioztatzen da. Honen ostean austriarrengandik euren programa nazionala maileguan hartzeaz hitzik egin ahal da?

Jarrai dezagun. Austriarrek "nazionalitateen askatasuna" erreforma txiki mantsoen bidez gauzatu nahi dute. Autonomia kultural-nazionala neurri praktikotzat proposatuz, ez dute inongo eraldaketa erradikalik aintzat hartzen, ez dituzte askapen mugimendu demokratikoak aintzat hartzen. Errusiar marxistek ordea, "nazionalitateen askatasuna" gerta daitezkeen eraldaketa erradikalekin, askapen mugimendu demokratikoekin lotzen dute; erreformak aintzat zertan hartu gabe. Eta horrek, Errusia barneko nazioen balizko etorkizunari dagokionean, auzia guztiz aldatzen du.

> "Jakina, –dio Bauerrek– autonomia nazionala erabaki handi batez, ekintza ausart eta kementsu batez erdietsiko dela sinestea oso zaila egiten zait. Austriak, autonomia nazionalerantz pixkanaka-pixkanaka, prozesu geldo eta mingarri baten ondorioz, borroka luze baten ondorioz egingo du; borroka honen emaitzaren ondorioz administrazioa eta legegintza paralisi kroniko batean sumindurik geratuko direlarik. Halaxe da, Austrian autonomia ez da ekintza legegile handi baten ondorioz emango; txitean-pitean, han-hemen, komunitate jakin batzuetarako eta lurralde jakin batzuetarako onetsiko diren lege bakun mordoaren bitartez baizik".

38

Eta berdina dio Springerrek:

> "Ondotxo dakit –dio Springerrek– halako erakundeak (autonomia nazionalarenak, J. St) ez direla urte batean ezta hamar urtetan sortzen. Prusiar administrazioaren berrantolaketak, Prusiari bere behin-betiko erakunde administratibo nagusiak egonkortzeko bi hamarkadetarako lana eman zion. Beraz ez dezala inork esan nik Austriaren berrantolaketak zenbateko denbora eta nolako zailtasunak ekarriko dituen ez dakidanik".

Hori oso zehatza da, baina... errusiar marxistek nazio-auzia "ekintza ausart eta kementsuekin" duten lotura ukatu al dezakete? "Nazionalitateen askatasuna" erdiesteko bide bezala erreforma partzialak eta "lege bakun mordoa" aintzat har ditzakete? Eta hau ezin badute egin eta ezinezko bazaie... ez al da hemendik austriarren eta errusiarren ikuspegia eta borroka moduak guztiz ezberdinak direla argi eta garbi ondorioztatzen? Nola dezakegu halako egoeran austriarren autonomia nazional- kultural murritz eta alde-batekora mugatu? Bietako bat: edo konponbidea maileguz hartzearen aldekoek ez dituzte Errusian "ekintza ausart eta kementsuak" aintzat hartzen, edo aintzat hartzen dituzte baina "ez dakite zertan ari diren".

Azkenik, Errusian eta Austrian eginkizun guztiz ezberdinak aurkitzen ditugu, eta horregatik, nazio-auziari konponbidea emateko modua ere guztiz ezberdina izango da. Austria parlamentarismoaren azpian dago, legebiltzarrik gabe ezinezko zatekeen herrialde hura orain arte garatu izan den bezala garatzea. Baina Austrian alderdi nazionalen talka gogor ezberdinek bizitza parlamentarioa eta legegilea sarritan geldiarazi egiten dituzte. Hau da Austriak aspalditik dakarren krisi politikoaren arrazoia. Eta hargatik, nazio-auzia han hil ala biziko kontua da. Eta honetxegatik austriar politikari sozialdemokratak talka nazionalen auzi hau era batean ala bestean konpontzen saiatzea, parlamentarismoaren oinarrian eta bide parlamentarioen bidez konpontzea noski, ez da batere arraroa.

39

Errusian ez da halakorik gertatzen. Hasteko, Errusian "Jainkoarren, ez dugu legebiltzarrik"[26]. Eta jarraitzeko –eta hauxe da benetan oinarrizkoena-, Errusian, momentu honetan, politikaren ardatza ez da auzi nazionala, nekazal auzia baizik. Horregatik, errusiar auziaren etorkizuna eta baita ere nazionalitateen "askapenarena", nekazal auziaren konponketarekin, hau da, hondar feudalen suntsitzearekin, hau da, herrialdearen demokratizatzearekin loturik daude. Hori dela eta, Errusian, nazio-auzia ez da modu independente eta erabakigarrian agertzen, herrialdea hondar feudaletatik askatzean datzan afera oinarrizkoaren eta garrantzitsuagoaren osagarri bezala baizik.

> "Austriar legebiltzarra antzua izatea –esaten du Springerrek-, erreforma bakoitzak alderdi nazional ezberdinen baitan euren bateratasuna puskatzen duten kontraesanak sortzean datza; hori dela eta, alderdi ezberdinetako buruek erreformaren kutsua duen edozerengatik ihes egiten dute. Austrian, aurrerapena, nazioei parlamentuan borroka-destakamentuak izatearen beharraz libratuko dituen eta euren arazo ekonomiko eta sozialez arduratzea ahalbideratuko dien egoera legal iraunkorrak ematetik iragaten da."

Eta Bauerrek berdina dio:

"Estatuarentzat bake nazionala beharrezkoa da. Estatuak ezin du jasan hizkuntzari buruzko gai txotxolo batengatik, hizkuntza anitzeko edozein zonaldetako jende-talde asaldatu baten kexarik txikienarengatik edota eskola berri bakoitzarengatik bere legegintza geldiaraztea."

Guzti hau ulergarria da. Baina ez da ulergaitzagoa Errusian auzi hau maila guztiz ezberdin batean kokatzea. Errusian aurrerapenaren etorkizuna baldintzatzen duen auzia, ez da auzi nazionala, nekazal auzia baizik; Errusian auzi nazionala bigarren mailako auzi bat da.

40

Beraz, planteamendu ezberdin bat, ikuspegi ezberdinak, borroka modu ezberdinak eta eginkizun ezberdinak ditugu hemen. Ez al da bistakoa, paper artean murgiltzearen zale direnek, tokiarekin eta garaiarekin harremanik izan gabe nazio- auzia "konpontzen" duten gizakiek bakarrik segi dezaketela Austriaren adibidea eta kopia dezaketela honen programa nazionala?

Berriz diot: baldintza historiko konkretuak abiapuntu bezala eta auziaren planteamendu dialektikoa planteamendu zuzen bakar gisa; horixe da auzi nazionala konpontzeko giltzarria.

[26] Esaldi hau, Kokovtsev Errusiako Ogasunerako ministro tsaristak 1908ko apirilaren 24an esan zuen. Argi dago esaldi hau ideologia tsarista-feudalista atzerakoiaren adierazle dela. Izan ere tsarrak 1905ean Duma deitzearen emakida eman zuen bere erregimen autokratikoaren izaera atzerakoia "parlamentu" moduko batez mozorrotzeko. Erregimenaren propaganda gora- behera, Duma ez zen gutxiengo minimo demokratikoak betetzen zituen parlamentu bat, bozka sistemak aberatsei eta nobleei on egiten baitzien. Kokovtsev ministroak berotan esandako esaldi honek erregimenaren gezurra agerian utzi zuen.

41

IV. Autonomia kultural-nazionala

Lehenago, austriar programa nazionalaz forma aldetik hitz egin dugu, bere metodologi oinarriez mintzo izan gara; hauek aintzat hartuz gero, errusiar marxistek ezin dute austriar sozialdemokrazia adibidetzat hartu eta honen programa kopiatu.

Goazen orain programa nazionalaren mamiaz hitz egitera. Zein da austriar marxisten programa nazionala?

Programa hau bi hitzetan labur daiteke: autonomia kultural-nazionala.

Horrek, lehenik eta behin, autonomia ez zaiela adibidez nagusiki txekiarrek edo poloniarrek populatutako Bohemia edo Polonia bezalako lurraldeei emango esan nahi du; orokorrean txekiarrei eta poloniarrei baizik, eurei guztiei, lurraldeaz gaindi eta Austriako edozein eskualdetan bizi arren.

Horregatik, autonomia hau nazionala da, eta ez lurralde- autonomia.

Bigarrenez, Austriako lurretan barreiatutako txekiarrak, poloniarrak, alemaniarrak eta abar, norbanako bezala pertsona ezberdinak izanik, nazio osoetan antolatzen dira eta austriar Estatuaren parte osagarri izatera iragaten dira. Horrela Austria ez litzateke eskualde autonomoen batasun bat izango, lurraldeaz gaindi eraikitako nazionalitate autonomoen batasun bat baizik.

Hirugarrenez, poloniarrentzat, txekiarrentzat, eta abarrentzat sortutako erakunde nazional orokorrek ez dutela arazo “politikoetan” eragingo, “kultur” arazoetan baizik. Erabat politikoak diren arazoak Austria osoko legebiltzarrean (Reichsrat) eztabaidatuko dira.

42

Horregatik, autonomia hau *kulturala* ere bada, kultural- nazionala.

Hona hemen austriar sozialdemokraziak 1899ko Brünn-eko Biltzar Nagusian onartutako programa.

“Austrian ezadostasun nazionalek aurrerapen politikoa eragozten dutela” eta “arazo nazionalari emango zaion konponbidea batez ere kultur arlokoa dela” eta “konponbide hau sufragio unibertsal, zuzen eta parekide baten oinarrian eraikitako gizarte benetan demokratiko batean soilik dela posible” esan ondoren, programak honela jarraitzen egiten du:

> “Austriako herri guztien berezitasun nazionalen gordetzea eta garapena eskubideen erabateko berdintasunean eta errepresioaren erabateko gabezian oinarrituta soilik gauza daiteke. Beraz, lehenik eta behin, Estatuaren zentralismo burokratikoa eta lurraldeen pribilejio feudalak arbuiatu beharko dira.
>
> Baldintza hauetan, eta baldintza hauetan bakarrik ezar daiteke Austrian lurralde desadostasunen ordez ordena nazionala; hain zuzen ere, printzipio hauen oinarrian:
>
> 1. Austria nazionalitate ezberdinen batasun demokratikoa ordezkatzen duen Estatu bat bihurtu behar da.
>
> 2. Egun dauden Koroaren lurralde historikoen ordez, ondo mugarritutako korporazio autonomoak sortu behar dira; hauetako bakoitzean, legegintza eta administrazioa sufragio unibertsal, zuzen eta parekidez aukeratutako kamera nazionalen esku egongo direlarik.

3. Nazio bereko eskualde autonomo guztiek, orobatean, euren arazo nazionalak modu guztiz autonomoan konponduko dituen batasun nazional bakar bat osatzen dute.

4. Gutxiengo nazionalen eskubideak Legebiltzar inperialean onetsiko den lege berezi baten bitartez babesturik egongo dira."

Programa hau Austriako nazio guztien arteko -elkartasunaren aldeko dei batekin bukatzen da.

43

Erraz ikusiko dugu programa honen mamia, "lurraldetasunaren" zenbait aztarna aurki baditzazkegu ere, autonomia nazionala dela. Ez da kasualitatea Springerrek, autonomia kultural-nazionalaren aldeko agitatzaile garrantzitsuenak, gogo biziz onets izana. Bauerrek ere, autonomia nazionalaren "garaipen teorikotzat" hartuz onetsi egiten du; soilik, zehaztasun handiago bat lortzeko, laugarren puntua eskolen arazoak eta beste arazo kultural batzuk kudeatzeko "eskualde autonomo baten barruan, gutxiengo nazionala zuzenbide publikoko korporazio moduko bat osatzearen" beharraz hitz egingo lukeen formulazio zehatzago batez ordeztea proposatzen du.

Hauxe da austriar sozialdemokraten programa nazionala. Azter ditzagun bere oinarri zientifikoak.

Ikus dezagun nola argudiatzen duen austriar sozialdemokraziak berak defendatzen duen autonomia kultural- nazional hori. Zuzen gaitezen honen teoriko nagusietara, Springerrengana eta Bauerrengana.

Autonomia nazionalaren abiapuntua, nazioaren kontzeptua lurralde determinatu oroz gaindiko pertsonen batasun bat bezala definitzean datza.

"Nazionalitateak –dio Springerrek– lurraldearekin ez du inongo oinarrizko loturarik; nazioa pertsonen batasun autonomo bat da".

Bauerrek ere, nazioa "pertsonen komunitate" bezala definitzen du; zeini "ez zaion inolako lurralde finko baten gaineko erabateko menderatzerik xedatzen".

Baina nazio bat osatzen duten pertsonek beti ez dute masa trinko bat osatzen; askotan taldeetan banatzen dira eta modu honetan beste organismo nazional batzuen barnean sartzen dira. Kapitalismoa da beste nazio batzuetara ogi bila joanarazten diena. Baina beste nazioen lurraldeetan barneratzen direnean, bertan gutxiengoak eratuz, talde hauek bertako gehiengo nazionalek euren hizkuntzari, euren eskolei eta abar jartzen dizkien oztopoak jasan behar dituzte. Hontatik gatazka nazionalak eratortzen dira. Hortxe datza lurralde autonomiaren "eraginkortasunik eza". Springer eta Bauerren ustez, egoera honi eman ahal zaion irtenbide bakarra, Estatuaren eskualde ezberdinetan barreiaturik dauden nazionalitate jakin bakoitzeko gutxiengo guztiak batzea eta klase guztiak batuko dituen batasun nazional orokor batean antolatzea da. Euren ustez, halako batasun batek soilik defenda ditzake gutxiengo nazionalen kultur interesak, soilik hala eman ahal zaie amaiera liskar nazionalei.

44

"Honetatik, –dio Springerrek– nazionalitateak, euren eskubide eta betebeharrekin osatzeko beharra ondorioztatzen da". Eta gainera "lege bat aise atera daiteke, baina berarengandik espero den eraginkortasuna izango al du?" "Nazioentzako lege bat atera nahi baduzue, lehenik eta behin nazio hauek sortu beharko dituzue". "Nazionalitateak eratu gabe zuzenbide nazional bat eratzea ezinezkoa da, baita ere nazioen arteko liskarrak amaiaraztea".

Bauer zentzu berean mintzatzen da "gutxiengoak printzipio pertsonalean oinarritutako zuzenbide publikoko korporazioetan eratzea langile klasearen aldarrikapen bat" dela dioenean.

Baina nola eratu behar dira nazioak? Nola finkatu daiteke edozein norbanako nazio batetakoa ala beste batetakoa den?

> "Nazionalitatea –dio Springerrek-, ziurtagiri pertsonalen bitartez finkatzen da; eskualde jakin batean bizi den hiritar oro zein naziotakoa den esatera beharturik aurkituko da".
>
> "Printzipio pertsonalak –dio Bauerrek-, populazioa, hiritar helduen adierazpen askean oinarriturik, nazionalitateetan banatuko dela aurresuposatzen du"; eta horretarako, "errolda nazionalak antolatu behar dira".

45

Eta aurrerago:

> "Nazionalki homogeneoak diren eskualdeetan bizi diren alemaniar guztiek –dio Bauerrek– eta eskualde mistoetako errolda nazionaletan izena eman duten alemaniar guztiek nazio alemaniarra osatuko dute eta *kontseilu nazional* bat aukeratuko dute".

Eta beste horrenbeste gertatuko da txekiarrekin, poloniarrekin eta abarrekin.

> "*Kontseilu nazionala* –Springerren arabera– legebiltzar kultural-nazionala da; irakaskuntza nazionala, literatura nazionala, artea eta zientzia, akademien, museoen, arte-galerien eta antzerkiaren antolakuntza eta abar zainduko duena".

Hau litzateke nazio baten antolakuntza eta bere erakunde nagusia.

Klase guztientzakoak izango diren halako instituzioak sortuz, Austriar Alderdi Sozialdemokratak[27], Bauerren aburuz, "nazio-kultura herri osoaren ondare bilakatzea eta modu honetan –modu hau baita bide bakarra– nazioaren kide diren guztiak komunitate kultural-nazional batean batzea du helburu".

Honek soilik Austriarekin lotura duela ematen du. Baina Bauer ez dago horrekin konforme. Bere ustez, autonomia nazionala Austriaren antzera nazionalitate askok osatutako beste Estatuentzat ere beharrezkoa da.

"Klase menderatzaileen politika nazionalari, Estatu multinazional batean Boterea erdiesteko politikari; nazio guztietako proletalgoak –Bauerren arabera– autonomia nazionala kontrajartzen dio".

Eta ikus ezazue nola jarraitzen duen, modu sumagaitzean autodeterminazioa autonomia nazionalaz ordeztuz:

---

[27] ***Austriako Alderdi Sozialdemokrata (SPÖ)***: Alderdi hau 1874an sortu zen, Austriako Neudörfl hirian. Bere lehen buruzagia Viktor Adler izan zen. 1889an alderdiaren lehen egunkaria (Arbeiterzeitung, "Langileen Egunkaria") kalera atera zen eta urte horretan bertan II Internazionaleko kide izatera pasa zen. XX mende hasieran, sufragio unibertsala onartzerakoan bat Reichsraten parte hartzen hasi ziren, baita indar handia lortu ere: 1911an alderdi nagusia bihurtu ziren. Ordurako, alderdiaren buruzagi berriak, Otto Bauer eta Karl Renner bezalakoak nabarmentzen hasi ziren. 1914an, guda inperialista piztu zenean, Alderdi Sozialdemokratak posizio anbiguoa izan zuen, baina gudak aurrera egin ahala, bere posizioa zenbat eta kontrakoagoa egin zen, Friedrich Adler militanteak Austriako Barne Ministroa atentatu batean hiltzeraino. Austriak I Mundu Guda galdu zuenean monarkia uzkailia izan zen, eta haren ordez Austriako Errepublika aldarrikatu zen. Errepublika berrian, Alderdi Sozialdemokrata alderdi nagusia izan zen eta haren postura Austriak eta Alemaniak bat egitearen aldekoa izan zen, sozialismoa Alemania Handi baten Austria bezalako herrialde txiki baten baino eraikitzen errazagoa izango zelakoan. Urriko Iraultzaren eta leninismoaren aurrean postura anbiguoa izango zuen, eta II Internazionalaren (sozialdemokrazia) eta III Internazionalaren (leninismoa) artean tarteko posizio bat izateko asmoz "II eta Erdi Internazionala" sortu zuen, baina saiakera horrek porrot egin eta 1923an berriz II Internazionalaren sozialdemokrazia babestuko zuen. 1924an talde paramilitar bat sortuko zuen: "Errepublikaren Defentsarako Miliziak". 20ko hamarkadan eskuinarekin tentsioak gorantz egin zuen, eta azkenean, eskuinak, Engelbert Döllfuss buru zuela, Estatu-kolpe bat eman zuen. Honek diktadura faxista bat ezarri zuen eta oposizioko alderdi guztiak legez kanpo jarri zituen; beraz, hurrengo urtean, Alderdi Sozialdemokrata eta bere unitate paramilitarrak gobernuaren aurka altxatu ziren. Altxamendu horri hilabete batetako Guda Zibilak jarraitu zion, eta sozialistak garaituak izan ziren, errepresio gogorra pairatuz. 1938an Alemaniak Austria anexionatzerakoan, sozialisten egoera okertu egin zen. 1945ean II Mundu Gudaren ostean, alderdia berriz legala izan zen; halere, orain neoliberalismoaren hurbileko alderdi bat da, bere aspaldiko ideologia marxista alde batera utzi duelarik.

> "Eta honelaxe, autonomia nazionala, nazioen autodeterminazioa, halabeharrez, Estatu nazioanitz baten baitan bizi diren nazio guztietako proletalgoaren programa konstituzionala bilakatzen da".

46

Bauer oraindik ere urrutiago doa. Berak eta Springerrek "eratutako" klase guztiez osatutako "komunitate nazional" horiek etorkizuneko gizarte sozialistarentzako eredu bezala baliagarri izango direlakoan dago. Izan ere badaki "erregimen sozial sozialistak gizateria nazionalki mugarritutako komunitateetan zatikatuko duela" eta sozialismoan "gizateria komunitate nazional autonomoetan antolatzea" gauzatuko dela, "modu honetan, gizarte sozialistak, pertsonek eta lurralde korporazioek osatutako irudi nabar bat agerraraziko du" eta hori dela eta "nazionalitatearen printzipio sozialista, printzipio nazionalaren eta autonomia nazionalaren arteko sintesi gorena" dela.

Nahikoa dela uste dugu.

Hauxe da Bauer eta Springerren lanetan agertzen den autonomia kultural-nazionalaren aldeko arrazoiketa.

Lehenik eta behin, nazioen autodeterminazioa autonomia nazionalarengatiko ordezte ulertezin eta erabat justifikatu gabe hori nabarmentzen da. Bietako bat: ala Bauerrek ez daki autodeterminazioa zer den, ala badaki baina arrazoiren batengatik kontzeptu hau nahita murrizten du. Honetan ez dago zalantzarik: a) autonomia kultural-nazionalak nazionalitate anitzez osatutako Estatuaren osotasuna onartzen duela, autodeterminazioa osotasun honetatik at kokatzen den bitartean; eta b) autodeterminazioak nazioari eskubide guztiak ematen dizkiola, autonomia nazionalak eskubide "kulturalak" soilik ematen dizkion bitartean. Hori lehenik eta behin.

Bigarrenik, baliteke eta posible da, etorkizunean zenbait barne eta kanpo baldintza elkartzeak nazionalitate hau edo hura, Estatu nazioanitzetik, esaterako Austriatik independentzia lortzea (ez al da egia Brünneko Biltzar Nagusian erruteniar[28]

---

[28] ***Erruteniarrak***: Etnonimo hau, Ekialdeko Europako herri eslaviar bati jarri izan zaio, hala ere, kontzeptu bezala, bere esanahia historian zehar pixkanaka aldatuz joan da. Esan beharra da testuinguru honetan Stalin ukrainarrez ari dela "erruteniarrak" aipatuz. Badirudi jatorri latindarreko hitza dela, hasieran testu batzuetan "Errutenia" eslaviarraren Rus Estatu zaharraren latindar izen gisa agertzen zen, eta "erruteniarrak" "rustarrak" (rusin edo ruski, eslaviar hizkuntzetan) ziretekeen. Behe Erdi Aroan eta ondorengo mendeetan, Errusiaren eta Europaren Erdialdearen artean, Poloniaren edo Lituaniako Dukerri Handiaren pe (Ukraina, Galitzia, Bielorrusia eta abar) bizi ziren eslaviar ortodoxoei ("rusin" edo "ruski" hauei) latindar hizkuntzetan jarritako izendapena izan zen; bestalde, Moskoviaren oinarritik Errusia izeneko Estatua sortu ondoren, hauek "errusiarrak", "russki" zirelarik. Garai batean, Lituaniako Dukerri Handiaren lurretan "erruteniar hizkuntza zaharra" zen ofiziala, hizkuntza horretatik gaur egungo bielorrusiera eta ukrainera eratorri izan direlarik (askotan "erruteniarrak" ukrainarren eta bielorrusiarren arbasotzat hartzen dira). Aro Modernoan, Poloniar-Lituaniar Konfederazioaren menpeko herri eslaviar ortodoxo honek bere burua "errusino" (rus, rusin) deitzen zion, Errusiarekin zuen hurbiltasun kulturala azpimarratuz. Azken etnonimo hau, XVIII. mende bukaeran Austriaren menpe geratutako ukraniarrek erabiltzen jarraituko zuten, Errusiaren menpe geratutakoen artean "errusiar-txiki" (ofiziala) edo "ukrainar" nagusitzen ziren bitartean. XIX. mendean, Austriar Inperioak ordea bere menpeko eslaviar-ortodoxoak (Galitziakoak batez ere) izendatzeko "erruteno" (ruthenen) terminoa berreskuratuko zuen, rusin terminoa erabiltzeak Galitziaren gaineko errusiar pretentsioak elika zitzakeelako (ulertzen den bezala, esaldi honetan aipatzen diren "erruteniar nazioaren bi zatiak" Austriar Inperioaren eta Errusiar Inperioaren menpeko zatiak dira). Ukrainar abertzaletasunaren hazkundearekin eta kultur pizkundearekin batera, termino hori galtzen hasiko eta "ukrainar" izendapena hedatuko zen. I Mundu Gudaren ostean, Ukraina berriz zatikatua izan zenean, Ukrainako Errepublika Sobietarretik kanpo, Poloniaren edota Txekoslovakiaren menpe geratutako ukrainarrak, ofizialki gehienetan "erruteniar" etnonimoaz izendatzen jarraitu izan ziren, hiru arrazoirengatik: lur horiek Austriar Inperioaren parte izandakoak zirelarik etnonimo ofizial horrekin jarraitzearren, "ukrainar" hitzari nazio kontzientzia indartsuago bat zeritzolako eta SESBen barruan "Ukraina" deitutako Errepublika Sobietar bat bazegoelako, "ukrainar" hitza erabiltzea Sobietar Ukrainarekiko hurbiltasuna suposatu zezakeen (batez ere guden arteko Poloniaren kasuan, ukrainarren lur horiek sobietarren aurkako gudan lortu zituztelarik eta ukrainarren aurkako poloniartze politika gogorra zerabilelarik, "erruteniar" izendapenak Estatuaren aldetik intentzionalitate politiko garbia zuen). Gaur egun, zonalde horietako pertsona gutxi batzuek "errusino" edo "erruteniar" kontzeptua erabiltzen jarraitzen dute ukrainar nazioarekiko bereiziz eta Errusiarekiko hurbiltasuna azpimarratuz. Esanahia hainbestetan aldatu duen kontzeptua

sozialdemokratek euren herriaren "bi zatiak" osotasun batean batzearen alde agertu zirela?) ahalbideratuko duen. Zer egingo dugu orduan "*nazio guztietako proletalgoarentzat halabeharrezkoa*" den autonomia nazional horrekin? Nolako "konponbidea" da nazio guztiak Estatuaren osotasuna den Prokustoren zola hartan mekanikoki barneratzen dituen horixe?

47

Jarrai dezagun. Autonomia nazionala nazioen garapenaren norakoari guztiz kontrajartzen zaio. Nazioak antolatzeko kontsigna plazaratzen du. Baina artifizialki elkarlot al daitezke nazioak, bizitzak, ekonomia garapenak, eurengandik multzo osoak banatzen baldin baditu eta lurralde anitzetan sakabanatzen baditu? Kapitalismoaren lehen faseetan nazioak kohesionatu egiten dira, hor ez dago zalantzarik. Baina hori bezain eztabaidaezina da kapitalismoaren fase gorenetan nazioen sakabanatze prozesu bat ematen dela, prozesu honek multzo osoak ogi bila ateratzerakoan nazioengandik banatu arazi eta Estatuaren beste lurraldeetan zehar barreiatu arazi egiten dituela. Honela, bizilekuz aldatzen duten multzoek euren lotura zaharrak galdu egiten dituzte eta bizileku berrietan beste lotura berri batzuk bereganatzen dituzte, belaunaldiz belaunaldi ohitura berriak, gustu berriak, eta agian, hizkuntza berri bat asimilatzen dituzte. Hauxe da galdera: posible al da sakabanaturik aurkitzen diren talde hauek berriz batasun nazional bakar batean batzea? Non daude batzen ezinezkoa dena batuko duten uztai magikoak? "Nazio baten batu" al daitezke, esaterako, Baltikoko alemaniarrak eta Transkaukasiako alemaniarrak? Eta hau pentsaezina eta ezinezkoa baldin bada; zertan bereizten dira autonomia nazionala eta historiaren norakoa atzera itzularaztea nahi duten nazionalista zaharren utopia?

48

Baina nazio baten batasuna ez da soilik migrazioengatik suntsitzen. Barne arazoengatik ere suntsitzen da, adibidez, klase borroka zorroztearen ondorioengatik. Kapitalismoaren lehen faseetan bazegoen proletalgoaren eta burgesiaren arteko "kultur komunitateaz" hitz egiterik. Baina industria handia garatzerakoan eta klase borroka larriagotzerakoan, "komunitate" hau desagertuz doa. Ezin da nazio batetako "kultur komunitateaz" serioski hitz egin nazio horretako jabeen eta langileen artean ezin ulertua baldin badago. Nolako "etorkizun komunitatea" dago burgesia guda egarri baldin bada eta proletalgoak "gudari guda" deklaratu baldin badio[29]? Halako elementu antagonikoekin antolatu al daiteke klase guztiak barneratuko dituen batasun nazional bakar bat? Honen ostean posible al da "nazio batetako partaide guztiak komunitate nazional-kultural batean batzeaz" hitz egitea? Ez al da hemendik nahiko argi ondorioztatzen autonomia nazionala eta klase borrokaren norakoa kontraesanean daudela?

Baina unetxo batez "nazioa antolatu!" kontsigna bideragarria dela onar dezagun. Legebiltzarkide nazionalista burgesek bozka gehiago irabazteko helburuarekin nazioa

---

izaki, "Errutenia" eta "erruteniar" oraindik giro historiografiko eta akademikoetan polemika handia sortzen duen kontzeptuak dira.

[29] Kontsigna hau, II Internazionalak 1912ko azaroaren 24 eta 25ean Suitzako Basilea hirian egindako Biltzar Nagusian plazaratu zuen. Biltzar Nagusi hori burutzen zen artean, Balkanetako Lehen Guda gertatzen ari zen; alde batetik Liga Balkanikoa (Greziak, Serbiak, Montenegrok eta Bulgariak osatua) eta bestetik Otomandar Inperioa borrokatzen ari zirela. II Internazionaleko alderdi marxistek, potentzia handiek guda horretan esku hartzen bazuten eta beraz guda Europa osora zabaltzen bazuten, guda boikotatuz matxinadak hasiko zutela adierazteko atera zuten lelo hori. Guda hartan, mugimendu sozialistak Liga Balkanikoaren alde egin zuen, feudalismoa uzkailtzeko eta nazional askapenerako borroka bezala interpretatu baitzuen. Guda hori Liga Balkanikoak irabazi zuen eta horrelaxe Turkiak Europan zituen ia lur guztiak galdu zituen. (Hala ere, lortutako lur berriak banatzerakoan irabazleen artean ziren tirabirak zirela eta, 1913an Bigarren Guda Balkanikoa piztu zen, Bulgariak besteen aurka borrokatu zuelarik, bigarren guda horretan Bulgaria galtzaile atera zen). II Internazionalari dagokionez, 1914an I Mundu Guda, guda inperialista handia piztu zenean, II Internazionaleko alderdi sozialdemokrata gehienek kontsigna hori alboratu eta langile internazionalismoa traizionatu zuten, euren burgesia inperialistarekin bat eginez. Alderdi eta sektore iraultzaileek kontsigna horri gogor eutsi zioten, eta guda inperialista guda iraultzaile bihurtzen saiatu ziren, adibidez, Errusiako Iraultza horrela eman zen.

"antolatu" nahi izatea eta horretan ahalegintzea uler dezakegu. Baina noiztik ari dira sozialdemokratak nazioak "antolatzen", nazioak "eratzen", nazioak "sortzen"?

Zein motatako sozialdemokratak ote dira, hain juxtu klase borroka zorrozten den unean, klase guztientzako amankomunak diren batasun nazionalak antolatzen jarduten horiek? Orain arte, austriar sozialdemokraziak, gainontzekoen moduan, eginkizun bakar bat zuen: langileria antolatzea. Baina badirudi eginkizun hori "zaharkiturik" dagoela. Orain Springerrek eta Bauerrek beste eginkizun "berri" erakargarriago bat ezartzen dute: nazioak "sortzea", "antolatzea".

Beste alde batetik, logikak agintzen du: autonomia nazionala aurretik jartzen duenak, eginkizun "berri" hau onartzen du; baina horrek klase borroka ahanztea eta nazionalismoaren bidetik joatea dakar.

Springerren eta Bauerren autonomia kultural-nazionala nazionalismoaren aldaera zoli bat besterik ez da.

49

Eta ez da kasualitatea, ezta hurrik eman ere, austriar sozialdemokraten programa nazionalak "herriaren berezitasun nazionalak *zaintzeko eta garatzeko*" betebeharra inposatzea. Arreta handia jar ezazue zertan datzan Transkaukasiako tartariarren artean "Shajsei-Vajsei"[30] autozigortze jaia bezalako "berezitasun nazionala gordetzea", edo georgiarren artean "mendeku eskubidea" bezalako "berezitasun nazionala garatzea"!

Puntu hau programa burges-nazionalista amorratu batean ezin egokiago egongo litzateke, eta austriar sozialdemokraten programan baldin badago, autonomia nazionalak halako puntuak baimentzen dituelako eta hauekin kontraesanean aurkitzen ez delako da.

Baina autonomia nazionala, gaur egungo gizartean erabilgaitza dena, are erabilgaitzagoa da etorkizunean, gizarte sozialistan.

"Gizateria ondo mugarritutako komunitate nazionalitatetan sakabanatzeari" buruzko Bauerren iragarpena gizateria modernoaren garapenaren ibilbide osoak ezeztatzen du. Hesi nazionalak, sendotu beharrean, gainbeheratu eta erori egiten dira. 40ko hamarkadan jada Marxek esaten zuen "egunez egun, bakartze nazionala eta herrien arteko etsaitasunak desagertuz doazela" eta "proletalgoaren nagusigoak are azkarrago desagerraraziko dituela". Gizateriaren osteko garapenak, ekoizpen kapitalistaren hazkunde erraldoiarekin batera, nazionalitateak eta pertsonak gero eta handiagoak diren lurraldeetan nahasiz, Marxen teoria erabat baieztatu besterik ez du egiten.

Gizarte sozialista "pertsonek eta lurralde korporazioek osatutako irudi nabar" baten forman aurkezteko Bauerren nahia, Marxen ikusmolde sozialista Bakuninen ikusmolde erreformatuaz ordezteko saiakera uzkur bat da. Sozialismoaren historiak, halako saiakerek euren barrenean hondamendi saihestezin baten osagaiak daramatzatela frogatzen du.

50

Eta ez dezagun hitzik egin Bauerrek argitara emaniko "nazionalitatearen printzipio sozialista" horretaz; *klase borrokaren* printzipio sozialista, printzipio burges batez, "*nazionalitatearen printzipioaz*" ordeztea besterik ez den horretaz. Autonomia nazionala halako printzipio hain zalantzagarri batetatik abiatzen bada, langile mugimenduari kaltea soilik ekar dakiokeela aitortzea beharrezkoa da.

Egia izan bada halako nazionalismoa ez dela hain garbi azaltzen, esaldi sozialisten atzean ezkutatzen baita, horregatik proletalgoarentzat are kaltegarriagoa da. Nazionalismo nabarmena erraz garaitu daiteke, ez baita antzemateko zaila. Zailagoa da nazionalismo

---

[30] ***Shajsei-Vajsei***: Islamiar xiiten jai erlijioso bat, jai horretan xiitek euren gorputzak zauritzen dituzte. Horrela, xiismoaren sortzaile Ali eta bere seme Hasan eta Huseinen heriotza gogoratzen dute, hauek fedearen martiri bezala hil baitziren.

mozorrotu baten eta mozorro azpian antzemateko gaitza den nazionalismoaren aurka borrokatzea. Sozialismoaren mozorroaren azpian ez da hain ahula eta biziagoa da. Langileen artean bizi denez, giroa gaiztotu egiten du, nazionalitate ezberdinetako langileengan elkarrenganako konfiantza eza eta bakarkeriazko ideia kaltegarriak hedatuz.

Baina autonomia nazionalak egiten duen kaltea ez da honetara mugatzen. Ez du soilik nazioen bakarkeriarako bidea errazten, langile mugimendu batuaren zatiketarako bidea ere errazten du. Autonomia nazionalaren ideiak, langile alderdi batua nazionalitateetan antolatutako alderdi anitzetan banatzeko baldintza psikologikoak ezartzen ditu. Alderdien atzetik, sindikatuak ere zatitzen dira, eta ondorioa erabateko bereiztea da. Eta horrela, klase-mugimendu batua, gunetxo nazional bereizi anitzetan sakabanatzen da.

Austriak, "autonomia nazionalaren" sorterriak, fenomeno honen emaitzarik deitoragarrienak ematen dizkigu. Austriako Alderdi Sozialdemokrata, aspaldi batua zena, 1897an (Wimbergeko Biltzar Nagusian)[31] zenbait alderdi sakabanatu ezberdinetan zatitzen hasi zen. Autonomia nazionala onetsi zuen Brünngo Biltzar Nagusiaren (1899) ondoren, zatikatzea areagotu egin zen. Azkenik, gertakari hauxe hain urrun joan da, ezen nazioarteko alderdi batu baten ordez sei alderdi nazional agertu diren; haietako batek, Txekiar Alderdi Sozialdemokratak, sozialdemokrazia alemaniarrarekin harremanik txikiena ere izan nahi ez duelarik.

51

Alderdiei loturik, sindikatuak agertzen dira. Austrian, bai batzuetan zein besteetan, ardura nagusia langile sozialdemokraten gain dago. Beraz, alderdiaren barneko banaketak sindikatuen barneko banaketara eramateaz, hauek ere zatitzeaz beldur izateko arrazoiak bazeuden. Eta bai, halaxe gertatu da: sindikatuak ere nazionalitateka zatikatu egin dira. Eta orain, hauxe, txekiar langileek alemaniar langileek egindako grebak apurtzeraino, edota hauteskundeetan txekiar burgesiarekin batera nazionalitate alemaniarreko langileen aurka parte hartzeraino iritsi da.

Hemen azaldutakotik, autonomia nazionalak nazio-auzia konpontzen ez duela ondorioztatzen da. Hortik urrun, gaiztotu eta nahastu egiten du; langile mugimenduaren batasuna puskatzeko, langileak nazionalitateka bereizteko, euren arteko liskarrak zorrozteko bidea egiten du.

Horiexek dira autonomia nazionalaren emaitzak.

[31] ***Wimbergeko Biltzar Nagusi***a: 1897an Vienako Wimberg auzoan burututako Biltzar Nagusi honetan, Austriako Langileen Alderdi Sozialdemokratak, sei talde sozialdemokrata autonomoen arteko batasun federala izatera pasatzea erabaki zuen; halako talde batek Austria barneko nazionalitate bat ordezkatuko zuen: germaniarrak, txekiarrak, italiarrak, poloniarrak, erruteniarrak eta hego-eslaviarrak. Bi urte geroago, Brünneko Biltzar Nazionalean, alderdiaren zuzendaritza nagusia ere puskatu egingo zuten, eta talde hauek, praktikan, sei alderdi bereizi izango ziren. Wimbergeko eta Brünneko Biltzar Nagusiek, autonomia nazional-kuturala babestuko zuten.

53

V. Bund erakundea, bere nazionalismoa eta bereizkeria

Lehentxeago, Bauerrek poloniarrentzako, txekiarrentzako eta abarrentzako autonomia nazionala beharrezkoa dela aitortzen duen arren, judutarrentzat autonomia hori ematearen aurka dagoela esan dugu. "Langile klaseak judutar herriarentzat autonomia aldarrikatu behar al du?" galderari, Bauerrek "autonomia nazionala langile judutarren aldarrikapena ezin dela izan" erantzuten du. Bauerren ustez, arrazoia "gizarte kapitalistak, (judutarrei, J. St) nazio bezala bizirautea ekiditean" datza.

Laburbilduz: nazio judutarra nazio izateari uzten ari zaio, beraz ez dago honentzat autonomia nazionala aldarrikatu beharrik. Judutarrak asimilatuz doaz.

Judutarrek nazio bezala duten etorkizunari buruzko iritzi hori ez da berria. Marxek 40ko hamarkadan bota zuen, batez ere judu alemaniarrez ari zela. Kautskyk 1903an bota zuen, judu errusiarrez ari zela. Orain Bauerrek hauxe errepikatzen du, oraingoan austriar juduez ari dela. Ezberdintasun batekin ordea: berak ez du judutar nazioaren oraina ukatzen, geroa baizik.

Baurrek, judutarrek nazio bezala bizirauteko duten ezintasunaren arrazoi bezala "judutarrek ezartze-lurralde mugaturik ez dutela" aipatzen du. Azalpen hau oinarrian zuzena bada ere, ez da egia osoaren adierazle. Arrazoi nagusia, batez ere, judutarrek nazioa maskor bezala baino gehiago merkatu "nazional" bezala sendotuko duen lurrari lotutako populazioaren zati handi eta egonkor bat ez izatean datza. Errusiar judutarren 5 edo 6 milioitatik, %3k edo 4k bakarrik egiten du nekazaritzan lan. Gainerako %96k merkataritzan, industrian, hiri-erakundeetan egiten du lan, eta orokorrean, hirietan, Errusia osoan barreiaturik bizi da, probintzia bakar baten ere gehiengoa osatzen ez duelarik.

54

Modu honetan, beste nazionalitateen lurraldeetan gutxiengo nazional bezala barneraturik, judutarrak industrial, merkatari edota ogibide liberaletan lan eginez nazio "arrotzen" zerbitzura daude, hizkuntza eta abarrean "nazio arrotz" horietara moldatuz. Guzti honek, kapitalismoaren garapen modu berezi gisa nazioen nahasketa gehituz, judutarren asimilaziora darama. "Ezartze Zonaldearen"[32] abolizioak, prozesu hau erraztu besterik ez du egingo.

Arrazoi honexegatik, errusiar judutarrei dagokienez, autonomia nazionalaren aferak izaera xelebre bat hartzen du: bere etorkizuna ukatzen zaion eta bere oraina zalantzan jartzen den nazio batentzako autonomia proposatzen baita!

---

[32] ***Ezartze Zonaldea***: Ezartze Zonaldea, garai baten Errusiar Inperioaren barne bizi ziren judutarrek bizitzeko mugaturik zeukaten lurraldea zen. Zonalde honen existentzia Gobernu tsaristaren politika antisemitaren adierazlerik gogorrenetarikoa izan zen; judutarrentzako ghetto handi bat hesitzearen modukoa baitzen. Errusiar judutarrak bertan bizitzera behartuta zeuden eta zonalde horretatik at mugitzeko pasaporte berezi baten beharra zuten (Zonaldetik kanpo bizi ziren salbuespen urriak egon baziren, batez ere judutar merkatari aberatsen, intelektualen, soldaduen eta hauen ondorengoen artean). Zonalde honen zabalera gaur egungo Lituaniak, Bielorrusiak, Poloniak (Errusiaren menpeko zatiak) eta Ukrainak (Ekialdeko herena kenduta) osatzen zuten gutxi-gora-behera (Zonaldearen mugak aldatuz joango ziren). Zonalde hau 1791an Kattalin Handia tsarinak sortu zuen, izan ere, Errusiak Poloniaren lurrak konkistatu zituenean, Poloniak zuen judutar populazio zabala hartzerakoan (ordura arte Errusian judu gutxi zeuden) agintari tsaristek judutarren aurkako diskriminazio modu hau ezartzea erabaki zuten. Ezartze Zonaldean judutarrek diskriminazio sozial asko pairatu behar izan zituzten eta bigarren mailako hiritartzat tratatuak izan ziren (administrazio publikoetan trabak, ikasketak jasotzeko zailtasunak, hizkuntzari mugak eta abar jasaten zituzten). Hiriak, oro har, Ezartze Zonaldetik kanpo geratu ziren, gobernu tsaristak bertan judutarrek populazioarengan eragin handia izan zezakeela uste baitzuen. 1917an Ezartze Zonaldea abolitu zen eta judutarrentzako zirkulazio-askatasuna ezarri zen.

Hala ere, Bund erakundeak, bere VI Biltzar Nagusian (1905) autonomia nazionalaren izpirituan zegoen "programa nazional" bat onetsiz, bere burua posizio ahul eta xelebre honetan jarri zuen.

Gertaera bik bultzatu zuten Bund erakundea pausu hori ematera. Lehen gertaera, Bund beraren izaeran datza, langile sozialdemokrata judutarren, bakarrik judutarren erakunde-ordezkari gisa. 1897 urtea baino lehen ere, langile judutarren artean ari ziren talde sozialdemokratek "soilik judutarra izango zen langile erakunde bat" sortzearen helburua planteatu zuten. 1897an erakunde hau sortu zuten, Bund izenekoan bateratuz. Hau, Errusiako sozialdemokrazia osotasun bezala existitzen ez zen garaian gertatu zen. Hortik hona, Bund erakundea etengabe haziz eta hedatuz joan da, Errusiako sozialdemokraziaren egun ilunen paisaian nabarmenduz. Baina hona heltzen zaigu XX mendea. Masazko langile mugimendua jaiotzen da. Poloniar sozialdemokrazia hazi egiten da eta judutar langileak masazko borrokara daramatza. Errusiako sozialdemokrazia hazi egiten da eta langile "bundistak" bereganatzen ditu. Bunden marko nazionala, lurralde jakinik ez duenez, mugatu egiten da. Bundi aukera hauxe azaldu zitzaion: nazioarteko uholde orokorrean disolbatu ala bere izatea erakunde independente bezala defendatu. Bundek bigarrena aukeratu zuen.

55

Horrela jaio zen Bund erakundea "judutar langileriaren ordezkari bakarra" zelaren "teoria".

Baina "teoria" arraro hori gutxi gorabehera modu "xumean" azaltzea ez zen lan erraza. "Hasierako" oinarri bat, "hasierako" justifikazio bat aurkitzea beharrezkoa zitzaien. Eta autonomia kultural-nazionala izan zen oinarri hori. Eta Bund erakundea horra hertsi zen, herskaria austriar sozialdemokraziarengandik maileguan hartuz. Austriarrek halako programarik izango ez balute, Bundek asmatu egingo zukeen, bere existentzia independentea "printzipioen arloan" justifikatu asmoz.

Modu honetan, IV Biltzarrean (1901) eginiko saiakera txikiaren ostean, Bund erakundeak bere VI Biltzarrean (1905) "programa nazionala" behin-betiko onesten du.

Bigarren gertaera, beste nazionalitate batzuen gehiengo trinkodun eskualdeetan judutarrek gutxiengo nazional bezala duten egoera berezian datza. Lehenago ere esan dugu egoera honek judutarrek nazio bezala irautea zailtzen duela, euren asimilazioa erraztuz. Baina hauxe prozesu objektiboa da. Subjektiboki, judutarren bihotzetan erreakzio bat pizten du eta gutxiengo nazionalarentzako eskubideen bermeen afera, asimilazioaren aurkako "bermeen" afera planteatzen du. "Nazionalitate" judutarraren bizigarritasuna lau haizetara aldarrikatuz, Bundek bere burua "bermeen" tokian kokatu baino gutxiagorik ezin zuen egin. Eta behin posizio hau hartuta, Bundek autonomia nazionala onartu baino gutxiago ezin zuen egin; Bund erakundea autonomia onestekotan bazegoen, honek nazionala izan behar baitzuen, hau da, *kultural-nazionala*: lurralde jakin eta oso baten falta dela eta, nazio judutarrarentzako lurralde-autonomia politiko batez ezin baita mintzatu ere egin.

56

Esanguratsua da oso, Bund erakundeak lehen momentutik autonomia nazionala gutxiengo nazionalen eskubideen berme bezala, nazioen "garapen askerako" berme bezala nabarmentzea. Eta ez da kasualitatea Goldblat jaunak, Errusiako sozialdemokraziaren II Biltzarrean Bunden ordezkari zenak, autonomia nazionala "(nazioei J. St) garapen kulturalerako askatasun osoa *bermatuko* dizkien instituzio multzoa" bezala definitzea. Eta proposamen berdina luzatu zieten Bunden ideien aldekoek IV Dumako gutxiengo sozialdemokratako partaideei.

Honela aintzatetsi zuen Bundek judutarren autonomia nazionalari buruzko posizio xelebrea.

Gorago, autonomia nazionala orokorrean zertan datzan aztertu dugu. Analisi honek, autonomia nazionalak nazionalismora daramala argi utzi du. Aurrerago, Bund erakundeak hortxe bukatu duela ikusi dugu. Baina horrez gain, Bundek, autonomia nazionala arlo berezi batean jartzen du fokua, gutxiengo nazionalen eskubideen berme bezala hain zuzen ere.

Azter dezagun afera arlo berezi honetatik ere. Hau oso garrantzitsua da, gutxiengo nazionalen aferak, eta ez judutarrenak soilik, sozialdemokraziarentzat garrantzi handia baitu.

Beraz nazioei "kultur garapena askatasun osoz" izatea "bermatzen dien instituzioak" ditugu.

57

Baina zeintzuk dira "bermatu" eta abar egiten dituzten "instituzio" horiek?

Lehenik eta behin, Springer eta Bauerren "kontseilu nazionala", afera kulturalendako Dieta antzeko bat.

Baina instituzio hauek nazioaren "kultur garapena askatasun osoz" eramango dela bermatzeko gai izango al dira? Kultur aferendako Dieta batek ahal izango du nazioa nazio-errepresioen aurka defendatu?

Bundek baietz uste du.

Baina historiak kontrakoa dio.

Errusiar Polonian, garai batean bazegoen Dieta bat, Dieta politiko bat, eta ulertuko duzuenez, poloniarren "kultur garapenerako" askatasuna bermatzen saiatzen zen; baina ez lortzeaz gain, Errusian orduan indarrean zeuden baldintza politiko orokorren aurkako borroka desorekatuan amore eman behar izan zuen.
Finlandian ere aspalditik badago Dieta bat, finlandiar nazionalitatea "erasoen" aurka defendatzen ere saiatzen dena. Baina zentzu honetan edonork ikusi dezake zenbat egin dezakeen.

Noski, Dieta guztiak ez dira berdinak eta Dieta demokratiko finlandiarra ez da Dieta aristokratiko poloniarra bezain azpiratzen erraza. Baina *giltzarria* ez da Dieta bera, Errusian indarrean dagoen ordena-egoera baizik. Gaur egun, Errusian, Poloniako Dieta abolitu zuen garaikoa bezalako ordena politiko- sozial hain bortizki asiarra balego, Dieta finlandiarrak askoz okerrago izango zukeen. Beste alde batetik Finlandiaren aurkako "erasoen" politika areagotuz doa eta ezin daiteke esan politika honek porrot askorik jasan dituenik.

Eta historian zehar sortutako instituzio zaharren kasuan, Dieta politikoen kasuan, hala gertatu bada; Dieta berriak, instituzio berriak, are ezgaiago izango dira nazio gazteen garapen askea bermatzerakoan, are gehiago "kultur" Dieta ahulak badira.

Beraz, koxka ez dago "instituzioetan", herrialdean indarrean dagoen ordenan baizik. Herrialdean demokratizaziorik ez badago, orduan nazionalitateen "garapen kulturalerako askatasun osorako" bermerik ere ez da izango. Ziurtasun osoz esan daiteke herrialde bat zenbat eta demokratikoagoa izan, "nazionalitateen askatasunaren" aurka gero eta "eraso" gutxiago egongo direla, eta handiagoa izango dela "eraso" horien aurkako bermea.

58

Errusia herri erdi-asiar bat da, hori dela eta, han "erasoen" politikak sarritan formarik bortitzenak, pogromen forma hartzen du. Eta ez dago esan beharrik Errusian "bermeak" ezin txikiagoak direla.

Alemania jada Europa da, bertan askatasun handiagoa edo txikiagoa izan. Ez da arraroa han "erasoen" politikak pogrom forma sekula ez izatea.

Noski, Frantzian "bermeak" are handiagoak dira, Frantzia Alemania baino herri demokratikoagoa baita.

Eta ez dezagun Suitza aipatu, non bere demokrazia maila handiari esker, berau burgesa bada ere, nazioak aske bizi dira, bai gehiengoa direnak zein gutxiengoa direnak.

Hortaz, Bund erakundeak "instituzioek" euren aldetik nazionalitateen garapen kultural osoa bermatzeko gai direla dioenean, bide faltsu bat jarraitzen du.

Norbaitek, Bundek Errusiaren demokratizatzea "instituzio hauek sortzeko" eta askatasun bermeak eman daitezen *aurrebaldintza* bezala ikusten duela esan dezake. Baina hori faltsua da. "Bunden VIII Konferentziaren Txostenean" ikus dezakegun bezalaxe, hauek, "instituzio" horiek Errusian gaur egun indarrean dagoen ordenaren *oinarrian*, *judutar komunitatearen* "erreforma" baten bitartez lor daitezkeela uste dute.

> "Komunitatea –zioen Bundeko buru batek Konferentzia hartan– biharko autonomia kultural-nazionalaren nukleoa izan daiteke. Autonomia kultural-nazionala, nazioek euren burua zerbitzatzeko modua, beharrizan nazionalak asetzeko modua da. Komunitatearen forman eduki berdina dago. Kate berdinaren katebegiak dira, eboluzio berdinaren etapa ezberdinak".

59

Hemendik abiatuta, Konferentziak "judutar komunitatea, erreformaren eta legegintzaren bidez, demokratikoki antolatutako instituzio laiko bat bilakatzearen alde" borrokatzea beharrezkoa zela onetsi zuen.

Argi dago Bund erakundeak baldintza eta berme bezala ikusten duena ez dela Errusiaren demokratizatzea; "judutar komunitatearen erreformaren bitartez", "legegintzaren bitartez", esaterako Dumaren bidez lortuko den judutarren etorkizuneko "instituzio laikoa" baizik.

Baina jada ikusi dugu Estatuan egoera demokratikorik indarrean egon gabe, "instituzioak" ezin direla "bermeak" izan.

Eta zer gertatuko da etorkizuneko erregimen demokratiko batekin? Demokrazian ere ez al dira beharrezkoak izango erakunde bereziak, "bermea emango duten erakundeak" eta abar? Arlo honetan, nolakoak dira gauzak, esaterako, Suitza demokratikoan? Ba al dago han Springerren "kontseilu nazionalaren" moduko instituziorik? *Ez, ez dago*. Baina... hori hala bada, ez al daude kinkan adibidez, han gutxiengo diren italiarren interes kulturalak? Ematen duenez, ez. Gauza logikoa baita: Suitzako demokraziak, erakunde kultural "berezi" horiek, "bermatu" egiten omen dutenak, soberan uzten ditu.

Beraz, gaur egun ezinean eta bihar alferrikako; horrelakoak dira autonomia kultural-nazionalaren *erakundeak*, horrelakoa da autonomia nazionala.

Baina autonomia mota hori, bere oraina eta etorkizuna ukatzen zaion "nazio" bati inposatzerakoan, are kaltegarriagoa da. Kasu horietan, autonomia nazionalaren aldekoak, "nazioa salbatzeko", hau "asimilatua" izan dadin ekiditeko; "nazioaren" berezitasun guztiak, ez bakarrik baliagarri direnak, baizik eta baita kaltegarri direnak gordetzera eta defendatzera behartuta daude.

60

Eta Bundek, halabeharrez, bide arriskutsu hori aukeratu behar zuen. Eta hala aukeratu zuen. Bunden azken Konferentzietako *sabbathari* eta jiddishari buruzko artikuluak aipa ditzazkegu.

Sozialdemokraziak *nazio guztientzako* hizkuntza-askatasuna aldarrikatzen du, baina Bund erakundea antza, ez dago honekin konforme eta "judutar hizkuntzaren eskubideak tinkotasun bereziarekin" defendatzea eskatzen du. Eta Bund berberak, IV Dumarako hauteskundeetan, "hizkuntza judutarra defendatzeko hitza eman duten konpromisarioei lehentasuna emango die".

Ama-hizkuntza erabiltzeko eskubide *orokorraren* ordez, jiddisha erabiltzeko eskubide *berezia*! Nazionalitate bakoitzeko langileek borroka dezatela *euren aldetik* euren hizkuntzarengatik: judutarrek jiddisharengatik, georgiarrek georgierarengatik eta abar. Nazio guztien eskubide *orokorren* aldeko borroka bigarren mailako gauza da. Nazio azpiratuen ama-hizkuntza erabiltzeko eskubidearen aintzatespena alde batera utzi dezakezue, baina jiddisha erabiltzeko eskubidea aitortzen baduzue, badakizue Bundek bozka emango dizuela, Bundek "lehentasuna" emango dizuela.

Orduan zein ezberdintasun dago Bunden eta nazionalista burgesen artean?

Sozialdemokraziak asteroko derrigorrezko opor-egun bat finkatzearen alde borrokatzen du, baina Bund erakundea ez dago horrekin konforme eta "legez, judutar langileriari larunbata jaiegun hartzeko eskubidea ziurtatzea galdatzen du, beste egun bat ospatzeko beharretik libratuz".

Bundek bide horretatik jarraituko duela espero da eta jai erlijioso judutar guztiak ospatu daitezen eskatuko duela espero da. Eta Bunden zoritxarrerako langile judutarrak aurriritziez askatu badira eta jai horiek ez badituzte ospatu nahi, Bundek, bere kanpainaren bitartez ("sabbatharen" aldeko agitazioa) larunbata gogoratuko die, eurengan, nolabait esateko, "sabbatharen izpiritua" zabalduko du.

61

Horregatik, guztiz ulergarriak dira Bunden VII Konferentzian "eritetxe judutarrak" eskatzen zituzten "hitzaldi sutsuak", aldarrikapen hau "gaixoa, bere jendearen artean hobeto sentitzen dela", eta "langile judutarra langile poloniarren artean gaizki sentituko dela, baina dendari judutarren artean ondo sentituko dela" arrazoituz.

Judutarra den oro gordetzea, judutar berezitasun guztiak gordetzea, langileriarentzat kaltegarriak direla aurrez dakizkigun horiexek ere bai, judutarrak judutarra ez den ororengandik, erietxe bereziak eraiki daitezela eskatzera iritsi arte bereiztea; begira noraino iritsi den Bund erakundea!

Plekhanov[33] burkideak arrazoi guztia du Bundek "sozialismoa nazionalismora moldatzen duela" dioenean. Noski, V. Kossovskik eta bera bezalako beste hainbat bundistek, Plekhanov "demagogo" bat dela esan dezakete –paperak dena eusten baitu-, baina Bunden jarduteko modua ezagututa, pertsona hauek euren buruari buruz egia esateari soilik diotela beldurra eta hori dela eta "demagogia" bezalako laidoen atzean ezkutatzen direla ulertzea ez da zaila.

Baina posizio horri eusteko, Bund erakundeak, antolakuntzaren arloan ere, langile judutarren bereiztearen bidetik, sozialdemokraziaren barnean kuria nazionalak eratzearen bidetik jarraitu behar zuen. Horixe da autonomia nazionalaren logika!

Eta noski, "ordezkari bakarraren" teoriatik, Bund erakundea "langileen arteko banaketaren" teoriara pasatzen da. Bundek Errusiako sozialdemokraziari "bere barne antolakuntzaren egituran nazionalitateen araberako banaketa onartzea" eskatzen dio. Eta "banaketatik" "isolamendura" "aurrerapauso" bat ematen du. Horretxegatik, Bunden VIII Konferentzian, "nazioaren existentzia isolamenduan datza" dioten hitzaldiak entzun ziren.

62

Antolakuntza arloko federalismoari, deskonposizio eta bereizkeria elementuak datzazkio. Bund erakundea banaketarantz doa.

Eta egia esan, ez zaio beste biderik geratzen. Izan ere, lurraldez gaindiko erakunde bezala duen izaerak banaketarantz bultzatzen du. Bundek ez du eremu jakin eta mugatu bat, "besteen" lurraldeetan egiten du lan; bere inguruan mugitzen diren sozialdemokrazia poloniarra, letoniarra eta errusiarra ordea, nazio askotariko lurralde-kolektiboak direlarik. Horregatik, halako kolektiboen hedatze bakoitzak Bundentzat "galera" bat, bere esparruaren mugaketa bat ekartzen du. Bitako bat: Errusiako sozialdemokrazia osoa nazio

---

[33] ***Georgi Plekhanov***: Askoren ustez, marxismoa errusiar lurrean zabaldu zuena izan zen, nolabait esateko "errusiar marxismoaren sortzailea". Alderdi Sozialdemokrataren II Kongresuaren ondoren, hasiera baten boltxebike eta mentxebikeen artean zalantzati agertu bazen ere, geroago azken hauekin bat egingo zuen. Hasiera batean, mentxebikeen barruan boltxebikeekin berrelkartzeko korrontea bultzatu bazuen ere, urteak joan ahala gero eta antiboltxebikeago izango zen, I Mundu Gudaren aurrean postura sozialtxobinista izango zuelarik. Otsaileko iraultzaren ondoren, mentxebikeen barnean eskuin-eskuineko ildo bat bultzatuko zuen, Jedinstvo (Bateratzea) izenekoa, erabat sozialtxobinista, gobernu burgesaren aldekoa eta boltxebikeekin lotura guztiak puskatzearen aldekoa; postura hauek mentxebikeen zuzendaritzak baino era argiagoan azalduz. Urriko Iraultzaren aurka agertu zen eta Finlandiara ihes egin zuen. Hurrengo urtean zendu zen. Halere, Sobietar Errepublikak bere memoriari gorazarre egingo zion, eskola garrantzitsu bati bere izena jarriz.

federalismoaren printzipioen arabera berrantolatzen da, eta horrela Bundek judutar proletalgoa "ziurtatzeko" aukera izango du; ala kolektibo hauen nazio askotariko lurralde-oinarria mantentzen da eta kasu horretan Bundek bere burua oinarri internazionalisten arabera berrantolatu beharko luke, sozialdemokrazia poloniarraren edota letoniarraren antzera.

Honek azaltzen du zer dela eta eskatzen duen Bundek ezer baino lehen "Errusiako sozialdemokrazia oinarri federatiboen gainean berrantolatzea".

1906an, Bundek, oinarri sozialetatik hazten ari ziren bateratzearen aldeko uholdearen aurrean amore emanik, Errusiako sozialdemokrazian sartuz erdiko bidea aukeratu zuen. Baina nola sartu zen? Poloniar eta letoniar sozialdemokrazia bertan modu baketsuan eta guztiokin batera elkarlana egiteko sartu ziren bitartean, Bund erakundea ordea, federazioarengatik borrokatzeko asmoz sartu zen. Bundisten buru Medemek[34] horrela azaldu zuen:

63

> "Ez goaz idilio batetara, borroka batetara baizik. Ez dago idiliorik eta Manilov[35] bezalakoek soilik izan dezakete hori etorkizun hurbilean gertatuko denaren itxaropena. Bund erakundea Alderdian goitik behera armaturik sartu behar da".

Esaldi honetan Medemen aldetik borondate txarrik ikusten duena, oker dabil. Ez da borondate txarra, Bunden posizio berezia baizik; hori dela eta, Bundek, internazionalismoaren oinarrietan datzan Errusiako sozialdemokraziaren aurka borrokatu behar du. Baina honen aurka borrokatuz, Bundek batasun printzipioa hausten zuen, noski. Eta azkenik Bundek Errusiako sozialdemokraziarekin batasuna apurtu zuen: Bundek, estatutuak hautsiz, IV Dumarako hauteskundeetan, poloniar sozialdemokraten aurka Poloniako nazionalistekin bat egin zuen.

Nolabait, Bundek, bere bideari eusteko modurik onena apurketa zela ondorioztatu zuen.

Eta honela, antolakuntza arloan izandako "banaketaren printzipioak", banaketara, guztizko apurketara eraman zuen.

Federalismoa zela eta Iskra[36] zaharrarekin eztabaidan, noizbait hauxe idatzi zuen Bundek:

> "Bundek Errusiako sozialdemokraziarekin dituen harreman federatiboek euren arteko loturak ahuldu egiten dituztela esanaz konbentzitu nahi gaitu Iskra aldizkariak. Errusiako esperientziari so eginez ezin dugu hori ihardetsi, arrazoi xinple bategatik: Errusiako sozialdemokrazia ez baita batasun federatibo baten moduan existitzen. Baina Austriako sozialdemokraziaren esperientzia guztiz irakasgarria aipa dezakegu, zeinek 1897ko Alderdiaren Biltzarraren oinarrian izaera federatiboa onartu zuen".

Hau 1902an idatzia izan zen.

---

[34] ***Vladimir Medem***: Bunden buruetako bat, II Biltzar Nagusian Bunden ordezkari izan zen. Geroago mentxebikeen alde jarri zen eta 1912an Likidatzaileen Konferentzian parte hartu zuen. I Mundu Guda inperialistan Errusiaren eskusartzea babestu zuen, eta Urriko Iraultzaren ostean AEBra erbesteratu zen, non Sobietar Iraultzaren aurkako artikuluak idazten zituen.

[35] ***Manilov***: Nikolai Gogol eleberrigilearen Arima Hilak liburuan agertzen den pertsonaia. Lurjabe-aberats alfer, hutsal, azaleko sentimentalismoz eta utzikeriaz betea dagoen pertsonaia. Errusian, garai hartan, halako pertsonei "Manilov" deitzea eta halako jarrerak "manilovkeria" bezala deitoratzea oso zabaldua zegoen.

[36] ***Iskra*** (errusieraz, "Txinparta"): XX mende hasierako aldizkaria, errusiar marxisten bozeramailea. Lenin bere zuzendaritzako kide izan zen. "Ekonomizismoaren" aurkako borrokan lehen mailako garrantzia izan zuen. Etapa bi izan zituen, hasiera batekoa, leninista zena; eta 1903tik aurrerakoa (apurketaren ondorengoa), mentxebikeen bozeramaile izan zenekoa. Gerora, etapa bi hauetako Iskra, "Iskra zaharra" eta "Iskra berria" bezala izango dira ezagutuak; horregatik Stalinek "Iskra zaharra" esaera erabiltzen du, hasierako etapako Iskraz ari delako

Baina orain 1913an gaude. Orain bai; Errusiako "esperientzia", zein "Austriako sozialdemokraziaren esperientzia" ezagutzen ditugu.

64

Zer diote esperientzia hauek?

Har dezagun lehenbizi "Austriako sozialdemokraziaren esperientzia guztiz irakasgarria". 1896 arte, Austrian alderdi sozialdemokrata bakarra zegoen. Urte horretan, txekiarrek, lehenbiziko aldiz Londreseko Nazioarteko Biltzarrean ordezkaritza berezi bat izatea eskatzen dute, baita lortu ere. 1897an Vienan (Wimbergen) burututako Biltzar Nagusian, forma aldetik alderdi bakarra deuseztatzen da eta haren ordez sei "talde sozialdemokratek" osatutako batasun federatibo bat ezartzen da. Geroago, "talde" hauek, alderdi ezberdin bilakatzen dira. Pixkanaka-pixkanaka alderdi hauek euren arteko loturak apurtuz doaz. Alderdien atzetik, ordezkaritza parlamentarioa puskatzen da eta "klub" nazionalak eratzen dira. Hauen atzetik sindikatuak datoz, nazionalitateka zatitzen hasten direnak. Eta hauxe kooperatibetaraino iristen da, non txekiar banaketa zaleek langileei kooperatibak puskatzea eskatzera iristen diren. Eta hauxe agitazio banaketa zaleek langileengan elkartasun sentimendua ahultzera daramala aipatu gabe, grebak puskatzerainoko bidetik eramanaz.

Ikusi dugu nola "Austriako sozialdemokraziaren esperientzia guztiz irakasgarria" Bunden *aurka* eta "Iskra" zaharraren alde agertzen den. Austriar alderdian, federalismoak beanaketarik lotsagarrienera eta langile mugimenduaren batasuna apurtzera eraman zuen.

Eta gorago "Errusiako esperientziak" berdina diola ikusi dugu. Banaketa zale bundistek, txekiarren antzera, sozialdemokrazia amankomunarekin, Errusiako sozialdemokraziarekin puskatu zuten. Sindikatuei dagokienez, sindikatu bundistak hasiera-hasieratik nazionalitatearen printzipioetan oinarriturik zeuden, hau da, beste nazionalitateetako langileengandik aldenduta.

Guztizko isolamendua, apurketa osoa: hori da federalismoaren "errusiar esperientziak" ekarri duena.

65

Eta ez da batere arraroa egoera honek langileengan eragina izatea, elkartasun sentimenduak ahulduz eta etsipena hedatuz, hori Bundean ere barneratzen delarik. Hau esatean, grebak direla eta langile judutarren eta langile poloniarren artean ematen diren gatazka gero eta ugariagoez mintzo gara. Hauexek dira afera honi buruz Bunden IX Konferentzian esandakoak:

> "Lanetik ohiltzen gaituzten langile poloniarrak, beilegi bezala, pogromista bezala hartzen ditugu, eta euren grebak ez ditugu babestuko, puskatu egingo ditugu. Bigarrenez, ohiltzeari ohiltzeaz erantzungo diogu: lantokietan judutarrak ez onartzeari erantzunez, ez dugu esku-lan kooperatibetara langile poloniarrik hurbiltzerik utziko. Afera hau gure eskuetan hartzen ez badugu, langileak *beste batzuekin joango dira*".

Honela hitz egiten dute elkartasunaz Konferentzia bundistetan.

> "Banaketaren" eta "isolamenduaren" bidetik ezin liteke haratago joan. Bund erakundea bere helburuetara iritsi da: langileak nazionalitateka bereizi ditu, euren arteko liskarretara iritsiz, grebak puskatzeraino iritsiz. Ezin baita beste modu batera izan: "Afera hau gure eskuetan hartzen ez badugu, *langileak beste batzuekin joango dira".*

Langile mugimenduaren desantolaketa, sozialdemokraziaren baitako etsipena: horra darama federalismo bundistak.

Hortaz, autonomia kultural-nazionalaren ideia eta honek sortzen duen giroa, Errusian Austrian baino kaltegarriagoak izan dira.

67

VI. Kaukasiarrak eta autonomia nazionala

Lehenago jada "izurrite" nazionalistari aurre egiteko ezgai izan ziren kaukasiar batzuk aipatu ditugu. Zalantza hauek, aipatu sozialdemokrata hauek –arraroa ematen badu ere– autonomia kultural-nazionala eskatuz Bunden bidetik ekin ziotenean nabarmendu ziren.

Kaukaso osoarentzako lurralde-autonomia eta Kaukason bizi diren nazioentzako autonomia kultural-nazionala: holaxe taxutzen dute euren aldarrikapena sozialdemokrata hauek; zeintzuk, dena esan beharra dago, errusiar likidatzaileekin bat egin duten.

Entzun dezagun zer esaten duen euren buruzagi ospetsuak, *N*. ezagunak:

> "Denok dakigun moduan, Kaukaso, bai bere populazioaren arraza-konposaketarengatik, zein lurraldeagatik edota nekazaritzarengatik, erdialdeko probintzietatik bereizten da. Hauxe bezalako eskualde baten ustiatzeak eta garapen materialak, bertan jaioak diren gizakiak, tokiko berezitasunak ezagutzen dituzten gizakiak eta bertako kulturara eta klimara ohituta dauden gizakiak behar ditu. Beharrezkoa da bertako lurraldearen ustiaketa arautuko duten lege guztiak herrialdean bertan onestea eta bertako elementuek aurrera eramatea. Beraz, bertako arazoei buruzko legeak onestea, kaukasiar autonomi administrazioaren organo zentralaren eskuduntza da. Modu honetan, kaukasiar organoaren eginkizuna, bertako lurraldearen ustiaketa ekonomikoa eta eskualdearen oparotasun materiala helburu duten legeak onestea izango da".

68

Hementxe dugu beraz, Kaukasorentzako eskualde- autonomia.

Zertxobait nahasgarriak eta ulergaitzak diren *N*.-ren argumentuak alde batera utzita; bere ondorioa zuzena dela aitortu beharko dugu. Estatuaren egituraketa orokorraren barnean –eta hau *N*.-k ez du ukatzen– Kaukasoren lurralde- autonomia, egia esan, bere konposaketa eta bizi-baldintzak kontutan hartuta, beharrezko gauza da. Hau Errusiako sozialdemokraziak ere aitortu du, bere II Biltzarrean, "beren bizi- baldintzetan eta populazioan, berez errusiar direnetik bereizten diren lurralde periferiko guztientzako lurralde-autonomia" aldarrikatu baitu.

Puntu hau II Biltzarrean eztabaidatzerakoan, Martovek[37] honela arrazoitu zuen: "Errusiaren itzelezko zabalerak eta gure administrazio zentralizatuaren esperientziak; Finlandia, Polonia, Lituania eta Kaukaso bezalako unitate handientzat eskualdeko autonomi administrazio bat beharrezko eta onuragarri bezala ikusteko nahikoa arrazoi eman dizkigute".

---

[37] ***Julius Martov***: Errusiar mentxebikeen buruzagietako bat. Gaztetan, San Petersburgon, Leninekin batera Langile Klasearen Askapenerako Borroka Batasuna sortu zuen, eta geroago Errusiar Langileen Alderdi Sozialdemokrataren fundatze prozesuan parte hartu zuen. Alderdi honen II Biltzar Nagusian, 1903an, boltxebike eta mentxebikeen arteko banaketa eman zenean, Martov azken hauen buru bezala agertu zen, Lenin boltxebikeen zuzendari zen bitartean. Hain zuzen ere, zatiketaren arrazoia Alderdiaren antolakuntza ereduari buruzkoa izan zen; halere, bi urte beranduago, 1905eko iraultzan, bereizketa politiko-ideologiko sakonagoa eman zen eta praktikan bi alderdi bereizi azaleratu ziren (nahiz eta ofizialki, 1912 arte, Alderdi Sozialdemokrata bakarra izan). I Mundu Gudarekin batera (guda inperialista), Martov mentxebikeen barneko gudaren "aurkako" fakzio sozialpazifistan kokatuko zen. Otsaileko iraultzarekin batera, Martov mentxebikeen ezker fakzioan kokatuko zen, Sobieten ordezkariek Behin-behineko Gobernu burgesean parte hartzearen eta hau babestearen aurkakoan eta boltxebikeengana hurbiltzearen aldekoan; halere, Urriko Iraultzan, Alderdi Mentxebikearen zuzendaritzak Iraultza Sozialistaren aurkako jarrera hartu zuenean, Martovek jarraitu egin zituen, Botere Sobietarraren eta proletalgoaren diktaduraren aurka jarriz. 1920an Alemaniara erbesteratu zen.

Hortik, eskualdeko *autonomi administrazio* esaten den tokian, eskualde *autonomia* ulertu behar dela ondorioztatzen da.

Baina *N.* urrutiago doa. Bere ustez, Kaukasoren eskualde- autonomiak "aferaren alde bati soilik heltzen dio".

"Honaino, bertako bizitzaren garapen materialaz soilik mintzatu gara. Baina eskualdearen garapen ekonomikoan ez du ekonomiak soilik parte hartzen, jarduera izpiritualak, jarduera kulturalak ere parte hartzen du". "Kulturalki indartsua den nazio bat, ekonomi arloan ere indartsua izanen da". "Baina nazioen garapen kulturala, hizkuntza nazionalaren oinarrian bakarrik da posible". "Horregatik, ama-hizkuntzarekin lotuta dauden afera guztiak, afera kultural-nazionalak dira. Afera hauek; irakaskuntzakoak, epai-prozedurazkoak, elizkoiak, literatura- arlokoak, arteetakoak, zientziatakoak, antzerkiari buruzkoak eta abarri buruzkoak dira.

69

Eskualdearen garapen materialak nazioak elkartu egiten baditu, afera kultural-nazionalek banatu egiten dituzte, bakoitza bere esparruan jarriz. Lehenengo motako jarduerak lurralde jakin bati loturik daude." "Ez da hala gertatzen afera kultural-nazionalekin. Ez daude lurralde jakin bati loturik, nazio jakin baten existentziarekin loturik baizik. Georgieraren etorkizuna georgiar guztien kezka da, hauen edozein tokitan bizi badira ere. Ezjakintasun itzelaren adierazpena izango litzateke georgiar kulturaren geroa Georgian bizi diren georgiarrei soilik interesatzen zaiela esatea. Har dezagun adibide bezala Armeniar Eliza. Bere arazoen kudeaketan toki eta Estatu askotako armeniarrek hartzen dute parte. Hemen lurraldeak ez du inolako paperik. Edo adibidez, georgiar museoaren sorrera Tbilisiko georgiarrei, zein Bakukoei, zein Kutaisikoei, zein San Petersburgokoei eta abarri berdin interesatzen zaie. Honek, afera kultural-nazionalen kudeaketa eta zuzendaritza interesatutako nazioei eman behar zaizkiela esan nahi du. Guk nazionalitate kaukasiarren autonomia kultural-nazionala aldarrikatzen dugu".

Laburbilduz: lurraldea kultura ez denez eta kultura lurraldea ez denez, autonomia kultural-nazionala beharrezkoa da. Hori da honen alde N.-k esaten digun gauza bakarra.

Ez dugu hementxe autonomia nazional-kulturalaren orokortasuna berriz azalduko, lehen ere mintzatu izan gara alde negatiboez. Berez orokorrean alferrikakoa izateaz gain, gainera, Kaukasoko baldintzak kontutan hartuta, ez hanka ez burua ez duela nabarmendu nahiko genuke.

Hona hemen zergatik.

Autonomia kultural-nazionalak, gutxi gorabehera garatutako herri batzuen existentzia, kultura eta literatura garatu bat duten herrien existentzia aurresuposatzen du. Baldintza hauek gabe, autonomiak zentzu guztia galtzen du, zentzugabea bilakatzen da. Baina Kaukason badira kultura primitibodun hainbat herri, bakoitza bere hizkuntzarekin baina euren literatura propiorik gabe; honez gain herri hauek trantsizio egoeran daude, alde batetik asimilatuak izaten ari dira, eta beste alde batetik euren burua garatzen jarraitzen dute. Nola aplikatu herri hauei autonomia nazional-kulturala? Zer egin eurekin? Nola "antolatu" ahal dira autonomia kultura-nazionalak aurresuposatzen dituen batasun kultural-nazionaletan?

70

Zer egin euren hizkuntzan mintzatzen diren baina literatura propiorik ez duten mingreliarrekin[38], abkhaziarrekin[39], adzhariarrekin[40], svanetiarrekin[41], lezgiarrekin[42] eta abarrekin? Zein nazioen artean sartu beharko lirateke? Posible al da hauek batasun nazionaletan "antolatzea"? Zein "afera kulturalen" arabera "antolatu" beharko dira?

---

[38] ***Mingreliarrak***: Mingreliarrak, batik bat, Georgiaren mendebaldeko Mingrelia (Samegrelo) eskualdean bizi diren herria dira. Mingreliako printzerria, XI mendean Georgiako Erresuma sortu zutenetariko printzerri bat izan zen; XV mendean, Georgiako Erresuma batua puskatzean, Dadian dinastiaren azpian berriz printzerri apartea izan ziren. 1810ean Errusiako tsarraren menpe geratu ziren, tsarraren eta Mingreliako printzearen akordio baten ondorioz. Iraultzaren urteen ostean, Mingrelia Georgiako Sobietar Errepublika Sozialistaren barruan (eta hau SESBen barruan) geratu zen. Historia osoan zehar Georgiari oso atxikiak egon dira eta euren burua georgiar herriaren partetzat daukate. Euren hizkuntza, georgiera bezala, hizkuntza iberokaukasiarren kartvelieraren familiakoa da eta georgierari oso lotua dago, askoren arabera georgieraren aldaera bat delarik. Mingrelierak ez du idatzizko tradiziorik eta mingreliarrek idazterakoan georgiera erabiltzen dute; honek, mingreliera georgieraren hizkera denaren iritzia indartu duelarik. Mingreliar hizkuntzak gutxi gora behera 300.000 eta 600.000 hiztun artean ditu, kopuru hau zehazten zaila bada ere.

[39] ***Abkhaziarrak***: Abkhaziarrak, Kaukasoren hegoaldean bizi diren herria dira, batez ere Abkhaziako Errepublikan (hiriburua, Sukhumi). 150.000 abkhaziar daude, horietatik 100.000 Abkhazian bizi direlarik. "Zirkasiar" izenez ere ezagutuak izan dira. Euren hizkuntza kaukasoar familiakoa da. Abkhaziarren erresuma Erdi Aroan Georgiaren menpe geratu zen eta gero otomandarrek konkistatu zuten. XIX mendean, Errusiak Kaukaso konkistatzerakoan, abkhaziarrak Inperio tsaristaren menpe geratu ziren. Sobietar Iraultzarekin batera abkhaziarrek euren burujabetasuna aldarrikatu zuten, Georgiako mentxebikeen aurka borrokatu zuten eta 1922an SESB barruko Errepublika bat osatu zuten, 1933an Georgiako Sobietar Errepublika Sozialistaren barruan autonomia berezi batekin sartu baziren ere. 90eko hamarkada hasieran, Georgian kontrairaultzaile anti-sobietarrak nagusitzerakoan, abkhaziarrek (sentimendu pro-sobietarrak zituztelarik) euren autonomia handitzeko ahaleginak egin zituzten, baina georgiarrek horri uko egin zioten. 1991ean SESB desegiterakoan, abkhaziarrek Georgia "independente" kapitalista berriaren parte izateari uko egin zioten eta horrela Georgiaren aurkako guda hasi zen. 1994an bake-itun bat adostu zen, eta Georgiak eta Errusiak bake- indar misto bat jarri zuten Abkhazian. 2008ko abuztuan Georgiak Abkhazia menperatzeko beste guda bat hasi zuen, baina Abkhaziak (Errusiaren laguntzaz) inbaditzaileak botatzea lortu zuen. Horren ondorio bezala, gaur egun Abkhazia Errepublika independentea da, Mendebaldeko potentziek hala onartzen ez badute ere

[40] ***Adzhariarrak***: Adzhariarrak, Georgiaren hego-mendebaldeko Adzhariako Errepublika Autonomoan (hiriburua, Batumi) bizi diren herria dira. Georgieraz hitz egiten duten arren, erlijio islamiarrekoak dira (nahiz eta azken urteetan asko georgiar kristautasunera aldatu) eta euren kultura turkiarrarengandik hurbil dago. 300.000 bat adzhariar daude gaur egun. 1926an adzhariarren etniatasuna onartua izan zen (ordura arte "islamdar georgiar" bezala sailkatzen baitziren), izan ere sobietar gobernu laizistak, erlijioen aurkako jarreragatik, ez zuen islama faktore kultural positibotzat ikusten; baina denbora joan ahala, sobietarrek laikotasuna defendatzen zutenez gero, adzhariarrak euren erlijioa eta horrekin neurri handi baten beste georgiarrekiko euren berezitasuna galtzen joan izan dira. Euren lurraldea IX mendean Georgiako erresumaren parte izan zen, baina 1614an Otomandar Inperioak konkistatu zuen, eta 1878an, Errusiak. Iraultzaren urteetan, 1918- 20 bitartean, georgiar, turkiar eta britainiar okupazioak jasan zituen eta 1921ean, Sobietar Iraultza Georgiara hedatu zenean, Adzharia Georgiaren barnean geratu zen nolabaiteko autonomia maila batekin. Georgia SESBtik banatzerakoan, Adzhariak Georgiako gobernuarekin zenbait tirabira izan zituen eta bere autogobernu maila handitzen saiatu zen, baina Abkhaziak eta Hego Osetiak ez bezala, ez zuen independentziarik aldarrikatu. 2004an Georgiak Adzharia guztiz bereganatzeko asmoa azaldu zuen eta Batumin matxinada georgiarzale bat piztu zen. Ondorioz, Adzhariaren autonomia asko murriztu zen, maila sinboliko batetara mugatzeraino.

[41] ***Svanetiarrak***: Svanetiarrak edo svanak, Georgiako iparraldeko Svanetia eskualdean bizi dira (3.000-5.000 metrotara, Europako biztanledun tokirik garaiena da). Gutxi gora behera 30.000 svanetiar geratzen dira. Gehienak kristau ortodoxoak dira. Euren burua georgiartzat daukate eta georgiar herriaren parte bezala hartzen dira. Georgiarrei oso atxikiak egon dira eta XI- XV mendeetan zehar, Svanetiako dukerria Georgiako Erresumaren parte izan zen. Azken hau desagertzerakoan, Svanetiako hegoaldea mingreliarren menpe egon zen, baina iparraldeko eskualdeek euren printzerria sortu zuten. 1833an, euren azken printzeak Errusiako Inperioarekin bat egitea erabaki zuen. Iraultzaren urteetan Georgiako gobernu mentxebikearen alde izan ziren; Georgia sobietartu zenean, Svanetia foko antisobietar bat izan zen. Euren hizkuntza, desagertzeko zorian dagoena, georgieraren antzekoa da, hauxe bezala iberokaukasiar kartveliar familiakoa, eta askok georgieraren aldaera bat bezala hartzen dute. Tradizio literariorik ez izateak eta idazterakoan georgiera erabiltzeak, azken hizkuntza honen hizkera denaren iritzia indartu egiten du.

[42] ***Lezgiarrak***: Lezgiarrak Dagestango Errepublikan (Errusia) eta Azerbaidjango iparraldean bizi dira. 600.000 bat dira, %70 inguru Errusian daudelarik. Lezgiar gehienak islamiar suniak dira. Euren hizkuntza iberokaukasiar familiakoa da, eta bai arabiar alfabetoz, zein alfabeto latindarrez, zein zirilikoz idatz daiteke

Zer egin osetiarrekin[43], euren artean, Transkaukasiakoak georgiarrek asimilatzen dituztelarik (baina oraindik guztiz asimilatzetik urrun dabiltzanak) eta Ziskaukasiakoak alde batetik errusiarrek asimilatzen dituztelarik eta beste alde batetik euren literatura propioa sortuz garatzen ari direlarik? Nola "antolatu" daitezke batasun nazional bakar batean?

Zein batasun nazionaletan antolatu behar dira adzhariarrak, georgieraz mintzatzen diren arren turkiar kultura bizi dutenak eta erlijio islamiarra dutenak? Ez al dira erlijio-aferetan georgiarretatik at eta kultur-aferetan georgiarrekin batera "antolatu" beharko? Eta kobuletiarrak[44]? Eta inguxiarrak[45]? Eta agulak[46]?

Zer motatako autonomia da hainbeste herriz ahanzten den hori?

Ez, hori ez da afera nazionalari eman behar zaion irtenbidea, hori denbora pasatzeko irudimen-fantasia besterik ez da.

Baina onartezina dena onar dezagun eta gure N.-ren autonomia nazional-kulturala praktikan ezarri dela suposa dezagun. Nora darama? Zer nolako emaitzak ematen ditu? Har

---

[43] ***Osetiarrak***: Osetiarrak Kaukaso mendikatearen alde bietan bizi dira, Ipar Osetian (Errusia) eta Hego Osetiako Errepublikan (independentea). Alanoen eta sarmatiarren ondorengoak direla suposatzen da. Euren hizkuntza indo-europear familiako pertsiar multzokoa da eta bai georgiar alfabetoz zein zirilikoz idatz daiteke. Gaur egun 600.000 bat osetiar daude: hoietako 500.000tik gora Ipar Osetian bizi dira eta 65.000 Hego Osetiako Errepublikan. Gengis Khanek osetiar erresuma konkistatu ondoren, mendi tartean babestu behar izan ziren. Errusia eta Turkiaren artean zatituta bizi izan dira mende askoz, baina Inperio tsaristak Kaukaso konkistatzerakoan osetiarrek Errusiarekin bat egin zuten; osetiarrek sentimendu errusiarzale indartsuak dituzte. Sobietar Iraultza eman zenean, osetiarrak gorrien alde jarri ziren, Georgiako mentxebikeen gobernu kontrairaultzailearen aurka borrokatuz eta honen aldetik garbiketa etnikoa jasanaz. SESB sortzerakoan Kaukasoren alde batetako osetiarrek Ipar Osetiako Errepublika sortu zuten (Errusiaren barruan autonomia zutelarik) eta beste aldekoek Hego Osetiako Errepublika (Georgiaren barruko autonomia zutelarik). 90eko hamarkadan, SESB desegiterakoan, hego-osetiarrak sobietarzale bezala agertu ziren eta Georgia SESBtik banatzearen aurka agertu ziren. Egoera berri honen aurrean, Georgia "independente" kontrairaultzailetik banandu egin nahi izan zuten, baina Georgiak gudaz erantzun zien. 1994ko bake-itunaren ostean, Hego Osetiaren statusa aidean geratu zen, definizio zehatzik gabe. 2008an Georgiak Hego Osetiaren aurkako beste guda bat hasi zuen, georgiar agintea inposatzeko asmoz; baina osetiarrek (errusiarren laguntzaz) aurre egin zieten eta inbaditzaileak kanporatu zituzten. Geroztik Errepublika independentea da Hego Osetia, nahiz eta Mendebaldeko potentziek hori aitortu ez. Ipar Osetiak aldiz, Errusiako Federazioaren barne jarraitzen du, eta 90eko hamarkadaren hasieran inguxiarrekin gatazka etnikoa izan zuen.

[44] ***Kobuletiarrak***: Kobuletiarrak Georgiako Adzharia eskualdeko Kobuleti hirian eta honen inguruan dagoen izen bereko barrutian bizi den taldea dira, badirudi herri hau adzhariarren azpi-talde bat dela. Kobuletiarrak Guria Printzerri georgiarra osatu zuten tribu bat izan ziren; 1828an, inguruko beste tribu asko bezalaxe, Turkiar Inperioaren barne izatera pasa ziren arte. XVII mendetik XIX mendera kobuletiarren buruzagitza Tavdgiridze familiaren esku egon zen. Errusiar Iraultzaren ostean, Adzharia eskualdean eta Georgiako Sobietar Errepublika Sozialistaren barruan geratuko ziren. Hiriaren turkierazko izena Çürüksu da. Kobuletiar hizkera georgieraren adzhariar aldakiaren azpi-aldaki bezala hartua dago, berezitasun batzuk baditu ere. Kobuletiar gehienek, adzhariar edota georgiartzat daukate euren burua.

[45] ***Inguxiarrak***: Inguxiarrak Kaukasoko iparraldean bizi diren herria dira. Euren hizkuntza, inguxiera, kaukasoar familiako hizkuntza da. Inguxiar gehienak kristau ortodoxoak edo islamdar suniak dira, eta klanetako tradizio patriarkala dute. 1810an Errusiaren menpe geratu ziren eta 1860an euren lurrak are gehiago murriztu ziren, kosakoak euren lurretan finkatu baitziren. Iraultzaren urte korapilatsuen ostean, 1921ean Inguxetiako Oblast Autonomoa sortu zen eta 1936an, txetxeniarrekin batera, Inguxetia- Txetxeniako Sobietar Errepublika Autonomo Sozialista sortu zuten. Bigarren Mundu Gudan zehar, inguxiar askok alemaniar naziekin kolaboratu zuten eta kolaboratzaile asko zigortuak izan ziren. SESB desegin zenean, txetxeniarrek Errusiaren aurkako gatazkari ekin zioten, honetatik banantzeko asmoz. Inguxiarrek ordea, txetxeniarrengandik banandu eta sortu berri zen Errusiar Federazioaren barruan status berri bat negoziatu zuten: Inguxetiako Errepublika; hala ere, gutxi barru, ipar-osetiarren aurkako gatazka etnikoa piztu zen, eta galtzaile atera ziren. 1999an Txetxeniako Bigarren Guda piztu zenean, inguxiar batzuek txetxeniar fundamentalista islamiarrekin bat egin zuten, eta gatazka, neurri batean, Inguxetiara zabaldu zen

[46] ***Agulak***: Agulak Errusiako Dagestango Errepublikan bizi diren etnia bat dira. Gaur egun 29.000 bat dira, Dagestango Errepublikaren populazio osoaren %1 osatuz. Agulak euren iparkaukasiar familiako hizkuntzaz mintzatzen dira, hizkuntza horrek lezgiar hizkuntzarekin antzekotasun handiak ditu. Agulerak ez du idatzizko tradiziorik, idazterakoan aguleek lezgiera erabiltzen dute.

ditzagun esaterako, tartariar transkaukasiarrak, euren artean idazten eta irakurtzen ehuneko txiki-txiki batek soilik dakielarik, mullah ahalguztidunek zuzendutako euren eskolekin eta euren kutsu erlijiosozko kulturarekin. Ez da zaila antzematen hauei autonomia kultural-nazionala emateak, euren buruan mullah delakoak jartzea esan nahi duela, mullah atzerakoien menpe uztea esan nahi duela, tartariar masen etsairik handienen menpeko esklabutza izpiritualaren indartzea esan nahi duela.

71

Baina noiztik ari dira sozialdemokratak atzerakoiei bidea egiten?

Kaukasiar likidatzaileek ezin al zuten transkaukasiar tartariarrak atzerakoirik gaiztoenen menpeko esklabotzara eramango dituen batasun kultural-nazional baten sartzearen ordez beste gauza hobeagorik aldarrikatu?

Ez, hori ez da nazio-auziaren irtenbidea.

Kaukasoko nazio-arazoa, *herri atzeratuak kultura aurreratuago batetara eramanaz* soilik konpondu daiteke. Konponbide hau soilik izan daiteke aurrerakoia eta sozialdemokraziarentzako onargarria. Kaukasoren lurralde- autonomia onargarria da, hain zuzen ere nazio atzeratuak amankomuneko kultur garapenera gehitzen dituelako, nazionalitate txikietan hainbeste ematen den isolamendua puskatzen laguntzen dietelako, aurrera bultzatzen dituztelako eta kultura aurreratuago baten baloreak eskura jartzen dizkietelako. Autonomia kultural-nazionala ordea, kontrako bidean doa; nazioak euren maskor zaharretan ixten dituelako, kultur mailarik txikienetan mantentzen dituelako eta kultura aurrerapena galarazten dietelako.

Modu honetan, autonomia nazionalak eskualde- autonomiaren alde onak hustu egiten ditu eta ezereztu egiten ditu.

Hain zuzen ere, horregatik da alferrikakoa N.-k proposatutako autonomia nazional-kulturala eta eskualde autonomia bilbatzen dituena autonomia misto hori. Bilbatze antinatural honek ez ditu gauzak hobetzen, okertu baizik; izan ere, atzeratutako nazioen garapena oztopatzeaz gain, eskualde autonomia nazio ezberdinen arteko talketarako borroka-zelai bihurtzen du.

72

Modu honetan, autonomia kultural-nazionala, oro har alferrikakoa dena, Kaukason asmo atzerakoi bat bihurtuko litzateke.

Horixe da N.-ren eta bere kaukasiar aldekoen autonomia nazional-kulturala.

Emango al dute kaukasiar likidatzaileek “aurrerapausuren bat” eta jarraituko al dute antolakuntzaren arloan Bunden eredua? Etorkizunak esango du. Gaur arte, sozialdemokraziaren historian, antolakuntza arloko federalismoaren atzetik programan autonomia nazionala dator. Austriar sozialdemokratek, 1897an jada, euren antolakuntzari federalismoa aplikatu zioten eta bi urte barru (1899an) autonomia nazionala onetsi zuten. Bundistek, autonomia nazionalari buruz, modu ulergarrian lehen aldiz 1901ean hitz egin zuten, antolakuntza arloan 1897tik federalismoa aplikatzen zutelarik.

Kaukasiar likidatzaileak atzetik hasi dira, autonomia nazionaletik. Bunden bidetik jarraitzen badute, gaurko erakundearen egitura guztia, 90eko hamarkadaren bukaeratik internazionalismoaren oinarrietan eraikia izan dena, erauzi beharko lukete.

Baina oraindik langileentzat ulergaitza den autonomia nazionala onestea hain erraza izan bada, horren zaila izango da hainbeste urtetan Kaukasoko nazionalitate guztiek maitasun handiz eraiki eta zaindu duten erakunde bat erauztea. Nahikoa izango da Erostratoren erako asmo horiek hastea, langileak itzartu eta autonomia nazionalaren izaera nazionalistaz konturatu daitezen.

73

Kaukasiarrek nazi-auzia modu arrunt eta ohikoan, hau da, ahozko eztabaiden eta idatzizko eztabaiden bitartez konpontzen duten bitartean, Errusia osoko likidatzaileen Konferentziak prozedura zaharkitu baten beharra izan du. Prozedura erraz eta xinplea izan da. Entzun ezazue:

> "Autonomia nazional-kulturala ezartzearen beharrari buruzko kaukasiar ordezkaritzaren komunikazioa entzunda, Konferentzia honek, auziaren mamiari buruz iritzirik plazaratu gabe, nazio guztientzako autodeterminazioa onesten duen programaren puntuaren interpretazio hau, programaren zentzu zehatzaren aurka ez doala jakinarazten du".

Horrela, lehenbizi "ez du auziaren mamiari buruzko iritzirik" eta gero "jakinarazten du". Hori metodo xelebrea!

Zer da Konferentzia orijinal honek "jakinarazten" duena?

Ba autonomia nazional-kulturalaren "aldarrikapena" nazioen autodeterminazio eskubidea onesten duen programaren "zentzu zehatzaren aurka ez doala".

Azter dezagun tesi hau.

Autodeterminazioaren puntua nazioaren eskubideei buruz mintzo da. Puntu honen arabera, nazioek ez dute soilik autonomiarako eskubidea, badute independentziarako eskubidea ere. Autodeterminazio *politikoari* buruz ari gara. Nor tronpatu nahi dute likidatzaileek nazioarteko sozialdemokrazia osoan aspaldi onartutako nazioen autodeterminazio politikorako eskubidea itxuraldatuz?

Edo agian, likidatzaileek ez ikusiarena egin nahi dute, autonomia nazional-kulturala nazioen eskubideen "aurka ez dagoela" dioen sofismaren atzean ezkutatuz? Hau da, Estatu batetako nazio guztiek autonomia nazional-kulturalaren arabera antolatzearen erabakia hartzekotan ados jartzen badira, nazioen multzo horrek hori egiteko eskubide osoa du eta inork ere ezin die bestelako forma politikorik *indarrez inposatu*. Guztiz berria eta burutsua. Baina nazioek soilik baldin badute euren etorkizuna zehazteko eskubidea, orduan zergatik ez diogu honi nazio guztiek euren Konstituzioa abolitu eta bidegabekerian oinarritutako sistema batez ordezteko eskubidea, ordena zaharrera itzultzeko eskubidea dutela eransten? Berriz esango dugu: ez autonomia nazional-kulturala, ez nazioen arloko beste edozein joera atzerakoi "ez daude *nazioen eskubideen* aurka".

74

Ez al da hori Konferentzia errespetagarriak esan nahi zuena?

Ez, ez da hori. Hain zuzen autonomia kultural-nazionala "ez dagoela", ez nazioen eskubideen aurka, baizik eta ezta ere *programaren "zentzu zehatzaren*" aurka dio. Programaz ari gara hemen, ez nazioen eskubideez.

Eta hau ulergarria da. Likidatzaileen Konferentzia edozein nazioz aritu izango balitz, Konferentziak, besterik gabe, nazio batek autonomia-nazional kulturalerako eskubidea duela besterik gabe esan zezakeen. Baina Konferentzia ez zitzaion nazio bati zuzentzen, kaukasiar sozialdemokraten "ordezkaritza" bati baizik; sozialdemokrata kaxkarrak hauek, dena esan beharra dago, baina sozialdemokratak. Eta hauek ez zuten nazioen eskubideei buruz ezer itaundu, baizik eta ea hauxe *sozialdemokraziaren printzipioekin* kontraesanetan zegoen, ea *sozialdemokraziaren programaren "zentzu zehatzaren*" "aurka" zegoen ala ez.

Beraz, *nazioen eskubideak eta sozialdemokraziaren programaren* "zentzu zehatza" ez dira gauza berbera.

Bistan dago badaudela nazioen eskubideen aurka ez dauden arren programaren "zentzu zehatzaren" aurka egon daitezkeen aldarrikapenak.

75

Adibide bat jarriko dugu. Sozialdemokraten programan kontzientzia askatasunari buruzko puntu bat azaltzen da. Puntu horren arabera, edozein pertsona taldek nahi duen erlijiokoa izateko *eskubidea du*: bai katolikoa, bai ortodoxoa eta abar. Sozialdemokraziak erlijioen aurkako jazartzeen aurka borrokatuko du; ortodoxoak, katolikoak eta protestanteak zigortzearen aurka borrokatuko du. Honek katolizismoa, protestantismoa eta abar "programaren zentzu zehatzaren aurka ez daudela" esan nahi al du? Ez, ez du halakorik esan nahi. Sozialdemokraziak katolizismoaren eta protestantismoaren aurkako jazarpenen aurka protestatuko du, edozein naziok edozein erlijio izateko eskubidea defendatuko du; baina aldi berean, proletalgoaren interesak zeintzuk diren ondo ulertuz, munduaren gaineko ikusmolde sozialista nagusitu dadin katolizismoaren aurka, protestantismoaren aurka, erlijio ortodoxoaren aurka propaganda egingo du.

Eta honela jardungo du, katolizismoa, protestantismoa, erlijio ortodoxoa eta abar ezbairik gabe programaren "zentzu zuzenaren aurka doazelako", hau da, ondo ezagunak diren proletalgoaren interesen aurka doazelako.

Beste hainbeste esan dezakegu autodeterminazioaz. Nazioek euren buruak euren nahien arabera antolatzeko eskubidea dute, eurek nahi dituzten instituzio nazionalak, baliagarriak zein kaltegarriak, gordetzeko eskubidea dute: inortxok ere ezin du nazioen barne bizitzan *indarrez* esku hartu (inortxok ez baitu horretarako eskubiderik!). Baina honek ez du esan nahi sozialdemokraziak ezin izango duela nazioen instituzio kaltegarrien aurkako propagandarik egin edota nazioen aldarrikapen desegokien aurka borrokatu. Aitzitik, sozialdemokrazia, propaganda hau egitera eta nazioen borondatean, hauek proletalgoaren interesetarako modurik hoberenean antolatu daitezen eragitera behartua dago. Horregatik, nazioen autodeterminazio eskubidearen alde borrokatuz, aldi berean, esaterako tartariarren separazioaren aurkako eta nazio kaukasiarren autonomia nazional-kulturalaren aurkako propaganda kanpaina bat egingo du, bai bata zein bestea nazio hauen eskubideen aurka ez badoaz ere, *programaren "zentzu zehatzaren aurka*", proletalgo kaukasiarraren interesen aurka doazelako.

76

Bistan da "nazioen eskubideak" eta programaren "zentzu zehatza" bi gauza guztiz ezberdin direla. Programaren "zentzu zehatzak" proletalgoaren interesak, programan modu zientifikoan azaltzen direnak adierazten dituen bitartean, nazioen eskubideek, klase ezberdinen indar kopuruaren arabera edozein klaseren interesak adierazi ditzazkete: burgesiarenak, aristokraziarenak, elizjendearenak eta abarrenak. Han marxisten *betebeharrez* mintzo gara eta hemen klase anitzek osatutako nazioen *eskubideez*. Nazioen eskubideak eta sozialdemokraziaren betebeharrak elkarren "aurka" egon daitezke ala ez; Keopseko piramidea eta likidazionisten Konferentzia egon daitezkeen bezala. Izari guztiz ezberdinak dira.

Baina hemendik, Konferentzia errespetagarriak guztiz ezberdinak diren gauza bi nahasteko oker barkaezina egin duela ondorioztatzen da. Emaitza ez da nazio-auziaren konpontzea izan, nazioen eskubideak eta sozialdemokraziaren printzipioak "elkarren aurka" ez doazela dioen burugabekeria bat baizik; beraz, nazioen aldarrikapen oro proletalgoaren interesekin bateragarria izan daiteke, beraz autodeterminazioa xede duen nazioen aldarrikapen bat ere "ez da programaren zentzu zehatzaren" aurka egongo!

Logikarekin errukirik txikiena ere ez du honek.

Zentzugabekeria honek, likidazionisten Konferentziaren akordio jada entzutetsuari, autonomia nazional-kulturalaren aldarrikapena programaren "zentzu zehatzaren aurka" ez dagoela dioen horri, oinarri bezala balio izan dio.

77

Baina likidatzaileen Konferentziak ez ditu soilik logikaren legeak apurtzen.

Horrez gain, autonomia nazional-kulturala onestean, Errusiako sozialdemokraziarekiko dituen betebeharrak ere ahazten ditu. Programaren "zentzu zehatza" modurik argienean puskatzen du, ezaguna baita programa onartu zuen II Biltzarrak autonomia nazional-kulturala deblauki errefusatu zuela. Begira zer esan zen Biltzar horretan gai honi buruz:

"*Goldblat* (bundista): Nire ustez, nazionalitateen kultur garapenerako askatasuna bermatuko duten instituzio bereziak sortzea beharrezkoa da; arrazoi honegatik, 8 puntuari honako hau gehitzea proposatzen dut: "*eta euren kultur garapenerako askatasun osoa bermatuko dien instituzioak sortzea*". (Hau, dakigunez, autonomia kultural-nazionalaren formulazio bundista da. I. St.)

Martinovek[47] instituzio orokorrak interes pribatuak ere bermatuko dituzten moduan antolatu beharko direla dio. Nazionalitate baten kultur garapenerako askatasuna bermatuko duen instituzio berezirik sortzea ez da posible.

Egorov[48]: Nazionalitateen aferan, posizio negatiboak soilik har ditzazkegu; hau da, nazionalitateak edonola mugatzearen aurkakoak gara. Baina guri, sozialdemokrata gisa, bost axola zaigu nazio jakin bat honela edo horrela garatzea. Hori prozesu espontaneo baten emaitza da.

Koltsov[49]: Bunden ordezkariak mindu egiten dira beren nazionalismoa aipatzen den bakoitzean. Baina hala ere, Bunden ordezkariak proposatutako emendakinak izate guztiz nazionalista du. Desagertzen ari diren nazioak defendatzeko ere neurri guztiz ofentsiboak hartzea eskatzen digute guri.

Hortaz, "*Goldblaten emendakina errefusatu egiten da gehiengoak hiru bozen aurka hala erabakita*"."

Beraz, likidatzaileen Konferentzia programaren "zentzu zehatzaren" aurka dago, programa urratu egin du.

78

Orain, likidatzaileek, euren buruak justifikatzeko, euren

aburuz autonomia kultural-nazionala onetsi omen zuen Stockholmeko Biltzarra[50] aipatzen dute. Eta V. Kossovskik hauxe idazten du:

---

[47] ***Alexander Martinov***: errusiar sozialdemokrata. XX mendeko lehen urteetan "ekonomizismoan" lerratu zen, hau da, mugimendu sozialista hobekuntza ekonomikoak lortzera mugatzearen aldeko eta kapitalismoa uzkailtzeko iraultzaren aurkako korrontean. II Biltzar Nagusian parte hartu zuen eta bertan mentxebikeen alde jarri zen. 1917an Urriko Iraultzaren aurka jarri zen, eta erbesteratu egin zen; halere, 1923an Sobiet Batasunera itzuli zen, boltxebikeekin eta Iraultzarekin adiskidetu egin zen eta Alderdi Komunistako kide egin zen.

[48] ***Egorov***: Errusiar sozialdemokrata, Juzhni Rabotxi (Hegoaldeko Langilea) egunkariaren editorea izan zen. II Biltzar Nagusiaren antolatzaileetako bat izan zen. Biltzar horretan, boltxebikeen eta mentxebikeen arteko zatiketaren aurrean, hasiera batean ez batzuekin ez besteekin lerrokatu ez bazen ere, geroago mentxebikeekin egingo zuen bat; halere, gutxi barru, militantzia politikoa alde batera utziko zuen.

[49] ***Koltsov***: Errusiar sozialdemokrata; II Biltzar Nagusian parte hartu zuen eta bertan mentxebikeekin lerrokatu zen. Zenbait egunkari mentxebikeren editorea izan zen.

[50] ***Stockholmeko Biltzarra***: Stockholmeko Biltzarra, "Birbateratzearen Biltzarra" ere deitua izango zena, 1906ko apirila eta maiatzaren artean burutu zen eta Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrataren IV Biltzarra izan zen. Biltzar honen helburua errusiar talde sozialista denak (boltxebikeak, mentxebikeak, bundistak eta abar) berriz alderdi bakar batean batzea izan zen. Halere, industriguneetako erakunde boltxebike gehienak aurreko urteko iraultzaren porrotak ekarritako errepresioak zigortuta zeuden, beraz ez zuten ordezkari asko bidaltzerik izan. Mentxebikeek aktibitate gutxiago izanda ere, ordezkari gehiago bidaltzeko moduan egon ziren, beraz, Biltzarreko ordezkarien gehiengoa izatea lortu zuten. Ondorioz, "Birbateratzearen Biltzarrean" hartutako ebazpenek kutsu mentxebikea izan zuten. Halere, Biltzar honetan emandako birbateratzea paperetan soilik eman zen, boltxebikeak eta mentxebikeak ordurako oso ezberdinduta baitzeuden.

"Ezaguna denez, Stockholmeko Biltzarrean hartutako erabakiaren arabera, Bundi bere programa nazionala gordetzeko eskubidea eman zitzaion (Alderdi osoaren Biltzar Nagusiak nazio-auziari irtenbide bat aurkitu arte). Dena den, Biltzar honek, autonomia nazional-kulturala Alderdiaren programa orokorrarekin kontraesanean ez zegoela aitortu zuen".

Baina likidatzaileen ahaleginak alferrikakoak dira. Stockholmeko Biltzarrari ez zitzaion Bundaren programa onartzerik ezta bururatu ere egin; gaia momentuz zabalik utzi zuen, hori bakarrik. Kossovski ausartari egia osoa esateko ausardia faltatu zitzaion. Baina gertaerak beharrik gabe ere mintzo dira. Hona hemen:

"*Galkinek*[51] *emendakin bat aurkezten du*: "Programa nazionalaren auzia *zabalik geratzen da*, Biltzarrak *aztertu ez duela ikusita*". (Alde 50 bozka, *aurka* 32 bozka).

Ahots batek: Zer esan nahi du zabalik geratzeak?

Mahaiburuak: Nazio-auzia zabalik geratzen dela esaten dugunean, horrek Bundek gai honi buruzko bere erabakia hurrengo Biltzarra arte mantentzeko eskubidea duela esan nahi du".

Ikusten duzuen bezalaxe, Biltzarrak ez zuen Bunden programa nazionala "aztertu": "zabalik" uztera mugatu zen, Bundi hurrengo Biltzar Nagusia arte bere programaren norakoak erabakitzeko askatasuna emanaz. Beste hitz batzuetan: Stockholmeko Biltzarrak gaia saihestu zuen, ez zuen autonomia nazional-kulturala epaitu, ez zentzu batean, ez bestean.

Likidazionisten Konferentziak ordea, gai hau zalantzarik -78-

gabe epaitzen du, autonomia nazional-kulturala onargarritzat ematen du eta Alderdiaren programaren izenean onesten du.

79

Ezberdintasuna bistan dago.

Modu honetan, Likidatzaileen Konferentziak, amarru guztiak erabilita ere, ez du nazio-auziaren arloan ezertxo ere ez aurreratu.

Bund erakundea eta kaukasiar nazional-likidazionistak lausengatu: horixe egiteko gai izan da bakarrik.

[51] ***Galkin*** (benetako izenez Gorin): Errusiar marxista, XIX mendetik mugimendu iraultzailean jardundakoa. II Biltzar Nagusian boltxebikeen alde jarri zen

81

VII. Nazio-auzia Errusian

Nazio-auziari eman behar zaion konponbide positiboa azaltzea falta zaigu.

Auzi hau Errusian oraintxe bizi dugun egoerarekin lotura sendoa duelarik soilik konpondu daiteke, hortik abiatzen gara.

Errusia trantsizio aro batean dago, oraindik han ez da bizitza "normal", "konstituzional" bat ezarri, krisi politikoa oraindik ez da konpondu. "Zailtasunez betetako" egun latzak etorriko dira. Horregatik, mugimenduak, gaurkoak eta biharkoak, demokratizatze osoa du helburu.

Mugimendu honekin lotuta aztertu behar dugu auzi nazionala.

Hortaz, herrialdearen demokratizatze osoa, nazio-auzia konpontzeko *oinarri* eta baldintza da.

Auzia konpontzeko, barne egoeraz gain, kanpo egoera ere kontutan izan behar dugu. Errusia Europa eta Asiaren artean dago, Austria eta Txinaren artean. Asian demokraziaren hazkundea geldiezina da. Europan inperialismoaren hazkundea ez da kasualitatezko gertaera bat. Europan, kapitala estuegia izaten hasi da eta beste herrialde batzuetan sartzeko lehian dabil; merkatu berrien bila, lan-esku merkearen bila, inbertsio toki berrien bila. Baina horrek kanpo zailtasunetara eta gerretara eramaten du. Inortxok ere ezin dezake esan Balkanetako guda zailtasun horien bukaera eta ez hasiera denik. Horregatik, posible izan daiteke barne eta kanpo gertaera batzuk bilbatzerakoan, Errusiako nazionalitateren batek bere independentziaren auzia planteatu eta konpontzearen beharra ikustea. Eta noski, marxistok, halako kasuetan ez dugu oztoporik jarri behar.

82

Hemendik, errusiar marxistek autodeterminazio eskubidea ezin dutela alde batera laga ondorioztatzen da.

Hortaz, nazio-auzia konpontzeko, *autodeterminazio eskubidea derrigorrezko puntua* dela ondorioztatzen dugu.

Jarrai dezagun. Zer egingo dugu arrazoi honegatik edo harengatik Estatu nazioanitz baten markoaren barnean jarraitu nahi duten nazioekin?

Autonomia kultural-nazionala alferrikakoa dela ikusi dugu.

Hasteko artifiziala da, bizitzak berak sakabanatu eta Estatuaren bazter ezberdinetatik barreiatzen duen jendea nazio bakar baten artifizialki taldekatu nahi baitu. Bigarrenik, nazionalismorantz bultzatzen du; gizakiak kuria "nazionaletan" "banatzera" eramaten baitu, nazioen "antolaketaren" ikuspegira eramaten du, "nazioen berezitasun guztiak" "gordetzera" eta "zaintzera" eramaten du, eta hau ez dator sozialdemokraziarekin bat. Ez da kasualitatea moraviar[52] banaketa zaleek Reichsraten germaniar ordezkari sozialdemokratengandik bereizi ostean, nolabait esateko "kolo" moraviar bat sortuz moraviar diputatu burgesekin bat egitea. Eta ez da kasualitatea ere ez, Bundeko banaketa zaleak, "sabbatharen" ospakizunaren eta "jiddisharen" gorespenera emanik, euren nazionalismoan murgiltzea. Duman oraindik ez dago ordezkari bundistarik, baina Bunden

[52] ***Moraviarrak***: Moravia; Bohemia eta Hego Silesiarekin batera, Txekiar Errepublika osatzen duten eskualdeetako bat da. Txekiarren %15 bat moraviarrak dira. Moraviarrek euren buruak txekiar bezala ikusten dituzte, eskualde-sentimendu indartsu bat duten arren. Moravia izena bertatik pasatzen den Morava ibaiaren izenetik eratorria da. Historia aberatsa daukate, baina Erdi Arotik aurrera bohemiarrei atxiki izan dira. XVI mendean Austriar Inperioaren barne sartu ziren eta 1918an Txekoslovakiaren parte izatera igaro ziren. Gaur egun Txekiar Errepublikaren parte da Moravia; baina ez da eskualde administratibo bat, eskualde kultural bat baizik

ekintza- eremuan komunitate klerikal-atzerakoi judutar bat dago, zeinen “zuzendaritza-erakundeetan” Bundek judutar langile eta burgesen arteko “batasuna” antolatzen duen. Horixe da autonomia kultural-nazionalaren zentzua.

Beraz, autonomia *nazionalak* ez du afera hau konpontzen. Non dago irtenbidea?

Irtenbide zuzen bakarra, *herrialde*-autonomia da; Polonia, Lituania, Ukraina, Kaukaso eta abar bezalako unitate mugatuei emandako autonomia.

83

Herrialde autonomiaren abantaila, hemen lurralderik gabeko fikzio batez baino, lurralde jakin batetan bizi den populazio jakin batez ari garela da. Gainera ez ditu gizakiak naziotan banatzen, ez ditu hesi nazionalak indartzen baizik eta hesi hauek apurtu egiten ditu eta populazioa batu egiten du, beste mota batetako banaketa bati, klaseen arteko banaketari bide egiteko. Azkenik, konponbidea zentrotik etor dadin itxaron gabe, eskualde batetako aberastasun naturalak modurik onenean erabiltzea eta indar produktiboak garatzea ahalbideratzen du, autonomia nazional-kulturalak funtzio hauek garatzen ez dituelarik.

Hortaz, nazio-auzia konpontzeko, *herrialde-autonomia derrigorrezko* puntua dela ondorioztatzen dugu.

Argi dago eskualde batean ere ez dagoela homogeneotasun nazionalik, guztietan gutxiengo nazionalak baitaude. Halaxe gertatzen da Polonian judutarrekin, Lituanian letoniarrekin, Kaukason errusiarrekin, Ukrainan poloniarrekin eta abar. Arrazoi osoz, gehiengo nazionalek gutxiengo hauek erreprimitzeak kezkatu gaitzake. Baina beldur honek herrialdeak ordena zaharrean bizitzen jarraitzen badu soilik du zentzua. Eman iezaiozue herrialdeari demokrazia osoa eta beldur honek zentzua galduko du.

Barreiatutako gutxiengoak batasun nazional batetan elkarlotzea proposatzen da. Baina gutxiengoek behar dutena ez da batasun artifizial bat, bizi diren tokian benetako eskubideak izatea baizik. Zer eman diezaieke halako batasun batek demokraziarik *gabe*? Edo zertako da beharrezkoa halako batasun nazional bat demokrazia oso baten *azpian*?

Zer da gutxiengo nazional bat aztoratzen duena?

Gutxiengo nazional bat haserrarazten duena ez da halako batasun artifizial baten falta, ama-hizkuntza erabiltzeko eskubidea baizik. Utz iezaiozue ama-hizkuntza erabiltzen eta haserre hori berez desagertuko da.

84

Gutxiengo nazional bat haserrarazten duena ez da halako batasun artifizial baten falta, bere ama-hizkuntzan heziketa ez izatea baizik. Eskola horiek emazkiozue eta haserre horrek bere oinarria galduko du.

Gutxiengo nazional bat haserrarazten duena ez da halako batasun artifizial baten falta, gurtza-askatasunaren (erlijio- askatasunaren), mugimendu askatasunaren eta abarren falta baizik. Askatasun horiek emazkiozue eta haserreak izateari utziko dio.

Hortaz, nazio-auzia konpontzeko, *mota guztietako (hizkuntza, hezkuntza eta abar) eskubideen berdintasun nazionala derrigorrezko puntua* dela ondorioztatzen dugu. Beraz, pribilejio nazional guztiak salbuespenik gabe debekatuko dituen eta gutxiengo nazionalen eskubideei jarritako oztopo edo muga guztiak ezabatuko dituen Estatuaren demokratizatzean oinarritutako lege orokor bat beharrezkoa da.

Hori soilik izan daiteke gutxiengo nazionalen benetako eta ez itxurazko bermea.

Antolaketa arloko federalismoaren eta autonomia nazional- kulturalaren harreman logikoaren existentziaz eztabaidatu dezakegu. Eztabaidatzerik ez dagoena, honek, mugarik gabeko federalismo bati bidea egiten diola da, hau guztizko apurketa, banaketa bihurtuz. Austrian txekiarrek eta Errusian bundistek autonomiatik abiatuz eta federalismotik jarraituz banaketan bukatu badute; horretan, autonomia kultural-nazionalari darion kutsu

nazionalistak zerikusi handia izan du. Ez da kasualitatea autonomia nazionala eta antolaketa arloko federalismoaren artean lotura zuzen bat egotea. Hau logikoa da. Bai batak zein besteak nazionalitateen araberako bereizketa eskatzen dute. Batak zein besteak nazionalitateen araberako antolaketa eskatzen dute. Analogian ez dago zalantzarik. Ezberdintasun bakarra, han populazio osoa bereiztean eta hemen langile sozialdemokratak bereiztean datza.

85

Badakigu langileak nazionalitateen arabera banatzeak zertara daraman. Langile Alderdi bakarraren zatitzea, sindikatuak nazionalitateen arabera zatitzea, zatiketa nazionalen areagotzea, greba-puskatzaile nazionalak, sozialdemokraziaren barneko guztizko etsipena: horiexek dira antolaketa-arloko federalismoaren emaitzak. Austriako sozialdemokraziaren historiak eta Errusian Bundek izan duen jarduerak, hori argi frogatzen dute.

Honen aurkako konponbide bakarra, internazionalismoan oinarritutako antolaketa da.

Errusiako nazionalitate guztietako langileak tokiko kolektibitate *bakarretan eta oso*etan batzea eta kolektibitate hauek Alderdi *bakar* baten batzea: horra gure eginkizuna.

Hemendik berez ondorioztatzen da Alderdiaren egituraketa mota honek ez duela Alderdi bakarraren barneko *eskualdeen* autonomia baztertzen, aurresuposatzen baizik.

Kaukasoko esperientziak antolaketa mota honek dakarrena agerian uzten du. Kaukasiarrek langile armeniar eta tartariarren arteko xextra nazionalak eragotzi baldin badituzte, populazioa pogrom eta talka armatuetatik gorde badute, gaur egun Baku hirian, talde nazionalen arragoa honetan talka nazionalak pentsaezinak badira, han langileak mugimenduaren bide bakarrera gehitzea lortu baldin bada; sozialdemokrazia kaukasiarraren egituraketa internazionalak zerikusi handia izan du.

Antolaketa motak ez du soilik lan praktikoan eragiten. Langilearen bizitzan arrasto ezabagaitz bat uzten du. Langileak bere erakundearen bizitza bizi du, han izpiritualki garatu eta hezi egiten da. Hortaz, bere erakundean jardutean eta han beste nazionalitateetako burkideekin batera egotean, euren ondoan zuzendaritza amankomunaren azpian borroka amankomun bat aurrera eramanaz; pixkanaka-pixkanaka, langileak oro har klase- familia bakar baten partaide, sozialismoaren armada batuaren gudari izatearen ideia eurengan guztiz barneratuz doa. Eta honek, langile klasearen sektore handientzat, heziketa aldetik garrantzia itzela izan behar du.

86

Horregatik, antolaketa mota internazionala burkidetza sentimenduak ikasteko eskola da, internazionalismoaren aldeko sekulako propaganda da.

Nazionalitatekako antolaketarekin, ez da horrela gertatzen. Nazionalitateen oinarrian antolaturik, langileak euren maskor nazionaletan itxi egiten dira, antolaketa-arloan langileen artean hesiak zutitzen dira. Ez da langileei *amankomuna* zaiena nabarmentzen, elkarren artean bereizten dituena baizik. Hemen, langilea, *oro har* bere nazionalitateko kide da: judutarra, poloniarra eta abar. Ez da batere arraroa antolaketa arloko federalismo *nazionalak* isolamendu nazionalera eramatea.

Horregatik, antolaketa mota nazionala, hertsikeria nazionalaren eta ohikeriaren eskola bat da.

Hortaz, gure aurrean, *printzipioetan* ezberdinak diren antolaketa mota bi agertzen zaizkigu: batasun internazionalekoa eta langileak nazionalitateka “bereiztearena”.

Orain arte, antolaketa mota bi hauek elkartzeko saiakerek ez dute arrakastarik izan. Austriar sozialdemokraziaren estatutu bateratzaileak, 1987an Wimbergeko Biltzarrean ezarritakoak, airean geratu ziren. Austriar alderdia zatitu egin zen eta haren atzetik sindikatuek beste hainbeste egin zuten. “Adostea” utopikoa izateaz gain, kaltegarria ere izan zen. Strasserrek arrazoi du “Wimbergeko Biltzar Nagusian banaketak bere lehen garaipena lortu zuela” esaten

duenean. Beste hainbeste gertatzen ari da Errusian. Stockholmeko Biltzarrean Bunden federalismoarekin egin zen "bateratzea" hondamendian bukatu zen. Bundek Stockholmen adostutakoa porrotera eraman zuen. Stockholmeko Biltzar Nagusia eman eta hurrengo egunean, Bund erakundea tokian tokiko nazionalitate guztietako langileak erakunde amankomun bakar baten batzeko oztopo bilakatu zen. Eta Bund erakundeak bere taktika bereizlea aplikatzen tinko jarraitu zuen; nahiz eta bai 1907an zein 1908an, Errusiako sozialdemokraziak, behin eta berriz, oinarrian nazionalitate guztietako langileen batasuna behingoan buru zezan eskatu. Antolaketa arloan autonomia nazionaletik hasiz, Bund erakundeak federalismorantz egin zuen, azkenean bereizketan bukatzeko. Eta Errusiako sozialdemokraziarekin puskatuz, hauxe nahasketara eta desantolaketara eraman zuen. Nahikoa da Jagielloren[53] kasua gogoratzea.

87

Horregatik, "adostearen" bidea alde batera utzi behar da, utopikoa eta kaltegarria delako.

Bitik bat aukeratu beharra dago: ala Bunden federalismoa, eta orduan Errusiako sozialdemokrazia langileak nazionalitateka "banatzearen" oinarrian antolatzen da; ala antolaketa mota internazionala, eta orduan Bund erakundea kaukasiar, letoniar eta poloniar sozialdemokrazien antzera, lurralde-autonomiaren printzipioen oinarrian antolatzen da, langile judutarrek Errusiako beste nazionalitateetako langileekin bat egitea ahalbideratuz.

Ez dago erdibiderik: printzipioak gailendu egiten dira, printzipioak ez dira "adosten".

Hortaz, nazio-auzia konpontzeko, *langileen batasun internazionalaren printzipioa derrigorrezkoa* dela ondorioztatzen dugu.

Vienan, 1913ko urtarrilean

[53] ***E. I. Jagiello***: Poloniako sozialista. IV Duman, Vartsoviako barrutiaren ordezkari bezala diputatu izatea lortu zuen; hauteskundeetan Bunden eta Poloniako talde nazionalista burges eta burges-ttipi batzuen babesarekin poloniar marxisten aurka lehiatuz. Errusiako sozialistek Duman zuten ordezkaritzan sartzeko eskaera egin zuen eta onartua ala ez izan behar ote zenaren gainean boltxebikeek eta mentxebikeek eztabaida izan zuten. Lehenak, Jagiello Errusiako marxisten artean onartzearen aurkakoak ziren; bigarrenak ordea, aldekoak. Azkenean, diputatu mentxebikeen presioa zela eta, onartua izan zen, beste taldekideek zituzten eskubide guztiak ez bazituen ere.

Stalin

(Gori, 1879 - Mosku, 1953)
1917ko Urriko Iraultzaren zuzendarietako bat Leninekin batera, Alderdi boltxebikeko idazkari nagusia (1924-1953) eta SESBeko buruzagietako bat, Nazioetarako Herri Komisario eta gobernuko presidente, besteak beste.

Marxismoa eta nazio-auzia

Leninen eskakizunez, Stalinek 1912. eta 1913. urteetan zehar idatzitako lan honetan, nazioa zer den definitzeaz eta mugimendu nazionalen izaera identifikatzeaz gain, materialismo dialektikoan oinarrituz garaiko sozialdemokraziaren adar ezberdinek tokian toki nazio-auziari proposatutako erantzunak aztertzen ditu eta, azkenik, Estatu errusierarentzako konponbidea aurkezten du.

Iraultza GARAIA liburuxkak

Klasikoak bilduma